



# DEFENTSORIA

*Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako*  
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

## EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO URTEKO TXOSTENA

2006ko maiatzaren 24a - 2007ko maiatzaren 24a

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# Aurkibidea

<b>SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DEFENTSA ERAKUNDEAREN OINARRI JURIDIKOAK</b>	
1.1 4/2005 Legea	6
1.2 119/2006 Dekretua	10
1.3 3/2007 Lege Organikoa	12
<b>2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DEFENTSA ERAKUNDEA ABIARAZTEKO JARDUERAK</b>	
2.1 Erakundearen definizioa	16
2.2 Irudi korporatiboaren definizioa eta garapena	20
2.3 Funtzionamendurako tresnak	21
2.4 Zabaltzea eta komunikazioa	24
2.5 Koordinazio- eta lankidetzeta-mekanismoak	27
2.6 Azterlanak	37
<b>3. HERRITARRENTZAKO ARRETA JARDUERAK</b>	
3.1 Terminoak mugatzea	55
3.2 Arreta jasotako herritarren deskribapena	58
3.3 Erantzundako eskaeren deskribapena	62
3.4 Irizpenak	102
<b>4. LANGILEAK ETA AURREKONTU EKONOMIKOA</b>	
4.1 Langileak	104
4.2 Aurrekontu ekonomikoa	107
<b>5. LABURPENA</b>	<b>109</b>
<b>6. BALIOESPENA</b>	<b>115</b>

# SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea errekurtsio berri bat da. Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen arabera sortutakoa da eta ekainaren 13ko 119/2006 Dekretuak arautzen du; horren bitartez antolaketa- eta funtzionamendu-araudia onesten da.

4/2005 Legeak (73. eta 74. artikulua) zein 119/2006 Dekretuak (19. artikulua) ezartzen dutenaren arabera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak egiten dituen urteko txostenak, bai eta aparteko txostenak ere Eusko Legebiltzarrari aurkeztu beharko dizkio. Urteko txostenaren edukiari dagokionez, artikulua biek zehazten dute gutxienez honako gai hauek aipatu behar direla:

- Zenbat ikerketa egin diren eta zein motatakoak izan diren, ofizioz nahiz alderdi baten eskariz, eta horien emaitzak. Era berean, egindako adiskidetze-proposamenak eta gomendioak, eta horiek onartu diren ala ez, eta hala badagokio, kasuren batean Defentsa Erakundearen ikerketa-jarduera oztopatu edo eragotzi den aipatu behar da.
- Ukatutako kexen eta ukatzeko arrazoen zerrenda.
- 4/2005 Legearen 75. artikuluan xedatutakoaren arabera emandako irizpenen zerrenda.
- Zenbat aholkularitza-jarduera egin diren eta zein motatakoak izan diren.
- Legeak egin eta eraldatzeko azterlan eta proposamenak egin badira, horien zerrenda.
- Interesgarritzat jotzen diren gainontzeko gai guztiak.

Lehenengo urteko txosten hau Defentsa Erakundearen lehenengo urteari dagokio; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari Juan José Ibarretxe Markuartuk Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzaile Maite Erro Jauregi izendatu zuen datatik (2006ko maiatzak 24) aurrerakoa da. Hori dela eta, erakundeak 2006ko maiatzaren 24a eta 2007ko maiatzaren 24a bitarteko epean garatutako jardueren deskribapena erantsi zaio.

Hauek dira egin zenean ezarritako helburuak: hamabi hilabete hauetan zehar oinarritzko logistikako gaien inguruan, hala nola, Defentsa Erakundearen egoitzarako eremu fisikoaren eta ekipamenduaren kokapena, emandako denbora garrantzitsuaren berri ematea; erakunde honen esku utzitako sexuagatiko berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren arloan sektore pribatuan dagoen espezializazio maila handia ezagutaraztea eta, azkenik herritarrek egindako eskaeren ezaugarriak deskribatzea.

Urteko txosten honetako datuei dagokion aldia hausnartu ondoren, honako erabaki hauek hartu dira: lehenengo txosten hau urteko epealdi osoarekin bat etortzea, landutako gai anitzen ikuspegi globala emateko eta aurreragoko urteko txostenak urte naturaletan edo aurrekontu-urteetan zehar jorrotutako gaiez arduratzeko. Era horretan, informazioaren analisia, hala nola, urtearteko eta beste erakundeekin edo estatistika-iturriekin egindako erkaketak egitea, errazagoa eta ulergarriagoa izango da.

Urteko txosten honek 6 atal ditu, hauek dira horietan aurkeztutako edukiak:

Lehenengo atalak 4/2005 Legeak sortutako (119/2006 Dekretuak arautzen du eta 3/2007 Lege Organikoaren bidez antolamendu juridikoan aldaketak izan ziren) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen oinarri juridikoak jorrotzen ditu.

Bigarren atalean, 2006ko maiatza eta 2007ko maiatza artean Defentsa Erakundea abiarazteko gauzatutako jarduerak azaltzen dira. Hona: egoitzaren kokapena zehaztea, ekipamendua, funtzionamendurako tresnen definizioa, irudi korporatiboarekin loturiko gaiak, hedapena eta komunikazioa, lankidetzaharremanak garatzea, egindako azterlanak, eta abar.

Era berean, hirugarren atalean, Defentsa Erakundean erantzundako herritarren eskaeren terminoak mugatu ondoren, arreta emandako herritarren eskaeren deskribapena, adostutako ikerketa-prozedurak eta gomendioak agertzen dira.

Laugarren atalean, Defentsa Erakundearen langile kopuruari eta diru-hornidurari buruzko edukiak azaltzen dira.

Azkenik, bosgarren eta seigarren ataleko edukien xedea, aurreko lau ataletan adierazitakoaren sintesia ematea da, bai eta ballioespen orokor bat Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen gai nagusiei buruz.

# 1 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNE- RAKO DEFENTSA ERAKUNDEAREN OINARRI JURIDIKOAK

Sortu berria den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen oinarri juridikoak deskribatzen dira urteko txosteneko lehenengo atal honetan. Erakundearen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadila sustatzea eta sektore pribatuan sexuagatiko bazterkeria-egoeretan herritarrak defendatzea da. Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (aurrerantzean 4/2005 Legea) erakunde burujabe hau sortu zuen Emakumeen eta Gizonean Berdintasunerako. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren ekainaren 13ko 119/2006 Dekretuaren bidez (aurrerantzean 119/2006 Dekretua) Defentsa Erakundearen Araudia eta funtzionamendua arautzen dira.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 2/2007 Lege Organikoaren bidez (aurrerantzean 3/2007 Lege Organikoa), erreferente biek aldaketa garrantzitsuak izan dituzte Defentsa Erakundeak sektore pribatuan duen jokabidean.

Defentsa Erakundea 2006ko maiatzaren 24an defendatzailea izendatzearekin batera jarri zen abian. Defendatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakariaren maiatzaren 16ko 3/2006 Dekretuaren bidez izendatu zen, 4/2005 Legearen 67. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik eta Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza Kontseiluak hala proposatuta.

## 1.1 4/2005 Legea

Lege hau egitea eta onartzea aurrekaririk gabeko une garrantzitsua izan da Euskal Autonomia Erkidegoan. Herritar askok parte hartu baitu eta, era berean, nazioarteko erakundeek aipatutako ildo estrategiko garrantzitsuen berri eman baita.

Asko dira prozesu honetan parte hartu duten herritarrak, ezezagunak zein ezagunak, bai emakumeen elkarreak –dudarik gabe etapa horretako eragileak- eta bai euren kaxa (lanetik, etxetik, politikaren arlotik, eta abar) aritu diren gizonak eta emakumeak. Horiek, euren ahaleginarekin eta lanarekin benetako berdintasun eraginkorrerako bidea eraikitzen lagundu dute.

4/2005 Legearen zioen adierazpenean *emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna* terminoaren esanahia deskribatzen da. Era berean, Lege honen azken helburua den horrekin lortu nahi dena da *“berdintasunezko gizartea, esparru publiko nahiz pribatuan, pertsona orok askatasun osoz gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak har ditzan sexuaren araberako rol tradizionalak ezarritako mugak alde batera utzita; emakumeen eta gizonen jokabideak, nahiak eta beharrianak berdin kontuan hartuko, baloratuko eta sustatuko diren gizartea”*.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea Lege honen berritasunik garrantzitsuenetako bat da; Legearen IV. tituluan sortzen eta arautzen da. *“Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadila sustatzea eta sektore pribatuan sexuagatiko bazterkeria-egoeretan herritarrak defendatzea helburu dituen organo independente berri hau”*.

Garrantzia baliabide berria sortu izanean datza, baina batez ere, sexuagatiko bereizkeria-egoerak edo jarrerak gerta ez daitezen arduratzen diren botere publikoen esparrua sektore pribatura zabaltzea eta *“horrenbestez, Arartekoa arlo honetan eta euskal sektore publikoan egiten ari den lana osatzen da, eta Europar Batasunak emakume eta gizonentzako tratu berdinen printzipioaren defentsa sustatzen duten erakunde independenteak sortu beharri buruz eman dituen aginduak betetzen dira...”*.

Emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadila sustatzen duten erakunde burujabeen beharra Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren

irailaren 23ko 76/207/EE Zuzentarauaren 8. bis artikuluan jasotzen da, eta Kontseiluaren 76/207/EE Zuzentaruak, lanposturen bat eskuratzerakoan, prestakuntzan eta lanbide sustapenean eta lan-baldintzetan gizonen eta emakumeen tratu-berdintasunaren printzipioa ezartzeari buruzkoak, aldatu du. Halaber, Kontseiluaren abenduaren 13ko 2004/113/EE Zuzentaruaren ere jasotzen da; horren bidez, ondasunak eta zerbitzuak eta horien horniketa eskuratzerakoan gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa ezartzen da.

Zuzentaru bien arabera, estatu kideek honako eskumen hauek dituzten erakundeak izendatu behar dituzte:

- "Bereizkeriaren biktimei aparteko laguntza eskaintzea, bereizkeriagatiko erreklamazioak izapidetzeko orduan.
- Bereizkeriari buruzko aparteko azterlanak gauzatzea.
- Aparteko txostenak argitaratzea eta gomendioak ematea, aipatutako bereizkeriarekin zerikusia duen edozein gairen inguruan".

Zuzentaru bien ildotik, 4/2005 Legeak ezartzen duenez *"Defentsa Erakundeak erabateko autonomia izango du Administrazioaren beste atalekiko, bere eginkizunak betetzeko, eta Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita egongo da, Administrazioaren egitura hierarkikoan txertatu gabe"* (63.2. artikulua). Era berean, *"objektibotasun eta inpartzialtasun osoz beteko ditu bere eginkizunak eta ez da egongo inolako hierarkia-edo jarraibide motaren menpe"* (64.1. artikulua). Halaber, haren titularrak zenbait ezaugarri definitzaile izango ditu eta erakunde honi eman zaion autonomia indartzen duen bateraezintasunen araubide oso zorrotzaren menpe egongo da (67.3. artikulua).

Defentsa Erakundeari esleitu zaizkion funtzioei dagokienez, gardentasun osoz zehaztuta dago 4/2005 Legearen 64. artikuluan. Hauek ditu betekizun:



- a) *"Ikerketak egitea, ofizioz nahiz alderen batek eskatuta. Ikerketon helburua sektore pribatuan gerta daitezkeen sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako bereizkeria-egoerak argitzea izango da.*
- b) *Negoziatzeko bideak ematea eta gomendioak egitea pertsona fisiko nahiz juridikoei, sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoerak edo ekintzak zuzentzeko, eta gomendio horien jarraipena egitea, betetzen diren ala ez ikusteko.*
- c) *Arlo pribatuan sexuaren zioz sortutako bereizkeria-egoeretan aholkularitza eta laguntza ematea herritarrei.*
- d) *Jazarpen sexistaren kasuak errazago konpontzeko bidea izatea.*
- e) *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, bereizkeriaren aurkako arauak zenbateraino betetzen diren aztertu eta ebaluatzea.*
- f) *Bereizkeriaren aurkako legeria eta jurisprudentzia aztertzea, eta lege berriak egitea eta legeria aldatzeko proposamenak aurkeztea.*
- g) *Egiten dituen jarduerak eta ikerketak jendaurrera zabaltzea, eta lege honetan xedatutakoaren araberrako txostenak eta irizpenak ematea. Legea Eusko Legebiltzarrari aurkeztu beharko zaizkion urteko txostenei eta aparteko txostenei buruzkoa da, eta, era berean, Lan Prozedurari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen 2/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 95. artikuluan zehaztutako irizpenei buruzkoa da.*
- h) *Mekanismoak proposatzea Arartekoarekin, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearekin eta giza eskubideen arloan eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten beste organo eta erakunde batzuekin koordinatzeko.*
- i) *Lan arloko agintaritzarekin elkarlanean jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan bereizkeriaren aurkako lan-arauak betetzen diren begiratzeko.*
- j) *Lege honetan jasotako edo Legearen helburuak betetzeko agintzen zaion beste edozein eginkizun".*

Era berean, Lege honetan mugak ezartzen zaizkio Defentsa Erakundeari honakoei dagokienez: intimitateari buruzko kexei, epai irmoa jaso duten kexei, ebazpen zain daudenei eta alde interesatuak epaitegietan demanda edo errekurtoa jarri dienei dagokienez. Gainera, hau zehazten du: bereizkeriako jokabideak edo gertakariak argitzeko beharrezkoak diren ikerketa-egintzak. Aipatutako ikerketak zuhurtzariak handienaz gauzatu beharko dira. Azkenik, zehazten du Defentsa Erakundeak bereizkeriako egintzak ezeztatzeko edo zigortzeko eskumenik ez duela.

Zigortzeko botereari dagokionez, 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera, Defentsa Erakundearen ikerketa-egintza zail bihurtzea, horri uko egitea edo oztopatzea zigorgarria da. Era berean, kasu arinak eta larriak Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeari dagozkio eta oso larriak Gobernu Kontseiluari.

Azkenik, garrantzitsua da aipatzea Lege honen printzipio orokorretan (3.1. artikulua) tratu-berdintasuna, zuzeneko bereizkeria, zeharkako bereizkeria eta ekintza positiboa kontzeptuak definitzen direla. Definizio horiek Europako Zuzentzaruek ezarritakoekin eta ondoren, 3/2007 Lege Organikoak barneratutakoarekin, bat datoz.

## 1.2 119/2006 Dekretua

119/2006 Dekretuak (7. eta 8. artikulua), besteren artean, Defentsa Erakundearen araubide ekonomikoa eta finantzarioa ezartzen du, eta hau zehazten du:

- Zuzkidura ekonomikoak Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen aurrekontuari esleituko zaizkio, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren barruan.
- Jarduera-eremuari dagokionez, indarrean dagoen araudiak Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeari ematen dizkion aurrekontu-gaietan ahalmen guztiak ditu. Emakundearen zuzendaritzari erabakiaren berri eman behar dio.

- Defentsa Erakundeak kontratatutako edo erositako ondasunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren kontratazio publikoari buruzko araudiak arautzen ditu.
- Defentsa Erakundeak egokitzat jotzen dituen erakunde publiko edo pribatu guztiekin lankidetzat-hitzarmenak sinatu ahal ditu, emanda dituen zereginen esparrukoak badira.
- Eta bekak eta laguntzak edo diru-laguntzak eman ditzake, dituen funtzioen eta eskumena duen organoak onartutako arau erregulatzaileren esparrukoak badira.

Dekretuaren alderdirik garrantzitsuena, ordea, funtzionamenduari buruzkoa da eta III. kapituluko 9.-18. artikuluetan jasota dago. Horren bitartez, 4/2005 Legeak, sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoerak edo -ekintzak direla-eta egindako ikerketa-prozedurari buruzko xedapenak garatzen dira. Era berean, prozedura hori eta Defentsa Erakundearen espezializazio-esparrua zehazten ditu.

Araudi honi jarraiki, ikerketa-prozedurari hasiera ofizioz eman ahal izango zaio, baldin eta *bere ekimenez, beste organoek arrazoiz eskatuta zein salaketa bidez jakiten badu sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeriako jokabideak edo gertakariak izan direla.*

Interesdunaren eskariz ikerketa-prozedurari hasiera emango zaio ondorengo pertsonak aurkeztutako kexen onarpenak aintzat hartuta hasiera ematea erabaki denean: *edozein pertsonak edo pertsona taldek, baldin eta sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria jasan badute, edo haien legezko ordezkariak, bai eta emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea xede duten elkarteak, erakundeak eta beste pertsona juridikoak (...) baztertuta dagoela deritzoten pertsonaren izenean edo hari laguntzeko.*

Instrukzio-prozedurak honako hauek jasotzen ditu: ikerketa-eginbideak, Defentsa Erakundearen ikerketaren eraginpean dauden pertsona guztiek lagundu behar

izatea, alegazioak egiteko epea, aldeei entzunaldi-izapidea eginda bukatuko den ikerketa isilpean garatu behar izatea.

Prozedura ebazpenaz bukatuko da. Horren bidez, ikerketen emaitza jakinarazpen bidez ezagutaraziko zaie interesdunei. Prozedura beste organo batek arrazoiz eskatuta hasi denean, hari ere jakinaraziko zaio. Ebazpenean, adiskidetze-neurriak proposatu ahal izango zaizkie alderdiei edo kexa bere aurka jarrita duen entitateari gomendioak egin ahal izango zaizkio.

Era berean, Dekretuaren IV. kapituluan beste erakunde batzuekin, bereziki, Eusko Legebiltzarrarekin, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearekin, eta Arartekoarekin duen harremanari buruzko alderdiak aztertzen dira.

### 1.3 3/2007 Lege Organikoa

Lege honek ordenamendu juridikoa indartzen du berdintasunaren alorrean eta Defentsa Erakundearen jarduera-eremuari buruzko oso gai interesgarriak eskaintzen ditu. Hala nola, sexuagatiko bereizkeriari buruzko gaietarako egindako ekarpenak zein sektore pribatuari dagokionez jarritako neurriak.

Aipatzekoak dira Lege honetako *Berdintasun-printzipioa eta bereizkeriaren aurkako babesari* dagozkion I. tituluaren gai kontzeptualak, Europako Zuzentarauetan eta 4/2005 Legean ezarritakoari jarraiki.

**Emakumeen eta Gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa** *“sexuagatiko, edo sexuari loturiko, zuzenean zein zeharka, edozein egoera pertsonalarengatiko edo sozialarengatiko inolako bereizkeriarik eza da; bereziki amatasunari, familia-betebeharrak hartzeari eta familia- edo bikote-egoerari buruzkoak; bai eta era askotako bereizkeria ondorio duten beste faktore batzuei dagozkienak ere, ezintasunari, esaterako”.*

*“Enplegu pribatuaren zein publikoaren alorrean aplikatu daitezkeen emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasunaren printzipioa bermatuko da, honako kasu hauetan aplikatu behar den arautegian adierazitako moduan: lanposturen bat eskuratzekoan, baita norberaren konturako lanpostuan ere, lanbide heziketan, lan-baldintzetan, ordainsariak eta kaleratzeak barne direla, edo kideak lanbide zehatza duten edozein erakundetan, horiek emandako zerbitzuak barne direla”.*

*“Zuzeneko bereizkeriaz hartzen da sexuagatik beste pertsona batek egoera berean jasotzen duen tratua baino okerragoa izan duen, duen edo izateko arriskua duen pertsonaren egoera”.*

*“Sexuagatiko zeharkako bereizkeria itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo jardura baten aurrean sexu bateko pertsonak beste sexuarekiko desabantaila egoeran daudenean gertatzen da; salbu geratuko dira aipatutako neurria, irizpidea edo jardura era objektiboan bidezkotu ahal denean eta helburua bidezkoa denean, eta helburua lortzeko erabilitako baliabideak beharrezkoak eta egokiak direnean”.*

*“Edonola ere, bereizkeriazkotzat joko da sexuagatiko edozein eratako bereizkeria, zuzenekoa edo zeharkakoa”.*

*“Sexu-jazarpenzat hartuko da pertsona baten duintasunaren aurka jotzea helburu edo ondorio duen sexuagatiko edozein jokabide, ahozko edo fisiko. Bereizki, ingurua beldurkor, iraingarri edo erasokor bilakarazten badu”.*

*...“Sexuagatiko jazarpenzat hartuko da pertsona baten duintasunaren aurka jotzea eta ingurua beldurkor, iraingarri edo erasokor bilakaraztea helburu duen edozein sexu-jokabide”.*

*...“Betiere, bereizkeriazkat hartuko dira sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena”.*

*...“Sexu-jazarpenaren edo sexuagatiko jazarpen egoeraren mende badago eskubideren bat edo eskubide-aukeraren bat, sexuagatiko bereizkeriazkat hartuko da egoera hori ere”.*

...“Sexuagatiko zuzeneko bereizkeriatzat hartuko da **haurdunaldia edo amatasuna direla eta emakumeen aurkako edozein jokabide**”.

...“Era berean, sexuagatiko bereizkeriatzat hartuko da bereizkeria ekiditeko eta emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea bermatzeko **aurkeztutako edozein motatako kexaren, erreklamazioren, salaketaren, eskaeren edo helegiteren ondorioz, pertsona baten kontrakoa den edo eragin negatiboa sor dezakeen edozein jokabide**”.

Azkenik, aipatu beharrekoa da sexuagatiko bazterkeria-kasuetan hartutako neurri prozesal bermatzaileek ezartzen dutena *“persona demandatuari dagokiola frogatzea hartutako neurrien bereizkeriarik eza eta egokitasuna*”. Era berean, epai-organoak, interesdunaren eskariz erabilgarritzat eta egokitzat hartzen badu, txostena edo irizpena erkatzea eskumena duten erakundeen irizpena hartuko du. Epai-organoak bere eskumeneko esparruan, Defentsa Erakundeari eska diezaioke.

3/2007 Lege Organikoak enpresa-arloan honako aldaketa hauek sartzen ditu:

- IV. titulua aukera-berdintasuneko lanerako eskubidea ezartzen du. Horretarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak sartu ditu, lanpostua eskuratzeari, lanbide heziketari eta sustapenenari, eta lan-baldintzei buruzkoak. Langileen lan-eskubideei dagokienez, sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko babesa ere barne hartzen du.
- Enpresek, oro har, lan-esparruan berdintasun-printzipioa errespetatu behar dute. Era berean, berrehun eta berrogeita hamar langile baino gehiago dituzten enpresetan berdintasunerako planak adostu behar dira. Enpresek berdintasunerako plana egin eta ezarri beharko dute, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboak hala ezartzen badu eta hitzarmenean zehazturik dagoen moduan. Halaber, enpresek langileen legezko ordezkariekin berdintasunerako plana egingo eta ezarriko dute, baldin eta lan-administrazioako agintariak zehapen-prozeduraren bidez aipatutako plana egiteagatik eta ezartzeagatik

zehapen gehigarriak ordezkatzeari xedatu badu, delako hitzarmenean ezarritakoaren arabera. Gainontzeko enpresek plan horiek borondatez egingo eta ezarriko dituzte.

- Bereizgarria sortu da enpresentzat, berdintasunaren esparruan langileen tratua eta aukera-berdintasunerako politikak ezartzeagatik nabarmentzen diren enpresak eskertzeko eta Euskal Autonomia Erkidegokoarentzat azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuak, "Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Erakunde Laguntzailea" izenburukoak, araututako bereizgarriaren antzekoa da.
- Norberaren bizitza, familiakoa eta lana uztartzeko eskubidea onartzen da. Langile Estatutua aldatzearekin batera, jadanik onartutako baimenak aldatzen eta zabaltzen dira. Aitatasun-baimena hamahiru egunera luzatu da, eta, erditze anitza izanez gero, beste bi egun luza daiteke, seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera. Halaber, egungo amatasun-baimena hobetzeko neurriak sartzearen ondorioz, epe hori beste bi aste luzatu ahalko da seme-alaba ezgaitua bada. Legezko zaintzagatik lanaldia murrizteko eskubidea zabaltzea egin da. Alde batetik murrizketa-eskubidea ematen duen haurraren gehienezko adina sei urtetik zortzi urtera aldatu da; bestalde, murrizketa horren gutxienezko muga lanaldiaren zortzirena da. Borondatezko-eszedentziaren iraupen minimoa lau hilabetekoa da eta familiakoak zaintzeko eszedentziaren gehienezko iraupena urte batetik bi urtera aldatzen da.
- VII. tituluan enpresek berdintasunaren esparruan borondatez egindako erantzukizun sozialaren jarduerak aipatzen ditu; eta horiek ere, langileen ordezkariarekin ados daitezke.
- Merkataritza-sozietateen administrazio-kontseiluetan emakume eta gizon kopuru orekatua sustatzea. Horretarako, Legea indarrean sartu eta zortzi urteko epea eman zaie.

## 2 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNE- RAKO DEFENTSA ERAKUNDEA ABIARAZTEKO JARDUERAK

Bigarren atal honetan hamabi hilabeteetan zehar (2006ko maiatza–2007ko maiatza) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak gauzaturako jarduerak azaltzen dira. Era berean, lehenengo urtea denez, jarduera horiek erakundearen hasierari buruzkoak dira, hauek hain zuzen: egoitzaren kokapena, ekipamendua, funtzionamendurako tresnen definizioa, irudi korporatiboa, hedapena eta komunikazioa, lankidetzeta-harremanak garatzea eta koordinazio-mekanismok martxan jartzea. Halaber, erakundearen definizioari eta haren jarduera-eremuari arreta berezia eskaini zaie.

### 2.1 Erakundearen definizioa

Defentsa Erakundea sexuagatiko berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren oinarrizko eskubidearen alde sortu berria den baliabidea da. Hori dela eta, segur aski, horren berri izango duten eta duen bilakaerari adi egongo diren beste autonomia-erkidegoentzat erreferentzia izango da.

Hausnarketa honek Defentsa Erakundearen definizioari buruzko azpiatala egitea dakar berekin. Era berean, derrigorrezkoa da honako hauek kontuan izatea: Europako arautegiaren babesa, Erakundearen araubidearen berezitasuna, erakundearen jarduerak Arartekoaren lanaren osagarri izan beharra, eta bere eremuan –sektore pribatuan– zertan eta zenbateraino jardun behar duen zehatz izatea.

Organo hau burujabea da. Helburu Euskal Autonomia Erkidegoko tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadila sustatzea eta sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoeretan herritarrak defendatzea ditu. Era berean, Euskal Autonomia



Erkidegoko sektore publikoan Ararteko erakundeak gai horri buruz gauzatzen duen lan-osagarria da.

Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoaren 40/2006 Irizpenaren 43. lerroaldean ezartzen denaren arabera, *"Defentsa Erakundea erakunde burujabea da, sui generis, eta sortu zuen Legeak arautzen du duen araubide juridiko berezia"*. Era berean, duen izaera berezia Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziarekin eta Aholku Batzorde Juridikoarekin berarekin partekatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean.

Irailaren 23ko Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren 2002/73/EE Zuzentarauaren 8. bis artikuluan eta irailaren 13ko Kontseiluaren 2004/113/EE Zuzentarauaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera sortu zen.

Illo horri jarraiki, 4/2005 Legeak ezartzen duenaren arabera, *"Defentsa Erakundeak bere eginkizunak objektibotasun eta inpartzialtasun osoz beteko ditu eta ez da egongo inolako hierarkia- edo jarraibide-motaren menpe"*. Halaber, titularrak zenbait ezaugarri definitzaile izango ditu eta bateraezintasunen oso araubide zorrotzaren menpe egongo da, *"erakundeari eman zaion autonomia indartzen da horrela"*.

*"Defentsa Erakundearen kasuan, bortxazko mekanismoei txostena, aholkua, bitartekaritza eta azterlana,... gailentzen zaizkie (...). Administrazio aktibotik bereiztea esku-hartze berezi hori errazteaz gain, ohikoak ez diren jarraibide zehatzen arabera jardutea ahalbidetzen du"*<sup>1</sup>.

Garrantzitsua da kontutan hartzea ezagutzen ditugun genero-berdintasunerako defentsa-erakundeek (Norvegiakoak, Suediakoak eta Finlandiakoak) 25 urte inguruko esperientzia dutela. Hala ere, herrialde horien marko juridikoa eta gurea desberdinak direnez, ezin izango da adibide hori prozedura-erreferentetzat hartu.

---

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoaren 40/2006 Irizpena, 49. lerroaldea.

Izan ere, erakundearen definizioa ez da bera; haietan sektore pribatuan ez ezik, sektore publikoan ere aritzen da; horretan datza aldea.

Halaber, garrantzitsua izango da, Defentsa Erakundeari esleitu zaizkion funtzioak aurrera eramateko, orain dela gutxi onetsitako 3/2007 Lege Organikoa, Lege horren artikuluek eta zenbait lege-aldaketek eragina izan baitute sektore pribatuan.

“Sektore pribatuari” dagozkio Legearen 2. lerroaldeko a), b) eta c) ataletan ezarritako eginkizunak, Defentsa Erakundeak emakumeen eta gizonen arteko bereizkeriaren aurka gauzatu beharreko eskubideari buruzkoak. Hau da, sexuagatiko ustezko bereizkeria-jarrerei edo egoerei buruzko ikerketa-prozedurez, ofizioz zein alderdiren batek eskatuta, arduratzeko eskumena duen organoa da; betiere sektore pribatuari dagozkionetan.

Izan ere, beharrezkoa da “sektore pribatuaren” definizio teorikoa eta operatiboa izatea eta azaltzea; hau da, zer esan nahi duen eta zenbat pertsonak eta establezimenduk osatzen duten sektore hori.

“Sektore pribatua” terminoa gure ordenamendu juridikoan zehaztuta ez dagoen kontzeptua denez, lehenengo hurbilketa batean, “sektore publikoa” kontzeptutik kanpo dagoena dela zehaztu genezake. Euskadiko Ondareari buruzko Azaroaren 17ko 5/2006 Legeak sektore publikoari buruz ezarritako definizioari jarraiki, sektore publikoak honako hauek hartzen ditu barne: administrazio publikoak, horien erakunde autonomoak, sozietate publikoak, sektore publikoko fundazioak eta partzuergoak. “Sektore pribatuak”, aitzitik, beren jarduera ekonomikoa eta soziala aipatutako zerrendan jasota ez dagoen establezimendu guztiak hartzen ditu barne:

Mugaketa horretatik abiatuta, jarduera-arlo bakoitzean sektore pribatuaren establezimendu- eta enplegu-kopurua lurraldeka eta eskualdeka ezagutzeko. Jarduera Ekonomikoen Direktorioaz baliatu gara (Eustat, 2006). Iturri honek, Euskal Autonomia Erkidegoko 182.276 establezimendu eta 765.339 lanpostu aipatzen ditu.

Lurralde historikoka egindako banaketari dagokionez, Bizkaian establezimenduen %51,5 (93.946) eta enpleguaren %50,5 kokatzen da (386.587); Gipuzkoan establezimenduen %35,6 (64.927) eta enpleguaren %33,7 (257.684); eta Araban establezimenduen %12,8 (23.403) eta enpleguaren %15,8 (121.068).

Aipatutako establezimenduen eta enpleguaren jarduera-arlokako banaketaren arabera, hauexek dira datuak: industrian eta energian 14.733 establezimendu eta 221.835 enplegu daude; eraikuntzan 27.038 establezimendu eta 87.061 enplegu; merkataritzan eta konponketetan 47.902 establezimendu eta 138.957 enplegu; ostalaritzan 14.229 establezimendu eta 45.280 enplegu; garraioan eta komunikazioan 15.118 establezimendu eta 48.653 enplegu; bankuetan, aseguruetan eta enpresentzako zerbitzuetan 39.855 establezimendu eta 141.418 enplegu; azkenik, beste zerbitzu batzuetan 23.401 establezimendu eta 82.135 enplegu. Azken sailkapen honen barruan hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak, elkarte-, jolas- eta kultura-jarduerak, eta abar sartzen dira.

Hala ere, Ondareari buruzko Legearen arabera, "sektore pribatuaren" definizioak eta zenbaterainokak interpretazio mugatua dute, titulartasunaren, jabariaren, ondasunen- jabetzaren, partaidetzaren eta abarren ikuspuntua oinarritzat hartzen baitute. Hortaz, Defentsa Erakundeak izan behar duen ikuspuntutik, hau da, norbanakoen arteko berdintasun eta bereizkeriaren aurkako oinarritzko eskubideak bermatzeko eraginkortasun juridikotik, asko aldentzen da.

"Publikoa dena" eta "pribatua dena" mugatzea oso gai garrantzitsua da Defentsa Erakundeari eskatzen zaion jarduera gauzatzeko. Era berean, teoriaren aldetik ondo ebatzita ez dagoen baina praktikan konpontzen doan gai korapilotsua da. Horretarako ezarri diren mugak indarrean dauden arauak dira, beraz, hirugarren batekin duen harremana zuzenbide pribatuaren arabera denean, beronen eskumen-eremuko gai baten aurrean egongo gara. Hau da, ondarearen ezaugarriek ez ezik, indarrean dagoen zuzenbide publikoak eta pribatuak ere Defentsa Erakundearen eskumen-eremua mugatuko dute.

Ikuspegi honen ildotik, bere eskumen-eremua entitate publikoek nahiz pribatuek kontratatutako pertonez arduratzeaz gain, ondasunak eta zerbitzuek eta horien hornikuntza eskuratu nahi duten pertsona guztiez ere arduratuko da. Euskal Autonomia Erkidegoko norbanakoen arteko harremanetan eragina izan dezaketen pertsona guztiak dira horiek, eta barne hartzen dira autonomia-erkidego honetan erroldatuta ez dauden eta bizi ez diren arren, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore pribatuko establezimenduren batean sexuagatiko bereizkeria-jarrerak edo egoerak jasan dituzten pertsona guztiak ere.

Zuzenbide pribatuaren arauak eragiten dituzten pertsonen zenbatekoa da sektore pribatu gisa mugatu dena. Garrantzitsua da ez bakarrik antolaketaren ikuspuntutik, baizik eta hedaduraren aldetik ere. Defentsa Erakundeak gizarte-egitura patriarkala beste gizarte-eredu parekide eta bereizkeriaren aurkako batzuetara aldatu baitu. Era berean, norbanakoen arteko harremanen esparruan ere gertatutako bereizkeria-kasuak ere mugatu dira.

## 2.2 Irudi korporatiboaren definizioa eta garapena

Lehenengo urte honetan zehar, Erakundearen logotipo, identifikazio-marka eta bi elementu horiek Eusko Jaurlaritzaren logotipoarekin bat egiteari ere ekin zaio, baita horiek komunikazio-euskarrietara aplikatzeari ere.

Lehenengo jardueretan *naming*-a definitu da, hau da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea era errazean eta arinean identifikatzeko eta memorizatzeko marka. Analisi- eta proposamen-fasearen ondoren, *Defentsoria* terminoa adostu zen. Marka bat da, ez dator bat *Defensoría* terminoaren euskarazko itzulpenarekin.

Era berean, identifikazioa errazten duen irudi korporatiboa egiteari ekin zaio eta zenbait komunikazio-tresnetan aplikatuko da: bulegoetako hormen identifikazioan, bisita-txarteletan, Word euskarri informatikorako txantiloietan, PowerPoint txantiloietan, posta elektronikoan, aurkezpen interaktiboetan, egoitza ofizialki

inauguratzeko ekitaldirako gonbidapenean, bai eta informazio-paneletan ere. Informazio-panel horiek egoitza ofizialki inauguratu zenean Erakundearen berri emateko sortutako komunikazio-elementuak eta Defentsa Erakundea Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz kanpoan hedatzeko tresna dira.

Irudi korporatiboa definitzeko garatutako lana bukatzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeari buruzko informazio-liburuxka egin eta argitaratu da. Honako hauek dira liburuxkak jorratzen dituen edukietako batzuk: kokapena, funtzioak, mugak, nortzuek aurkez dezaketen eta nola aurkez daitekeen, eta abar.

### **2.3 Funtzionamendurako tresnak**

Atal honetan, aipatutako epealdian zehar Defentsa Erakundea abiarazteko oinarritzko tresna bi edukitzeko garatu diren jarduerak aipatzen dira: alde batetik, egoitza eraginkorra, dagokion ekipamenduarekin, eta ur-, energia- eta komunikazio-sareekin konektatuta; beste alde batetik, ikerketa-prozedurei dagozkion espedienteen tramitaziorako oinarritzko tresna informatikoa.

Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzekin bilerak egin dira. Izan ere, zuzendaritzek txosten honetan aipatu gabe utzi ezin daitekeen laguntza ordainezina eskaini diote, zenbait gairi eta jarduerari dagokienez.

Bidezkoa da honako hauei eskerrak ematea: Ogasun eta Herri Administrazioiko Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordetzari, lokala kontratatzeko kudeaketaren eta telefono bidezko konexioa eta konexio informatikoaren inguruan eskainitako laguntza, babesa eta orientazio teknikoa direla-eta; Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeari, Defentsa Erakundeak zerbitzuak kudeatzeko langilerik ez zuenez, zazpi hilabete hauetan zehar egindako kudeaketa ekonomikoaren eta ondorengo orientazio teknikoaren inguruan eskainitako lankidetzeta eta laguntza direla-eta; EJIeri, aplikazio informatikoa baloratzearen inguruan eskainitako

lankidetzagatik; Ararteko erakundeari, emandako informazioagatik; bai eta Kontsumo eta Industria Segurtasunerako Zuzendaritzari ere, espedienteen tramitaziorako prozedura informatikoengatik. Halaber, Lehendakaritzaren lankidetzaren ere izan dute Erakundeekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren, Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzaren, Zerbitzu Zuzendaritzaren, Komunikazio Idazkaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoak Bruselan duen Ordezkaritzaren bidez.

Premiazko lehen jarduera, Defentsa Erakundearen egoitzarako kokapen egokia zuen lokala bilatzea zen, 4/2005 Legeak agindutako zereginak eta 119/2006 Dekretuan zehaztutako antolakuntza- eta funtzionamendu-ezaugarriak kontuan hartuta. Hil horietan, behin-behinean erabiltzeko bi bulego zeuden: bata Hezkuntza Ordezkaritzak Donostian duen Andia kaleko 13an, eta bestea EJIEk Vitoria-Gasteizen duen Beato Tomás de Zumárraga kaleko 73an. Defentsa Erakundeak eta Berdintasunerako Batzordeak 2006ko amaierara arte bulego biak erabili zituzten.

Kontuan hartzen badugu Eusko Jaurlaritzak 6 lanpostu onartu zituela eta Defentsa Erakundearen funtzio nagusia herritarren kontsultei, kexei eta salaketei erantzutea dela, egoitzak honako ezaugarri hauek izan behar zituen: gutxi gorabehera 200m<sup>2</sup>ko azalera, sarbide errazekoa, Vitoria-Gasteizko erdialdean kokatua, egitura egokikoa, herritarrek erraz ikusteko modukoa eta sarbide errazekoa. Erakundeak bere funtzioak bete ditzan oinarritzko ezaugarriak dira horiek.

2006ko uztailean, defendatzaileak higiezinen agentzia batzuen lokalak ikusi ondoren, 7 lekuren balorazioan oinarritutako proposamena egin eta Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen aurkeztu zuen. Guztietan egokitze-lanak egin edo arkitektura-oztopoak kendu behar ziren. Prozesua 2006ko abenduan bukatu zen, Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio zuzendariak (Ogasun eta Herri Administrazio Saila) eta jabeak 5 urteko errentamendu-kontratua sinatuta.

Hilabete bat gehiago behar izan zen altzariak (mahaiak, aulkiak, apalategiak, armairu artxibategia, eta abar) eta lan-tresnak (ordenagailuak, inprimagailuak, fotokopiagailua, eskanerra, bulego-materiala eta abar) jartzeko, bai eta segurtasun-sistema eta elektrizitate-, telefono- eta informatika konexioak instalatzeko ere.

2007ko urtarrilean, Defentsa Erakundeko langileak (hiru pertsona une hartan) egungo egoitzan lanean hasi ziren. Vitoria-Gasteizko Gaztelako Atea kalearen 25. zenbakiko Defentsa Erakundearen egoitza ofizialki inauguratu zenean lehendakaria buru izan zen (2006ko otsailaren 21ean). Momentu hartatik aurrera, izendatutako langile guztiak han dira (6 langile). Gero, egokitzapenak egin ziren, hala nola: ordutegia kontrolatzeko sistema instalatu da, faxa erosi eta instalatu, eta mugikortasun arazoak dituztenentzat aparkalekua eskatu zaio udalari.

Ikerketa-prozedurarekin loturiko burututako beste jarduketei dagokienez, 119/2006 Dekretuak (III. kapitulua, 2., 3., eta 4. atalak) sektore pribatuan sexuagatiko ustezko bereizkeria dela-eta, ikerketa-prozeduren hasiera, bideratzea eta amaiera arautzen du honako termino hauetan:

- Ikerketa-prozeduraren hasieran (2. atala) honako edukiak zehazten dira: prozeduraren hasierarekin loturikoak (ofizioz eta alderdi batek hala eskatuta hasiera ematea, 11. eta 12. artikulua); kexa aurkezteko modua (13. artikulua); kexen erregistroa (14. artikulua); onartzea edo ez onartzea eta jakinarazpena, prozedurari hasiera emateko erabakia, espedientean izapideak egingo dituen pertsona izendatzea eta hasiera emateko erabakiaren jakinarazpena (15. artikulua) zehazten dira.
- Instrukzio-fasean (3. atala) ikerketa-eginbideak, entzunaldiak eta alegazio-epea zehazten dira (16. eta 17. artikulua).
- Ebazpenaren bidez prozedurari amaiera emango zaio (4. atala) eta alderdiei adiskidetze-neurriak proposatzen zaizkie bereizkeriako egoera edo jardunbideak desagerrarazteko edo kexa bere aurka jarrita duen pertsonari gomendioak egiteko (18. artikulua).

Prozedura hau nolakoa den kontuan izanik, bereziki espediente bakoitzaren dokumentazio-kopurua, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak baltzu publikoarekin (EIJIE SA) elkarlanean, aplikazio informatiko bat garatzen ari da, Administrazioa (PLATEA) plataforma teknologikoa oinari hartuta. Horren helburua, espedienteen kudeaketan beharrei erantzuna ematea da, bai eta artxioko kudeatzea, erregistratzea eta antolatzea ere. Beharrei erantzuteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak datozen egunetan EIJIE SA baltzu publikoarekin hitzarmen-formula hitzartzeko konpromisoa hartu du.

## 2.4 Zabaltzea eta komunikazioa

4/2005 Legearen arabera, *"egiten dituen jardueren eta ikerketen berri ematea"* da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen funtzioetako bat. Defentsa Erakundea zabaltzea, berez, oinarrizko eta funtsezko jarduera da sortu berritan eta bere jarduera nagusiari herritarrek aurkeztutako eskaeren ondoren hasiera ematen zaionean. Horrela gauzak, helburua izan da organoa martxan jartzeko eta komunikazioaren hasierako faserako behar diren tresnez hornitzea. Horretarako, irudi korporatiboa oinarritzat hartuta hainbat hedabideren eskaerei erantzuna emateko beharrezkoak ziren komunikazio-elementuak sortu dira.

Zabaltze- eta komunikazio-jarduerak, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleei zuzenduta daude eta sektore pribatuari bereziki: enpresaburu eta langileei, lanbide-elkarteei, sindikatuei, emakumeen elkarteei oro har eta gizarte-eragileei eta hedabideei ere. Helburua Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundea ezagutaraztea da.

Erakunde hau lehen aldiz hedabideen aurrean agertu zen defendatzailea era ofizialean izendatu zenean (2006ko maiatzaren 24an), eta honako ekitaldi hauetan ere agertu da:

- 119/2006 Araudia onartzean (2006ko ekaina).



- Erakundeak etxeko indarkeriaren aurka egindako kontzentrazioan, Donostian beste autonomia-erkidego batzuetako herriaren defendatzaileekin batera (2006ko uztaila).
- Defendatzaileak ordezkaturata, Irungo eta Hondarribiko alardeetan (2006ko ekaina eta iraila).
- Europako iparraldeko herrialdetako Defentsa Erakundeei egindako bisitetan (2006ko azaroa).
- Emakumea eta Gazteriaren Legebiltzar Batzordearen aurreko agerraldian (2006ko abendua).
- Egoitzaren inaugurazioan (2007ko otsailak 21).
- Emakumeen Nazioarteko Egunean (2007ko martxoak 8).

Hamabi hilabete hauetan zehar, 50 elkarrizketa burutu dira honako hedabide hauekin: prentsa idatziarekin (Diario de Noticias de Álava, Diario de Noticias de Gipuzkoa, El País, Expansión, Berria, El Correo, Deia, Diario Vasco, El Mundo, Gara eta Bilboko Merkataritza Ganberaren Información egunkaria); prentsa digitalarekin (Eusko News, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren aldizkari ofiziala); aldizkariarekin (Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea, Nafarroako Emakumearen Institutua, Igual a Igual, Habe, Frida, Europa-Euskadi aldizkaria); irratiarekin (Radio Euskadi, Radio San Sebastián-Cadena Ser, Ser Vitoria, Onda Vasca, Onda Cero, Radio Nacional, Euskadi Irratia, Xorroxin Irratia, Herri Irratia, Bizkaia Irratia); eta telebistarekin (ETB). Gainera, Radio Euskadiko "Boulevard" programan hilabetero parte hartzen du. Bertan, Defentsa erakundearekin zerikusia dutenen zenbait gai aztertu dira: egoitzaren inaugurazioa, sexu-bereizkeriagatiko eskaeren kasuistika, 3/2007 Lege Organikoaren eragina sektore pribatuan, eta abar.

Era berean, abenduan defendatzaileak, Ezker Abertzaleak taldeak hala eskaturata, Emakumea eta Gazteriaren Legebiltzar Batzordearen aurrean ordura arte egindako jardueren balorazioaren eta etorkizuneko plangintzen berri eman zuen (2006ko abenduak 13).

Defendatzaileak *Eskubideetatik ekintzetara: jokabide egokiak berdintasunaren alorrean* Nazioarteko VII. Jardunaldien *Ondorioak* aurkeztu zituen. Jardunaldi horiek Eusko Legebiltzarreko Lehendakariak Bilbon antolatu zituen, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiekin batera (2006ko urriak 2-4). Halaber, Galdakaoko Udalak antolatutako Berdintasunaren aldeko III. Udal Jardunaldietan parte hartu zuen *Emakumeen lidergo eta partaidetza organo erabakitzaileetan (Liderazgo y participación de las mujeres en los órganos de decisión)* hitzaldiarekin (2006ko azaroak 8); bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubide, Enplegu eta Laneratze Sailak antolatutako *Genero Indarkeriaz sentikortzeko* III. Jardunaldietan aurkeztutako *Emakumeen bereizkeria-egoera XXI. mendean (Situación de discriminación de las mujeres en el siglo XXI)* hitzaldiarekin ere (Donostia, 2007ko martxoak 8).

Beste alde batetik, eta egoitza ofizialki inauguratu zenean (2007ko otsailak 21) Lehendakaria, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzailea buru izan zituen jendaurreko ekitaldia antolatu zen. Ehun bat pertsonak parte hartu zuten ekitaldi honetan, horien artean Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren, Gobernuaren Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariaren, Arartekoaren, Legebiltzarreko kideen eta erakundeen, enpresen, sindikatuen, politikaren, elkarteen eta hedabideen eremuko ordezkarien laguntza azpimarratzekoa da.

5.000 aurkezpen-liburuxka argitaratu dira; horietatik 4.000 honako hauei banatu egin zaie, aurkezpen-gutun eta guzti: sektore publikoaren gizarte-eragileei (Legebiltzarreko kideak, Euskal Autonomia Erkidegoko alkateak eta berdintasun-sailak, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza Kontseilua, Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak, Ararteko erakundeak, Espainiako eta beste autonomia-erkidegoetako emakumearen institutuak, fiskaltzak, epaitegiak, eta abar); eta sektore pribatuan (sindikatuak, elkarteak eta lanbide-elkargoak - berdintasunerako agenteen lanbide elkargoak barne- enpresa-elkarteak,

emakumeen elkarteak, aholkularitzak, berdintasunaren esparruan laguntzen duten eta erakunde diren enpresak, eta abar).

Azkenik, azpimarratzekoa da *Europako Genero Berdintasunerako Defentsa Erakundeari buruzko nazioarteko mintegia* dela-eta maiatzean egindako zabaltze-lana. Mintegi hori Euskal Herriko Unibertsitateko Uda Ikastaroekin lankidetzan antolatu zen, eta aipatutako Unibertsitateko Berdintasunerako Zuzendaritzaren zuzendarikide izan zen. Mintegia 2007ko irailean egingo da Donostian, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak egindako zabaltze-lana indartuko du.

## 2.5 Koordinazio- eta lankidetzeta-mekanismoak

4/2005 Legearen 64.2. artikulua h) atalari jarraiki, Defentsa Erakundearen eskumena da, beste funtzio batzuen artean, *"Arartekoarekin eta Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearekin koordinatzeko mekanismoak proposatzea, bai eta giza eskubideen arloan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eskumena duten beste organo eta erakunde batzuekin koordinatzekoak ere"*.

119/2006 Dekretuaren 22. artikulua beste erakundeekiko harremanari dagokionez hau dio: *"Defentsa Erakundeak komenigarritzat jotzen dituen hitzarmen edo akordioak sinatu ahal izango ditu antzeko erakundeekin edo tokiko, erkidegoko, estatuko edo estatuaz gaindiko beste erakundeekin, baldin eta giza eskubideen eta emakume eta gizonen berdintasunaren defentsan lan egiten badute"*.

Lehenengo urte honetan, erakunde publikoekin zein pribatuekin harremanak egin dira Defentsa Erakundearen berri emateko eta, zehatzago, harremanak garatzeko eta lankidetzeta-mekanismoak ezartzeko.

**Ararteko erakundeari** dagokionez, bilerak egin dira ia 20 urteko esperientzia duen erakunde honen izapidetze prozesua dela-eta informazio-teknikoa eskatzeko, bai eta erakundeen kezkak diren gaien inguruan lankidetzeta-mekanismoak ezartzeko ere.

Lankidetzeta hori zentzuzkoa da eta elkarre biek egiten duten lanaren osagarria: herritarrak defendatzea sexuagatiko ustezko bereizkeria-egoeren aurrean, Ararteko erakundeak sektore publikoan eta Defentsa Erakundeak sektore pribatuan.

Harreman horien ondorioz, elkarre biek lankidetzeta-hitzarmena zehazteko prozesuan daude. Izan ere, erakunde hauek arautzen dituen legezko arauari jarraiki, koordinazioaren eta lankidetzaren printzipioak erakundeen arteko harremanak sendotzeko oinarriak dira, eta garrantzitsua da koordinaziorako zein lankidetzarako mekanismoak protokolizatzea. Hitzarmenaren helburua erakunde bien arteko koordinazioa arautzea da kontsultei, kexei edota salaketei dagokienez, bai eta bere eskumeneko arloetan (publikoan nahiz pribatuan) izaten diren sexuagatiko ustezko bereizkeriaren inguruko informazio-kanalak ezartzea ere; kexa edo salaketa beraren aurrean elkarren arteko jarduketak hitzartzea eta elkarren arteko jarduketak garatzea interes eta ardura bera duten gaien inguruan.

Era berean, koordinazio- eta lankidetzeta-bideak bilatze aldera, **Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearekin** bilerak egin dira. Defentsa Erakundea erakunde autonomo honi atxikita dagoenez, elkarren arteko harremanak ezaugarri bereziak ditu, eta Defentsa Erakundearen aurrekontu-zuzkidura eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin elkarrizketa bidez egiten dira.

Horregatik, lan-bilerak izan dira ekonomiako, langileei buruzko eta bi erakundeen kezka diren gaien kudeaketari buruzko gaiak jorratzeko. Era berean honako kasu hauetarako koordinazio mekanismoa ezarri da: sektore pribatuan ustezko sexuagatiko bereizkeria-egoerak direla-eta egindako kontsultak, kexak edota salaketak bideratzeko; Defentsa Erakundearen jardura oztopa dezaketen eta zehapen-espeditenteak ondorio izan ditzaketen egoeren berri emateko; sektore pribatuan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadila sustatzeko elkarren arteko jarduerak garatzeko; eta biei dagozkien gaien inguruan elkarren arteko informazio-prozedurak ezartzeko.

**Euskal Herriko Unibertsitatearekin** ezarritako harremanaren helburuak hauek dira: gai horietan adituak diren irakasleek azterlan zehatzak kontratatzea; Udako Ikastaroetan eta EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzarekin elkarlanean, nazioarteko mintegia antolatzea; erakunde bien arteko lankidetzak-hitzarmena sinatzea (burutzapen-prozesuan) gizartean eta, bereziki, sektore pribatuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ezagutza eta sexuagatiko bereizkeriarik eza garatzeko. Lankidetzak-esparru honekin, abiatzen dauden lankidetzak-harremanak sendotu eta bideratu nahi dira; batez ere, esparru horretan proiektuak eta ikerketa-programak burutzeko, kooperazioa izateko prestakuntza-programetan eta Defentsa Erakundearen egoitzan berdintasunaren inguruko espezializazio-ikasketak egin eta gainditu ondoren, ikasleek praktikak egiteko aukera izateko.

Lankidetzak-mekanismoak ezartzeko ildoari jarraiki, Defendatzaileak Norvegiako Bereizkeriaren Aurkako eta Berdintasunerako Defentsa Erakundea bisitatu zuen 2006ko azaroan.

1959ean Norvegiak gizarte-arlo guztietan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako neurriak sustatzeari ekin zion, balio bereko lan berdinegatik diru-kopuru berdina jasotzeko. Ondorioz, 1979ean Genero Berdintasunerako lehenengo Ombud sortu zen.

Sexuen arteko Berdintasunari buruzko Legea onartzearekin batera (45/1978, ekainaren 9koa, ekainaren 10eko 38/2005 Legeak aldatutakoa), Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortu zen. Halaber, horren jardueraren eremua sektore pribatuari zein publikoari dagokio. Aipatutako Berdintasunerako Defentsa Erakundea, Genero Berdintasunerako Apelazioko Epaitegiarekin batera, Berdintasunerako Zentroaren baitakoa da. Arrazan, jatorrian, azalaren kolorean, hizkuntzan edo erlijioan oinarritutako bereizkeria-mota oro debekatzen duen Legeak aldatu egin ditu bi egitura horiek. Legea Legebiltzarrak 2005ean onartu zuen eta 2006ko ekainean ezarri zen. Ondorioz, egungo Norvegiako erakunde publikoa eta autonomoa den

Bereizkeriaren Aurkako eta Genero Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortu zen 2006ko ekainean. Era berean, Berdintasunaren eta Umeen Ministroak Beate Gangäs izendatu zuen titular 4 urteko eperako; haren lana dago gobernuaren joeren menpe, independentea da. Egun Defentsa Erakundearen egoitza Oslon kokatzen da eta 35 pertsonak osatzen dute. Defentsa Erakundearen eskumenak sexuen arteko Berdintasunaren Legea ez betetzeagatik jarritako kexen ondorioz hasitako ikerketako dira eta helburua dagozkion gomendioak egitea da. Halaber, Apelazioko Epaitegiaren aurrean helegitea aurkez daiteke gomendio horiek direla-eta, erabakia derrigorrez bete beharko da.

Defentsa Erakundea horretan batez beste 400 kexa aurkezten dira urtean. 2006ko azaroan generoagatiko bereizkeria dela-eta 229 espediente bukatu ziren, urte horretan izapidetutakoak.

Era berean, Defentsa Erakundeak berdintasunari eta bereizkeriarik ezari buruzko informazioa nahi duten enpresariei, agintariei, erakundeei eta pertsoneri informazioa, orientazioa, aholkularitza, laguntza eta legezko eskubideen eta betebeharren inguruko materialak ematen dizkie, bai eta bereizkeria-kasu jakin bakoitzerako litezkeen irtenbideen inguruko informazioa ere. Horretarako honako estrategia hauek garatu ditu:

- Aukera- eta tratu-berdintasuna oztopatzen dituzten faktoreak identifikatzea eta argitaratzea. Horretarako, Genero Berdintasunari buruzko Barometroa garatu du; horrek 5 esparru hauei buruzko datuak eskaintzen ditu: Estatuari eta Gobernuari buruzkoak (horietan lortu da berdintasun indizerik altuena: gobernuan %47 emakumeak dira, Parlamentuan %38, tokiko politikan %36, eta alkatetzetan %17); Komunitate eta Sektore pribatuari buruzkoak (generoen arteko aldea nabariagoa da eta erronka gehienak sortzen dira), Ikerketa eta Hezkuntza eta Lan Merkatuari buruzkoak.
- Sentsibilizatzea, horretaz jabetzeko, bai eta jarrera eta jokabideen eraginerako ere.

- Informatzea, laguntzea eta orientatzea, aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzeko eta bereizkeriari aurre egiteko.
- Sektore publikoaren zein pribatuaren enpresaburuei lanaren inguruko gai anitzei buruzko orientazioa eta laguntza ematea.
- Herritarrei bereizkeria-moduen berri eta gai horren inguruan adituak direnen informazioa ematea.
- Eztabaida-lekua eta informazio-zentroa, gizarte-eragileen arteko lankidetzak sustatzeko.

Defentsa Erakunde honek FOCUS, "*Fostering Caring Masculinities*" izeneko proiektu europar transnazionala gidatu du. Aipatutako proiektuaren helburua gizonek bizitza pertsonala eta lanbideko eta familiako bizitza batera ditzaten aukerak aztertzea eta hobetzea da, zainketa-lanak hartzearen aurrean jarrera ona izan ditzaten. Europar Batasunaren babesarekin duen proiektu honetan bost herrialdek parte hartzen dute: Alemaniak, Islandiak (Genero Berdintasunerako Zentroa), Norvegiak (Berdintasunerako eta Bereizkeriaren aurkako Defentsa Erakundea), Esloveniak (Bakearen aldeko Erakundea) eta Espainiak (Gironako Unibertsitatea).

Halaber, 2006ko azaroan, defendatzaileak Suediako **Genero Berdintasunerako Defentsa Erakundea** bisitatu zuen (Stockholm), 1980. urtean sortua da, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako Legea indarrean sartu zenean (433/1991 Sexuen arteko Berdintasunerako Legeak aldatu zuen). Era berean, horien eskumena da haurren eta haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleen aurkako bereizkeria eta beste tratu txarrak debekatzeko Legea (67/2006 Legea, otsailaren 16koa), goi-hezkuntzako erakundeen ikasleen tratu-berdintasunerako Legea (1286/2001 Legea) eta bereizkeria debekatzeko Legea (307/2003 Legea) betetzea.

Defentsa Erakunde hori gobernuaren menpe dago eta Herriaren Defentsarako Erakundearen sistemaren parte da, etniagatiko, erlijioagatiko edo kulturagatiko bereizkeriaren aurkako Defentsa Erakundearekin, homosexualitatea, bisexualitatea

edo heterosexualitatea direla-eta bereizkeriaren aurkako Defentsa Erakundearekin eta ezintasunagatiko bereizkeriaren aurkako Defentsa Erakundearekin batera. Aukera-berdintasunerako Estatuko politikaren erakunde garatu baten barruan dago eta Aukera Berdintasunerako Ministerioa eta berdintasunaren inguruko gaietarako Estatuko Idazkaritza du. 30 langile ditu eta Gobernuak izendatutako Claes Borgström da zuzendaria. Hona hemen funtzioetako batzuk:

- Langileek nahiz zentroek hezkuntza-sistema eta sexuen arteko berdintasuna sustatzeko era aktiboan legezko xedapenak betetzen dituztela ikuskatzea.
- Sexuagatiko eta jazarpengatiko bereizkeriaren ondorioz egindako salaketak ikertzea.
- Lantokian nahiz hezkuntza-sisteman sexuen arteko berdintasunari buruzko informazioa, aholkuak eta laguntza ematea eta berdintasuna sustatzea.
- Parlamentuaren eta Gobernuaren txosten eta legezko proposamen gehienak kontuan hartzea eta horien inguruan oharrak egitea.
- Ezin du lanaren eta hezkuntzako erakundeen alorrekoak ez diren beste sektore batzuetan legezko ekintzarik burutu.

Lan-merkatuari dagokionez, eragin-eremua gutxi gorabehera 4.200.000 pertsonakoa eta 426.000 enpresakoa da; horietako 35.000 enpresek (10 langile edo gehiago dituzte) ekintza positiboan inguruko neurriak hartu behar dituzte.

2005ean, Defentsa Erakunde honek 171 kexa jaso zituen (135 emakumeek egindakoak) lan-merkatuaren inguruko bereizkeria dela-eta. soldatak (65); kontratazioa (55); kaleratzea (27); jazarpena (19); eta lanaren antolaketa (5). Beste 56 kexa ondasunengatiko eta zerbitzuengatiko Bereizkeria Debekatzeko Legearen babesean aurkeztu ziren; horietatik 36 ez ziren onartu.

Ondoren, 2006ko abenduan, defendatzaileak Finlandiako (Helsinki) **Berdintasunerako Defentsa Erakundea** bisitatu zuen.



Finlandiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea 1986. urtekoa da (609/1986 Legea, Emakumeen eta Gizonean arteko Berdintasunari buruzkoa eta 232/2005 Legeak aldatutakoa). Hauexek dira helburu nagusiak: generoan oinarritutako bereizkeria ekiditea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea; horretarako, emakumeen estatusa hobetu behar da, lan-bizitzan, bereziki. Berdintasunerako Batzordearen eta Berdintasunerako Defentsa Erakundeak, 1987ko Dekretuaren bidez araututakoak, bete beharko dute lege hori.

Päivi Romanov zuzendari duen Berdintasunerako Defentsa Erakunde honen funtzioen artean honako hauek ditugu (609/1986 Legea): Legearen helburuak betetzen direla zaintzea da, bereziki, bereizkeriaren debekuari eta bereizkeriazko publizitateari dagokienez; ekimenen, gomendioen eta aholkuen bidez Legearen helburuetan ezarritakoa sustatzea; berdintasunari buruzko legeriaren eta haren aplikazioaren berri ematea; eta gizarte-bizitzaren alorretan emakumeen eta gizonen berdintasuna ezartzeko jarraipena egitea.

Defentsa Erakunde honek (1998az geroztik) Genero Berdintasunari buruzko Barometroa argitaratzen du urtero (1998-2001 urteetako Barometroari dagozkion argitalpenak Finlandiako Berdintasunerako eta Estatistiketarako Kontseiluarekin batera egin zituen). Aipatutako Barometroan, Finlandiako emakumeen eta gizonen esperientzien eta jarrerren inguruko datuak azaltzen dira, sexuen arteko berdintasunari dagokienez.

Ondoko hauek dira Finlandian berdintasun-politikak jorratzen dituzten gai nagusiak: familiako eta lanbideko bizitzen bateratzea, emakumeen eta gizonen arteko soldata-aldeak, emakumeek enpresan eta ekonomian duten estatusa, eta emakumeek jasandako indarkeria eta jazarpena.

Bukatzeko, datuen arabera, Finlandian genero berdintasuna oso nabarmena da foro politikoan eta erabakiak hartzeko postuetan: Gobernuko presidentea (2000),

Unibertsitateko errektorea (Turkuko Unibertsitatea 2000), lehen ministroa (2003), Auzitegi Goreneko lehendakaria (2006) eta ministroen erdiak emakumeak dira.

Egindako gainerako jardueri dagokienez, **Europako Genero Berdintasunerako Defentsa Erakunde**ari buruzko nazioarteko mintegia antolatu da. Aipatutako mintegia irailaren 5ean, 6an, eta 7an egingo dira Donostiako Miramar jauregian. Halaber, Defentsa Erakunde honek ezarritako erakundeen eta oinarrizko pertsonen arteko lankidetzaren ondorio da. Euskal Herriko Unibertsitateko Berdintasunerako Zuzendaritza zuzendarikide izan da eta mintegia unibertsitate publiko honen Uda Ikastaroen zuzendaritzarekin lankidetzan antolatu da.

Lankidetzaren harremanak zabaltzea eta garatzea dira nazioarteko mintegi hori antolatzerakoan izandako helburuak, eta zehatzago: 25 urte baino gehiagoko esperientzia duten herrialdeetako genero berdintasunerako Defentsa Erakundeek ekarritako onurak partekatzea; sektore pribatuan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan gauzatu beharreko erronkak eta jarduerak zehaztea; sektore pribatuan sexuagatik bereizkeriari aurre egiteko diharduten erakundeen arteko lanbide arteko lan-sareak garatzea; profesionalen, sektore pribatuaren erakundeen eta unibertsitateen arteko lan-sareak garatzea emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea ezagutaraztea; eta Euskal Herriko Unibertsitateko Berdintasunerako Zuzendaritzaren berri ematea.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektore Juan Ignacio Pérez Iglesias eta Emakunde/Emakumearen Euskal Erakunde zuzendari Izaskun Moyua Pinillos gonbidatuta daude mintegiaren inaugurazio ekitaldira. Ondoko hauek parte hartuko dutela baieztatu dute: Finlandiako Berdintasunerako defendatzaile Päivi Romanov-ek *Sektore pribatuko berdintasunerako Defentsa Erakundearen eragina (Impacto de la Defensoría para la Igualdad en el sector privado)* gaia azalduko du; Suediako Genero Berdintasunerako defendatzaile Claes Borgström-ek *Aukera- eta tratu-berdintasunerako Suediako Legea (Legislación en materia de igualdad de*

*oportunidades y de trato en Suecia*) gaia jorratuko du, eta Norvegiako Berdintasunerako eta Bereizkeriaren Aurkako Defentsa Erakundearen zuzendariondoko Mona Larsen-Asp-ek egingo duen aurkezpena *Berdintasunerako neurrien eta tresnen genero-eragina Norvegian: analisi konparatiboa (Impacto de género de medidas e instrumentos para la igualdad en Noruega: análisis comparativos)* gaiari buruzkoa izango da. Defentsa Erakunde horiek parte hartzearekin batera, mintegiak nazioarteko topaketaren izaera hartzen du. Izan ere, gure Defentsa Erakundeak Europako Genero Berdintasunerako Defentsa Erakundeekin dituen harremanak areagotuko ditu, eta etorkizunean Islandiak eta Danimarkak dituzten antzeko baliabideak izango ditu.

Era berean, autonomia-erkidegoetatik datozen irakasleek euren hausnarketak eta ikerketa-lanak aditzera emango dituzte, sektore pribatuan genero berdintasunerako garatu beharreko erronkei eta neurriei dagokienez. Bereziki, Euskal Herriko Unibertsitateko M<sup>a</sup> Ángeles Barrère-k *Sexuagatiko bereizkeriaren aurkako legeria eta jurisprudenzia (Legislación y jurisprudencia antidiscriminatoria por razón de sexo)* gaiari buruzko aurkezpena egingo du; Euskal Herriko Unibertsitateko Aitor Bengoetxeak txostena aurkeztuko du *Hitzarmen kolektiboak, genero-berdintasunerako tresna (Convenios colectivos como instrumento para la igualdad de género)* gaiari buruz; Gironako Unibertsitateko Paco Abril Morales-ek *Gizonezkoentzat generoko eta lana eta familia uztartzeko politikak dituzten enpresa publikoak eta pribatuak: ekintzen eta jardute onen gida (Empresas públicas y privadas con políticas de género y conciliación para hombres: guía de acciones y buenas prácticas)* gaiaren ingurukoak jorratuko ditu; Cadizeko Unibertsitateko Teresa Pérez del Ríok *Sektore pribatuan genero-berdintasuna lortzeko erronkak: lan-harremanak (Retos para la igualdad de género en el sector privado: las relaciones de trabajo)* aurkeztuko du; Feministen Politikako Forumeko kide Begoña San Josék *Sektore pribatuan genero-berdintasuna lortzeko erronkak: politika eta gizarte-jarduera (Retos para la igualdad de género en el sector privado: la actividad política y social)* gaiari buruz hitz egingo du; eta Granadako Unibertsitateko Ana Rubio Castrok *Mintegiko ondorioak* aurkeztuko ditu. Bestalde, Euskal Herriko

Unibertsitateko Berdintasunerako zuzendari Mertxe Larrañagak eta Emakumearen Andaluziako Erakundeko zuzendari Soledad Ruiz Seguínnek mintegiko lehen eta azken lanaldiei dagozkien edukiak aurkeztuko dituzte.

**Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publikoekin** bilerak egin dira, hala nola: Eusko Jauriaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin; Datuak Babesteko Euskal Agentziarekin; Lan Harremanen Kontseiluarekin; Gazteriaren Euskal Batzordearekin; eta HEGOA-Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Euskal Institutuarekin. Bai eta **Espainiako eta Europako beste erakunde publiko batzuekin** ere: Estatuko Berdintasun Politiketarako Idazkaritzarekin, titular Soledad Murillo nazioarteko mintegian parte har dezan gonbidapena egiteko; Emakumearen Andaluziako Erakundeko zuzendari Soledad Ruiz Seguínekin; Gobernuaren Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari eta egoitza ofizialki inauguratu zenean egon zen eta Defentsa Erakundea sortzeko erakundearen laguntza erakutsi zuen Paulino Luesmarekin. Halaber, Europako Erkidegoen Berdintasunerako Batzarrarekin harremanak izan dira titularra izendatu eta horri atxikitako langileak dituen unean Europako Genero Berdintasunerako Erakundearekin harremanetan hasteko. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 20ko 1922/2006 Araudiak aipatutako erakundea sortu zuen.

Jarduera ildo horri jarraiki, **sektore pribatuko erakunde batzuekin** harremanak edo kontaktuak jadanik hasi dira. Izan ere, biltzeko gune bat eratu da elkarren arteko aurkezpenerako eta erakunde sindikalen (LAB, SATSE-Erizainen Sindikatua eta STEE-EILAS); Aurrezki Kutxen (BBK, Kutxa eta Euskadiko Kutxa); Arabako Emakume Enpresari eta Profesionalen Elkartearen (AMPEA), Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartearen (AED) eta Gipuzkoako Emakume Profesional eta Entrepresari Elkartearen (ASPEGI); Baketik Fundazioaren; eta Bidasoaren Aldeko Emakumeak elkartearen arduradunekin; bai eta Centro de la Mujer Peruana "Flora Tristán" Peruko emakumeraren zentruko eta

El Salvadorreko Las Mélicas “Mélida Anaya Montes” emakumeen mugimenduaren ordezkariekin ere lankidetzara harremanak ezarri dira.

## 2.5 Azterlanak

2006an hiru azterlan espezializatu burutzeko kontratazioa egin da, Defentsa Erakundeak jorratu beharreko gai nagusien sarrera gisa, bereziki:

- “Emakumeak sektore pribatuko enpresen kudeaketako eta zuzendaritzako lanpostuetan sartzearen onurak: bibliografiaren berrikuspen bat” (“Beneficios de la incorporación de las mujeres en los puestos de gestión y dirección de empresas del sector privado: una revisión bibliográfica”).
- “Bereizkeriaren mugaketa kontzeptuala eta diskriminazioaren kontrako legeen eta jurisprudenziaren bilduma” (“Delimitación conceptual de la discriminación y recopilación de la legislación y jurisprudencia antidiscriminatoria”).
- “Euskal Autonomia Erkidegoko hitzarmen kolektibo sektorialak genero-ikuspuntutik, sexu-arrazoiengatik ez diskriminatzeko arauen baitan” (“Convenios colectivos sectoriales de ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi desde la perspectiva de género, en el marco de la normativa sobre no discriminación por razón de sexo”).

**Emakumeak sektore pribatuko enpresen kudeaketako eta zuzendaritzako lanpostuetan sartzearen onurak: bibliografiaren berrikuspen bat** azterlana Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultateko eta Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako ikerketa-talde batek egin du.


### *Sarrera*

1990eko hamarkadaren erdialdeaz geroztik, lehia globalean izandako aldaketek, informazio- eta komunikazio-teknologiaren zabalkuntzak eta lan-indarraren

aniztasunak enpresen alorra nabarmenki eraldatu dute. Egoera berri honi aurre egiteko, enpresak eskakizun berrietara moldatu behar dira –bai eta horiek aurreratu ere- eta erronka nagusien artean, mehatxu berriak hobeto identifikatze aldera zuzendaritza-talde anitzagoa izan beharko dute, bai eta erakundeari gaitasun eta ezagutza handiagoa eskaini arazoak hobeto konpontzeko. Testuinguru honetan, literatura espezializatuak “korporazioko gobernu onaren” garrantzia azpimarratzen du eta horren barruan, aniztasun handiagoari loturiko abantailak nabarmentzen dira, bereziki, genero aniztasun handiagoari loturikoak.

Munduan egin diren egungo estatistiken arabera, nahiz eta kudeaketa-postuetan dauden emakumeen kopurua areagotu, barneratze-tasa motela eta irregularra da. Izan ere, burtsan kotizatzen duten enpresa handien administrazio-kontseiluetan emakume gutxi daude eta enpresa asko daude organo erabakitzaile gorenetan emakumerik ez dutenak. Europako herrialde batzuen egoera irudizatze aldera, 1. grafikoan enpresa handien administrazio-kontseiluetako lanpostuetan dagoen emakumeen ehunekoa ageri da.

### Europako herrialde batzuetan administrazio-kontseiluetako emakumeen ehunekoa



Iturria: European Professional Women's Network, 2004 eta 2006.

Espainia "herrialde atzeratuenen" taldean dago. Izan ere, aukeratutako enpresen laginak adierazten du kontseiluetako emakumeen batez bestekoa %8,3koa dela (2006an), Espainian, ordea, %4,3koa da.

Illo beretik, zenbait azterlanek berresten dute Espainiako enpresetako organo erabakitzaile nagusietan emakumeen kopurua eskasa dela. Horiek horrela, Finantza Azterlanen Fundazioak egin berri duen lanaren arabera (burtsan kotizatzen duten 119 enpresek osatutako lagina), kontseiluetan dauden 1.311 jarlekuetatik emakumeek 53 (%4,04) soilik betetzen dituzte. Enpresen lagina handitze aldera ezinbestez aipatu beharreko beste txosten bat 2006ean Aurrezki Kutxen Fundazioak argitaratutako txostena da. Txosten horretan, egoera aztertzeko 1.085 enpresez osatutako lagina (6.003 zuzendaritza-kargu) erabili da eta datuek kontseiluetako kideen %6,61 emakumeak direla adierazten dute. Azpimarratzekoa da ere, aipatutako enpresen %76,5ek emakumerik ez duela beren kontseiluetan.

Era berean, Biztanleria Aktiboaren Inkestak (2005) emandako datuek adierazten dutenez, zuzendaritza-lanetan dagoen emakumeen zenbatekoa %32,4koa da. Aitzitik, enpresaren tamaina funtsezko aldagaia da zuzendaritza-postuetako emakume kopurua aztertzeko: zuzendaritzen ia erdiak (%46,5) enpresa propioei dagokie eta emakumeak dira langile bakarrak.

Azterlan gehienen helburua sektore pribatuko enpresak nola gaitasunaz baliatzen ari ez diren atzematea da eta azpimarratzen dute zuzendaritza-postuetan emakumeak egotearen alde egitea "negozio ona" eta "korporazioko gobernu ona" dela. Izan ere, dituzten baliabideak modu egokian erabili nahi dituzten eta beren jarduera-sektorearen barruan abantaila lehiakorra nahi duten enpresek hartu beharreko estrategia nagusietako bat da.

## *Helburua*

Lan honen helburu nagusia, enpresen kudeaketaren eta gobernuaren alorrean emakumeak egoteak dakarren ezberdintasunari buruz argitaratu den bibliografiarik garrantzitsuena biltzea, sistematizatzea eta laburtzea da.

Hori dela eta ondoko lau alor hauek aztertu dira: gidaritza-era, komunikazioa, erabakiak hartzea eta taldeko lana. Horiek aukeratzeko aldeztu aurretik kontsultatutako literatura hartu da kontuan. Izan ere, antza denez, horietan emakumeen ekarpen bereizia garrantzitsua eta positiboa dela argiago azaltzen da.

Era berean, emakumeek zuzendaritza-taldeein egindako ekarpenenak enpresako emaitza ekonomiko-finantzietan, bai eta gogobetetze-maila handiagotan eta langileak gutxiago txandakatzean ere islatzen diren moduz aritzen den bibliografia berrikusi da.

## *Metodologia*

Berrikuspen bibliografikoa 10 urtekoa da (1996-2006). Hala ere, argitaratutako eta aztertutako bibliografia batez ere, azkeneko 5 urtekoa da. XXI. mendearan lehendabiziko urteetan, legegintzaren alorrean izandako aurrerapenen eta geroz eta emakume gehiago kudeaketa-postuetan egotearen ondorioz, gai horiek interesa sortzen hasi dira eta garrantzi handiagoa dute. Ildo berean, beharrezkoa da 90. hamarkadako lehendabiziko urteetara jotzea ondoren garatu diren lan askoren abiapuntu izan diren lan aitzindariak aurkitzeko.

Txosten honekin batera materialen aukeraketa bat dago (188 erreferentzia bibliografiko). Horiek ikuspegi teoriko edota enpiriko batetik, emakumeak kudeaketa-eta gidaritza-postuetan egoteari loturiko onurak aztertzen dituzte. Era berean, gidaritza modu zabalean uler daiteke (zuzendaritza-kontseiluaren kide izatetik, zuzendaritza exekutiboko kide izatera edo lan-taldeak gidatzera). Halaber,



lehentasunez aintzat hartu dira errealitate sozio-ekonomikori hurbilenari dagozkion materialak (Estatu Batuak edo Kanada herrialde garatuak, Europar Batasuneko herrialdeak eta Australia).

Ikusitako informazio iturrien artean azpimarratzekoak dira aldizkari zientifiko espezializatueta argitaratutako artikulua, erakunde publikoek egindako txosten berrienak eta aholkularitza-enpresa espezializatuak egindako dokumentuak. Azalpen argiagoa lortzea eta ikertu beharreko gaiarekin loturiko ekarpen teoriko eta enpiriko nagusiak laburtzea izan dira lan hau bideratu dutenak. Ekarpen nagusienak honela egituratuta daude:

- Emakumeak zuzendaritza eta gidaritza postuetan egoteari buruzko datu kuantitatiboak.
- Hainbat jakintza-arloetan egindako eta berrikusitako materialetan aipatutako ekarpen teorikoak.
- Genero aniztasuna enpresaren funtzionamenduan eta emaitzetan duen eraginaren arabera sailkatutako ekarpen enpirikoen laburpena. Ondoko hauek dira dituzten aldagaiak: negozio-aukerak ustiatzea eta identifikatzea; enpresak duen talentuak erakartzea, hartzea, motibatzea eta enplegatzea; gidaritza-erak; eta enpresaren emaitza ekonomiko-finantzieroak.

### *Emaitzak*

Enpresetan emakumeak kudeaketa- eta zuzendaritza-postuetan egoteari buruzko lan berrienen berrikuspen bibliografikoan aurkitutako emaitza nagusiak honako hauek dira:

- 1) Azken hamarkadetan emakumeek aurrerapenak lortu dituzten arren, oraindik oso emakume gutxi daude sektore pribatuko enpresen kudeaketa- eta zuzendaritza-postu gorenetan.

Izan ere, zenbat eta hierarkia mailakatuagoa izan, emakume gutxiago egongo da aipatutako lanpostuetan. Zentzu horretan, ustiapen-sarrerei dagokienez Espainiako enpresarik garrantzitsuenen lagin handia lortzeko (n=1.085) datu berriek adierazitakoaren arabera, administrazio-kontseiluaren zuzeneko kide kopuruaren %6,61 soilik emakumeak dira eta enpresa horien %23,5ek baino ez dute beren kontseiluetan emakumeren bat.

- 2) Emakumeen prestakuntzarik eta anbiziorik eza dira kudeaketa- eta gidaritza-postuetan emakumerik ez egotea azaltzen edo arrazoitzen duten zilegitasunik gabeko bi faktore. Aitzitik, emakumeak zuzendaritza-postuetan egoteko gaitasunei eta gogoei buruzko estereotipoak, bai eta enpresa-kultura ere emakumea igotzeko oztopo nagusienak dira.
- 3) Masa kritiko nahikoa lortzeko beharra, lorpenak eta ekarpen bereziak eraginkorrak izan eta genero aniztasunaren ondorio diren onurak ongi aprobetxatu daitezten. Onartu berri den Berdintasunerako Legea ildo horretatik doa.
- 4) Arrazoiaren artean azpimarragarria da enpresek emakumeak bereizteko erabiltzen duten kostu handiei dagokiona. Izan ere, iritzi estereotipatuena eta oinordetzan hartutako inertiaren eta emakumeak zuzenean edo zeharka kudeaketa- eta gidaritza-postuetatik aldentzearen ondorioz, enpresek ez diete dituzten giza-baliabideei behar beste etekinik ateratzen.

Negozioen egungo alorrean, enpresaren gobernu ona da nagusi eta akziodunen eta enpresarekin loturiko interes-taldearen interesak defendatzen dira. Era berean, genero aniztasunaren aldeko apustua enpresa eraldatzearen oinarrietako bat da. Enpresan erabakiak hartzen dituzten organo gorenak aipatutako apustuaren aitzindariak izan behar dira eta argi zehaztutako helburu estrategiko gisa finkatuko da.

- 5) Enpresa eraldatzeko behararen ildotik jarraituz, nabarmentzekoa da berrikusitako literaturan adierazten den arabera, emakumeen gidaritza-erak parte hartzeak direla eta eraldatzaileak, tradizioz gizonei loturikoak baino gehiago. Beraz, estilo horiek egungo inguru sozio-ekonomikoak enpresetan ezartzen dituen erronkei aurre egiteko egokiagoak dira.

- 6) Gero eta sendoagoa da genero aniztasunaren eta finantza inguruan enpresak dituzten emaitza hobeen arteko harremana. Izan ere, azterlan-estatistiko hauetako askok bi aldagaien arteko harremana positiboa dela adierazten dute. Kausalitate-harremana ezartzeko zaila bada ere, lortutako emaitzen arabera esan daiteke enpresek genero aniztasunarekin duten konpromisoa arrakastarako osagaietako bat dela.

Aztertutako bibliografia gehienak nabarmentzen duenaren arabera, ahalegin handiak egin behar dira, metodologikoak zein enpirikoak, genero aniztasunaren ondorioz enpresak emaitza hobek izan ditzan mekanismo zehatzak atzemateko eta ezartzeko. Zentzu horretan, erronkarik nagusia azterketa-eremua enpresa txikietara eta ertaintetara zabaltzea da.

Azkenik, aipatzekoa da aztergai den gaiaren konplexutasuna. Lan-merkatuaren beraren dinamikak, lanaren esparruan emakumeekin loturiko estereotipoak, erreferentziazko eremu geografiko bakoitzeko gizarte-ingurunea, eta ingurune ekonomiko eta kulturala eta herrialde bakoitzeko enpresen ezaugarri espezifikoak ere kontuan hartu beharreko aldagaiak dira etorkizunean hemen aurkeztutako lanaren ildo jarraitzen duten lanak egiteko.

Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko zenbait irakaslek egin dute **Sexu eta generoagatiko bereizkeriaren mugaketa kontzeptuala eta bereizkeriaren kontrako legeen eta jurisprudentziaren bilduma** gaiari buruzko lana.

### *Helburua*

Legezko eta jurisprudentziazko izaera duen azterlana egiteko aurreneko urratsa aztertu beharreko material juridikoa identifikatzean datza. Izan ere, honako hau da lanaren oinarritzko helburua: ondoren azter daitekeen materiala biltzea.

Alabaina, araudia aldatzeko proposamenak egiteko gerorako azterlana burutzeko oinarri bezala balio izateaz gain, bereizkeriaren aurkako legeria eta jurisprudentzia biltzeari erabilera zuzenagoa edo berehalakoagoa eman nahi izan zaio. Horren adibide kontsultarako *corpus* juridikoa osatzea da.

Aipatutako bi helburuek ez dute zertan azalpen-irizpide bera jarraitu behar. Hortaz, oso esanguratsua da bilketarako eta egituraketarako jarraitutako metodologiari dagokion atala, egin beharreko transakzioa justifikatuta eta ikusgai baitago.

### ***Metodologia***

Sexuagatiko edota genero-bereizkeriaren aurkako material juridikoa (bereziki, bereizkeriaren aurkako legeriarena eta jurisprudentziarena) identifikatzea ez da, are gutxiago, lan mekanikoa. Aitzitik, sexuagatiko edo genero-bereizkeriaren kontzeptua zer den aldeaz aurretik definituta egon behar du, bereizkeria, bereizkeriarik eza eta bereizkeriaren aurkakoa zer den zehaztuko duena, hain zuzen, eta hori gai eztabaidagarria da, kontrakoa badirudi ere.

Bereizkeria kontzeptu berak zehazten du eztabaidaren gakoa. Era horretan, Zuzenbidearen beraren bereizkeria kontzeptuak eta, bereziki, tradiziozko kultura juridikoak ez dute zertan bat egin behar (eta ikerlanaren arabera, ez du bat egiten) teoria kritikoarekin, oro har, eta Zuzenbidearen teoria feministarekin (edo iusfeminismo), bereziki.

Hain zuzen ere, jatorriz kultura juridiko modernoarekin sortutako bereizkeria kontzeptuak bat egiten du modu individualistan ulertutako legearen aurreko berdintasun-printzipioa haustearekin. Era berean, Zuzenbide eta Estatu (subjektu maskulinoa) modernoak euskarri dituen unibertsaltasun faltsuan oinarritzen da. Baina talde bereko norbanakoen arteko *tratu-berdintasuna* haustearen fenomenoak (ez dira botere-egitura ezberdintasunak atzematen) ez da *statusaren desberdintasunean oinarritutako* tratu-berdintasuna haustearen fenomenoaren

antzekoa, gure (eta edozein) gizartean gertatzen den gizonen eta emakumeen artean ematen dena.

Kultura juridiko tradizionala eta pentsamendu kritikoa (feminismo juridikoa) kontzeptuak ez datoz bat. Lehenengoarentzat bereizkeriaren paradigma dena (zuzeneko edo zeharkako bereizkeria kontzeptuak, binomio gisa hartuta), bigarrenarentzat, bi kontzeptu horiek bereizkeriaren epifenomenoa dira soilik eta era zabalagoan ulertu behar da. Izan ere, botere sozialean sexu-genero sisteman oinarritutako eta publikoaren eta pribatuaren arteko bereizkerian finkatutako egitura ezberdinek ez dute gizonengan eta emakumeengan eragin bera (sistema honetan bereizkeria ez da egituraz neutroa), emakumeak menpe jartzen baititu.

Desadostasun hori arauetan ere islatzen da. Horrela, pentsamolde tradizionalan bereizkeriaren aurkako Zuzenbidearen oinarria, bereizkeriaren aurkako formulak debekatzean datza (adibidez, Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua edo gizonen eta emakumeen tratu-berdintasunerako Europako Arteztarauak), eta, interpretazio horren arabera, zuzeneko eta zeharkako bereizkeria-kontzeptuak eraiki dira. Teoria kritikoarentzat, ordea, bereizkeriaren aurkako Zuzenbidearen oinarria hierarkia-maila handiagoa duten testu arau-emaitzetan agertzen diren egiturak eta oztupoak kentzearekin bat egiten du (Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikulua edo Euskal Autonomia Estatutuaren 9.2.d. artikulua, esaterako).

Bereizkeriaren aurkako politika hori *baiezko jarduera-politika (edo positiboa)* baino ez da. Izan ere, jarduera bereizgarrien (sexu-generoagatik) zein ez bereizgarrien parte izan daitekeen politika *aktibo* gisa ulertzen da.

Baiezko jarduera-*politika* (edo positiboa) bereizkeriaren aurkako Zuzenbidearen oinarri nagusia izatea, eta aipatutako politika, bai jarduera *bereizgarrietan* eta bai *ez bereizgarrietan* sartzea erabakigarriak izan dira bilketaren egitura planteatzeko orduan. Era horretan, politika horren bidez ondoko hipotesi hau gorpuztu nahi da: sexu-generoagatiko bereizkeriaren aurkako politikak diseinu teorikoa behar du

(printzipioak, kontzeptuak, estrategiak eta neurriak). Izan ere, oinarri gisa abstraktua ez den bereizkeria kontzeptua izan behar du (sexuagatik edota generoagatik), bereziki, botere-egitura harremanetan aritzen diren subjektuei buruzkoa. Era berean, kultura juridikoak nahiz hegemonikoak legearen aurreko berdintasun-printzipioari (edo aukera-berdintasunaren printzipioari) eman dioten esanahitik bereizi behar da (edo, gutxienez, ez da horren menpe egon behar).

Ondoren, hipotesi horri jarraiki, jatorrizko proposamen horrek zehaztuko du zein neurritan botere-harremanetan diharduten subjektuei (gizonak eta emakumeak), batera (normalean berdintasunari burukoak) edo bakarrik (gizonei soilik edo emakumeak soilik) bereziki dagozkien dokumentuen beharra (zilegitasuna) eta aukera (onarpena).

Era berean, nazioarteko eta Europako araudiari dagokionez, garrantzitsua da arautegi loteslea (hau da, testu berretsiak nazioarteko zuzenbidearen kasuan; eta Itunak, Araudiak, Zuzentarauak, eta Erabakiak, Europako zuzenbidearen kasuan) eta ez loteslea (Adierazpenak, Ebazpenak, Gomendioak, Planak eta abar) banatzen dituen irizpidea jarraitzea. Modu horretan, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen bereizkeriaren aurkako Zuzenbidea garatzeko eragin hierarkikoa zehaztu ahal izango da.

Gainerakoan, ondoren kontsultarako erabil daitezkeen xedapenen zerrenda osatzeko, Bigarren Zatik II. kapituluan, "publikoaren alorreko" (jakina, ez da "sektore pribatua" delakoa ordezkatzeko duen kontzeptua) bereizkeriaren eremu nagusiei dagokien sexu-generoagatiko bereizkeriaren aurkako araudia transkribatu egin da.

Sexu-generoagatiko bereizkeriaren aurkako jurisprudentziaren azalpenezko metodologiari dagokionez, halaber, hainbat interes biltzen dituen irizpideak erabili dira. Modu horretan, alde batetik, zehazki, Europako Erkidegoetako Justizia auzitegiaren eta Espainiako Konstituzio Auzitegiaren epaiak bildu dira, Europako eta

Espainiako Zuzenbidearen interprete gorenak, hurrenez hurren. Aipatutako bilketan orden kronologikoa jarraitu den arren, erreferentzia bakoitzean eta ahal izan den neurrian (bilketa-lana da soilik, hortaz, ez da edukiaren aldetik azterketa sistematikorik egingo), deskribatzaileak sartzen saiatu dira. Deskribatzaile horiek lehenago zehaztutako bereizkeria kontzeptuarekin bat etorriz, bilketa tradizioaletan edo erabileran (zuzeneko-zeharkako-egiturazko bereizkeria, ekintza positiboa, adibidez) edo errekurtsua jartzeari dagozkion informazioak baino hobekak izan behar dira.

Bi Auzitegi Goren horien epaiez gain, beste atal batean erantsi dira, oraingoan gehiegi sakondu gabe, hainbat arrazoiengatik (interes argumentatiboa, gaiarekiko hurbiltasuna edo gaiaren berezitasuna) esanguratsuak diren beste auzitegi batzuetako epaiak (Gorena, Auzitegi Nagusia eta Probintzia Auzitegiak).

### ***Emaitzak***

Bilketa-jarduerak berak zehazten ditu xedapenak eta epaiak baino ez biltzen dituen lan baten emaitzak. Zentzu horretan, datu kronologikoen, kuantifikatzaileen, adierazpen-datuen, bai eta sailkapenaren edo egituraren baldintzen menpe daude.

Hori guztia horrela izanik, esan daiteke lehenago aipatutako ezaugarriak aintzat hartzen dituen (kontzeptu kritikoa izan behar du abiaburu) sexu-generoagatiko bereizkeriaren aurkako testu juridiko bakarra dagoela: *emakumearen aurkako era guztietako bereizkeriak ezabatzeko Konbentzioa*. Zentzu horretan, ez dago ondoko *leit motiv*-a duen testu juridikorik (ezta "espezifikoa" gisa izendatutakoen artean ere): emakumearen aurkako era guztietako bereizkeria ezabatzea.

Aitzitik, gainontzeko testu juridiko lotesleen (jatorria LANEn, Europako Batasunean, Estatuan, edo autonomia-erkidegoetan dute) *leit motiv*-a ez da emakumearen bereizkeria (ezabatzea), baizik eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna (tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna). Izan ere, gero nolabaiteko helburu

integrala duten testuetan agertuko da, Estatuko zein autonomia-erkidegoetako testuetan, alegia.

Hori bai, ikuspuntu honetatik abiatuta (*leit motiv*-a berdintasuna da, ez da bereizkeria ezabatzea izan behar), Europan zenbait xedapen ez-lotesle sortu da (*soft law*), bereziki emakumeei zuzendutakoak. Xedapen horiek Estatuan indarkeria jasan duten emakumeak izango dute helburu (bidenabar esanda, ez da jatorriz bereizkeria-modu gisa azaltzen 1979ko Konbentzioan).

Egiaztapen horrek, hemen egindako bilketa eskuan izanda soilik egin daitekeenak, galdera bat sortarazten du, eta horren erantzunak (gerora eginbeharreko ezinbesteko azterlana merezi duena, bestalde) abiaburuko hipotesiak planteatutakora itzularazten gaitu: eta horren erantzun gisa ondoko abiaburuko hipotesi hau sortu egin da: kultura juridiko-hegemonikoaren edo tradizionalaren ezaugarri den berdintasun kontzeptua (legearen aurrean, aukera-berdintasuna...) ezin daiteke sexu-generoagatiko bereizkeriaren aurkako legeria eta jurisprudentziaren abiapuntu izan (ezta beren dokumentuen izenburuarena ere). Aitzitik, boterezko gizarte-egituren azterketan oinarritutako bereizkeria-kontzeptua izan behar dute abiaburu eta, sexu-genero sistemaren kasuan, derrigorrez teoria feminista, mugimenduaren jarduera eta emakumeen elkarteak (horren indarraren fruitu da, hain zuzen, Konbentzioa) behar dira.

Ez dago zalantzarik berdintasunaren inguruko diskurtsoak (baita legegilea eta judiziala ere) mendeetako indar erretorikoa duela. Hala ere, bereizkeriaren aurkako Zuzenbidearen abiaburu diren subjektu politiko berrien (emakumeak) premia ezin da indar erretoriko horrekin piztu; betiere, indar erretorikoak dagoen arazoari aurre egiteko egin eta pentsatu ez diren egiturak eta tresna kontzeptualak oinarritzat hartzen baditu. Alderantziz, kasu honetan, indar erretorikoa eragozpen bihurtzen da eta berarekin aritzeko beharra ahultasunaren seinale. Horrexegatik, testuetan eta kultura juridikoan bereizkeriaren (eta bereizkeriaren aurkakoa) diskurtsoa erabakigarria da; baina ez berdintasun-juridiko formaletik eta talde barneko



berdintasunetik (hau da, bereizkeria ez da botere-egituretan ez dauden norbanakoen arteko tratu-berdintasunaren haustura gisa ulertu behar) eratorritako kontzeptu gisa, baizik eta taldeen arteko boterezko gizarte-egiturei dagokien kontzeptuak talde bati (kasu honetan, gizonak) beste baten aurrean (kasu honetan, emakumeak) mesede egiten dionean.

Nola aurkezten da berdintasun/bereizkeria dialektika lege berrietan (Estatuan eta autonomia-erkidegoetan)? Hori, bilketa egin ondoren, etorkizunean aztertzeko irekita dagoen beste galdera bat dugu.

Azkenik, **Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreko hitzarmen kolektiboak, generoaren ikuspuntutik eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren araudiaren alorrean** azterlana Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko ikerketa-talde batek egin du.

### ***Helburuak***

Lan-merkatuko genero-bereizkeriari dagokionez, nabaria da arautegi juridikoaren eta benetako egoeraren arteko aldea. Gai horretan, *izan behar lukeena* (zuzenbidez) eta *dena* (izatez) ez doaz inola ere norabide berean.

Europako Erkidegoko arautegiari dagokionez, aipatzekoa da, uztailaren 5eko 2006/54 EE Zuzentarau berria, enpleguaren eta lanbidearen alorrean gizonen eta emakumeen arteko aukera- eta tratu-berdintasunaren printzipioa ezartzeari buruzkoa. Bereizkeriaren aurkako aurreko arauak bateratzen eta sistematizatzen dituen Europako Erkidegoko arau batez ari gara.

Espainiako estatuan, 1978ko Konstituzioak legearen aurreko berdintasuna ezarri eta sexuagatiko bereizkeria debekatu zuen. Lanaren esparruari dagokionez, Karta Magnaren aurreikuspena batez ere Langileen Estatutuaren 17. artikuluan garatu zen. Bertan, arauetako, hitzarmenetako eta kontratuetako aurreikuspenetarako, bai

eta enpresariak bere kasa hartutako erabakietarako ere baliogabetasun-zehapena aurki daiteke, betiere sexuagatiko bereizkeria elementuak badituzte<sup>2</sup>.

Euskal Autonomia Erkidegoan, erreferentzi-araua otsailaren 18ko 4/2005 Legea da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa; horrek eragina du lan-harremanen esparruan Erkidegoari dagozkion eskumen mugatuetan.

Ondorioz, argi eta garbi atzematen da gure inguruan indarrean dagoen zuzenbideak behin eta berriz sexuagatiko bereizkeria debekatzearen alde egiten duela. Datu estatistikoek era sistematikoan eskaintzen dizkigute emakumeek lanean jasaten duten bereizkeria zenbait alorrei dagokienez, hala nola, lanpostua eskuratzea, kontratu-mota, soldata eta beste lan-baldintza batzuk. Besteren artean, arrazoi psikologikoen, soziologikoen, kulturek eta ekonomikoen bereizkeria-egoerak irautea dakarte.

Lan-harremanei dagokienez, segur aski, bereizkeriaren aurkako tresna juridikorik erabilgarriena hitzarmen kolektiboa da. Lan zuzenbidearen iturri-sistemak ezartzen du hitzarmen kolektiboak legezko arauak bermatzen dituzten minimoak jaso behar dituztela eta, dagokionean, horiek hobetu.

Berdintasunaren arloan, hitzarmen kolektiboek zorrozki errespetatu behar dute berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa. Era berean, legezko aurreikuspenak hobe ditzakete genero ahularen mesederako ekintza positiboko neurriak ezarriz, aukera-berdintasunaren printzipioaren arabera.

Itundutako jatorria duen araua da, eragina duen lan-eremura bikain egokitzen dena. Bere bertuterik nagusia dagokion lan-segmentuko bereizkeriaren inguruko arazo espezifikoari aurre egiteko duen malgutasunean eta aldakortasunean datza.

---

<sup>2</sup> Egun indarrean dago Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen arteko laneko berdintasunerako beharrezkoa. Baina azterlanean ez zen beren begi aztertu, oraindik promulgatu gabe zegoelako. Hala ere, orduko Lege Proiektuaren gai garrantzitsuen inguruan aurrerapausoak eman ziren.

Azken finean, azterlanaren helburua hitzarmen kolektiboaren aldakortasuna aztertzea da, lanaren esparruan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egiteko tresna gisa; bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreko hitzarmen kolektiboetako dagokienez eta generoaren ikuspuntutik ohiko arautegiaren errealitatea behatzea ere.

Lanaren emaitzari esker, aztertutako hitzarmen kolektiboen legezko aurreikuspenetik egokitzea eta horiek ezartzen dituzten aldi baterako berme osagarriak baloratu ahal izango dira; hortaz lege-arauketa hobetuko da.

### *Metodologia*

Azterlanaren lehenengo atala hitzarmen kolektiboari buruzkoa da eta haren izaera juridiko-laborala aztertzen du, besteren artean, Legearekiko duen harremana eta artikuluetan jasotzen dena. Era horretan, hitzarmen kolektiboaren aldakortasuna, lan-munduan bereizkeriaren aurkako tresna juridiko gisa, zehatz aztertzen saiatu da.

Handik aurrera, erabilitako metodologiaren bidez, genero berdintasuneko gaiak zazpi bloketan banatu dira. Bloke horietan, emakume langilearen oinarriko lan-eskubideak daude.

Horretarako jadanik egin diren azterlanen<sup>3</sup> proposamena abiapuntutzat hartu da: lana lortzea eta lan-baldintzak, oro har; lansaria eta gizarte-onurak; amatasuna eta langileen lanbideko eta familiako erantzukizunak adostea; haurdunaldiaren eta edoskitzaroan osasuna babestea; ekintza positiboa eta bereizkeriaren aurkako klausulak; sexu-jazarpena; jazarpen-morala eta mobbing-a.

---

<sup>3</sup> PÉREZ DEL RÍO, T./ BALLESTER PASTOR, M.A., La discriminación por razón de sexo en la negociación colectiva, Instituto de la Mujer, Madrid, 1997; DE LA FUENTE VÁZQUEZ, D. (koordinatzailea), AA.VV, Análisis de la negociación colectiva en la Comunidad Foral de Navarra desde la perspectiva de género, Instituto Navarro de la Mujer, 1998; DE LA FUENTE VÁZQUEZ, D. (koordinatzailea), AA.VV, Análisis de la negociación colectiva en la Comunidad de Madrid desde la perspectiva de género: revisión, Comunidad de Madrid, 2006.

Ondoren, laneko, Europako Erkidegoko eta Estatuko antolamendu juridikoa aztertzen da, aipatutako zazpi gai-multzoei ezarritako araudiari dagokionez.

Gero, egun indarrean dauden Euskal Autonomia Erkidegoko hamahiru arlokako hitzarmenak sakonki aztertzen dira. Generoaren ikuspuntutik hedadura dela-eta oso garrantzitsuak diren Euskal Autonomia Erkidegoko hitzarmen kolektiboak aztertzea erabaki da. Era horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko eremu osoa barne hartzen duten arlokako hitzarmen kolektiboak aztertu dira, aldez aurretik mugatutako zazpi atal materialetan edukia husteko.

Horri esker, hitzarmen bakoitzak interesatzen zaizkigun gaiak nola jorratzen dituen identifikatu ahal izan da, ondoren dagokion balorazio juridikoa egiteko.

Azterlanetik ateratako eta generoaren ikuspuntutik ohiko araudia hobetzeko proposamenen sorburua duten ondorioekin bukatzen da azterlana.

### ***Ondorioak***

Asko dira ikerketatik eratorritako gai interesgarriak. Ondoko ondorio hauek nabarmentzekoak dira:

- Ikertutako hitzarmen kolektiboan garatzen diren gaien artean amatasuna/aitatasun baimena, eszedentzia eta seme-alabak eta familiakoak zaintzeagatik lanaldia murriztea eta ordaindutako lizentziak ditugu. Gai horren inguruko azterlanaren emaitzak duen ezaugarri komuna da azken urte hauetan legeetan izandako aldaketetara ez direla moldatzen itundutako testuak.
- Ordainsarien arloan, ikertutako hitzarmenetik bik soilik ordainketa-berdintasunaren printzipioaren adierazpen-klausulak dituzte. Era berean, hitzarmen horietatik bakar batek ere ez du aipatutako printzipioa era egokian arautzen, ez baitituzte balio

berdineko lanek ordainketa berdina, soldata eta soldataz kanpokoa, izan behar duteneko mandatua ez baitituzte jasotzen (Langileen Estatutuaren 28. artikulua).

- Gizarte Segurantzaren prestazioak borondatez hobetzeari dagokionez, aztertutako hitzarmen kolektibo guztiek Gizarte Segurantzaren prestazioak hobetzen dituzte, istripua izateagatik edo gaixotasunagatik eratorritako aldi baterako ezintasun kasuetan. Hala ere, ez da gauza bera gertatzen amatasun-prestazioarekin eta haurdunaldiko arriskuarekin. Amatasun-prestazioa hobetzen duten hitzarmenak zazpi dira, eta hiruk soilik, ordea, hitzarmena haurdunaldiko arriskuagatik eteten denean ordainsarien %100 bermatzen dutenak.

### *Gomendioak*

Lortutako emaitzak ikusita, azterlanak iradokizun edo gomendio batzuk egiten ditu eta negoziazio kolektiboaren esparruan, emakumeen eta gizonen arteko laneko berdintasun eraginkorra lortzeko eragin positiboa izan ditzaketen neurriak jarri ditu.

- Hitzarmenek bereizkeriazko gizarte-aurreiritziak errepika ez ditzaten, legearen aurkako edo legezko araudiak onartzen dituen eskubideak mugatzen dituzten klausulak ezarriko dira. Izan ere, hitzarmenak negoziatzen dituzten pertsonak, patronalak zein sindikatuek, emakumeen eta gizonen arteko laneko berdintasunaren alorrean informazioaren, prestakuntzaren eta kontzientziazioaren alde egin behar dute.
- Ordenamendu juridikoak berak jada onartutako eskubideak hitzarmen kolektiboetan beren begi adieraztea proposatzen da eta, horren adibide, emakumeen eta gizonen arteko lanaren esparruko berdintasun-printzipioa dugu. Izan ere, nahiz eta beharrezkoak ez diren klausulak direla iruditu, eragin positiboa eta dibulgatzailea dute. Era berean, hitzarmenean sartuta ez egon arren, laneko bereizkeriarik ezaren printzipio konstituzionala eta legala indarrean dago. Ezin ahantz daiteke, hitzarmena jasoko duten pertsonak, kasu askotan, ez dutela indarrean dagoen legeria ezagutzen.

- Lanean sartzeari eta lanbide-promozioari dagokionez neurriak hartzea, batez ere, emakumea azpiordezkatuta dagoen lanbideetan.
- Familiako erantzukizunak banatzea sustatzen dituzten neurriak ezartzea, hala nola, gizonek dagokien lan-eskubideak aurrera eramateko neurri pizgarriak sartzeari.
- Berdintasuna sustatzeko batzorde parekideak sortzea.
- Bereizkeriagatiko barne-salaketak ebazteko prozedurak eratzea, sexu-jazarpenagatiko eta jazarpen moralagatiko salaketak dituzten berme berberarekin.

## 3 HERRITARRENTZAKO ARRETA JARDUERAK

Sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoeren aurrean herritarrak babestea, Emakumeen eta Gizonen arteko Defentsa Erakundearen arreta-eredu espezifiko eta espezializatua da, 4/2005 Legeak ezarritako funtzioen arabera (64. artikulua).

Aldi berean, 119/2006 Dekretuak ustezko sexuagatiko bereizkeria-egoeretan jarraitu beharreko prozedura zehazten du (III. kapitulua). Izan ere, prozedura modu garatuan eta bermatzailean arautzen du ikuskapen-lanari, bai eta aztertu diren pertsonen eskubideei ere dagokienez.

Atal honetan erantzundako eskaerei dagokien terminologia mugatzen da, eskaera horiek eta bakoitzari emandako erantzuna deskribatzen dira, analisi juridikoa egiten da, bai eta amaitu diren prozeduren kasuan gomendioak ere. Informazio hori, bere osotasunean, sektore pribatuko sexuagatiko ustezko bereizkeria-jardunbideen eta egoeren lehenengo adierazlea da.

### 3.1 Terminoak mugatzea

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen *kontsultak*, *kexak* edo *salaketak* egin daitezke.

**C** *kontsultak* hamabi hilabete hauetan zehar herritarrek Defentsa Erakundeari eskatutako informazio- edota aholku-eskaerak dira. Kontsulta mota hauek gehienetan ahoz edo telefonoz egin dira eta ustezko sexuagatiko bereizkeria-egoerei edo jardueri dagokie. *Kontsulta* batek, kasu askotan, *kexa* bat du berekin, baina ez du zertan aipatutako *kexa* egin behar. Erantzundako kontsulta bat amaitzerakoan herritarrak hurrengo egunetan *kexaren* bat egin nahi badu, **C\*** da erabiltzen den identifikazio-kodea.

Defentsa Erakundeak *kontsulta eratorria* ere egin daiteke, **CD**. Kasu horretan, egindako eskaerarako arreta-baliabideei edo baliabideei buruzko informazioa eskaintzen da eta ondoren, dagokion erakundeari jakinarazten zaio.

Argibide-eskaera ez bezala *kexa*, **Q**, sektore pribatuan ustezko sexuagatik zuzeneko edo zeharkako bereizkeria-egoeren edo jardueren aurrean, jarraitutako ikerketa-prozedurari dagokionez *aldeek eskatutako hasiera* da. Honako hauek dira *kexa* bat aurkez dezaketenak (119/2006 Dekretuaren 12. artikulua).

- 1.- *Edozein pertsonak edo pertsona taldek, edo haien legezko ordezkariak aurkeztu ahal dituzte kexak Defentsa Erakundeak, baldin eta sektore pribatuan sexuagatik bereizkeria jasan badute.*
- 2.- *Emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren abiaburua betetzea xede duten elkarteek, erakundeek eta beste pertsona juridikoek baztertuta dagoela uste duen pertsonaren izenean edo hari laguntzeko prozedura hasi eta bertan parte hartzeko legitimazioa dute, baldin eta haren baimena badute.*

Era berean, 119/2006 Dekretuaren 13. artikuluan *kexa* adierazteko modua argi adierazten da:

- 1.- *Kexak idatziz edo ahoz aurkeztu ahal dira. Nolanahi ere, arrazoituta egon behar dira, eta kasua argitzeko balio ahal duten agiri guztiak ere aurkeztu behar dira. Halaber, kexan data, lekua, eragindako pertsonaren identifikazioa, jakinarazpenetarako nahiago den bide edo lekua agertu behar dira; eta kexa zein pertsona fisiko edo juridikoren aurka aurkezten den, horren identifikazioa ere bai.*
- 2.- *Ahozko kexak Defentsa Erakundearen egoitzako bulegoan soilik aurkeztu ahal dira. Kexa horiek transkribatuko dira, eta eragindako pertsonak gero irakurri eta sinatuko ditu.*



*Kexa onartua, QA*, terminoari dagokionez ondoko hau ezartzen da 119/2006 Dekretuaren 15. artikuluan: *"kexa alde zurretik baloratu behar da, onargarria den ebazteko".* Eta behin *"... kexa onartuz gero, defentsa-erakundearen titularrak prozeduraren hasierako akordioa hartu beharko du"*, eta jakinarazi beharra dago *"kexa jaso duenari eta kexa aurkeztu duenari ere, baldin eta alderdiren baten eskariz eman bazaio hasiera"*. Era berean, aipatutako 15. artikuluan era zehatzean *kexa ez onartua, QI*, mugatzen da honako termino hauetan: *"kexak ez dira onartuko ondoko inguruabarretariko bat gertatzen bada:*

- a) (...) legitimazio aktiborik ez badago.
- b) *Kexa aurkezteko arrazoi izan diren jokabide edo gertakariak amaitu eta urtebete igaro bada.*
- c) *Eragindako pertsona gisa kexa nork egin duen identifikatu ez bada.*
- d) *Asmo txarra egon bada edo prozedura neurritz gain erabiltzen bada.(...)*
- e) *Argi eta garbi funtsik batere ez badu.*
- f) *f) Kexa aurkezteko eskakizunen hutsak konpontzeko eskatzen diren datu edo agiriak epearen barruan aurkezten ez badira.*
- g) *Defentsa Erakundeak lehenago aztertu duen gai bati buruzkoa bada.*
- h) *Defendatzailearen eskumenaren arloarekin zerikusia ez badu. Ararteko Erakundeari edo Herriaren Defendatzailearen Erakundeari igorri behar zaizkio baten eta bestearen eskumenen arloekin zerikusia duten kexak".*

Azkenik, 4/2005 Legearen 65. artikulua Defentsa Erakundearen jarduera-mugak ezartzen ditu: *"defendatzaileak ez ditu banan-banan aztertuko pertsonen intimitateari buruzko kexak, ez eta jada epai irmo bidez erabaki direnak edo epaileak oraindik ebazteko dituenak ere. Era berean, edozein ikerketa bertan behera geldituko da interesatuak auzitegi arruntean edo Konstituzio Auzitegian salaketa edo errekurtsua aurkezten badu".*

*Salaketa, D*, interes berezirik edo zuzeneko interesik ez duen pertsona batek edo batzuek egindako adierazpena da; horren bidez Defentsa Erakundeari jakinarazten

zaizkio sexuagatiko bereizkeria ondorio izan ditzaketen sektore pribatuaren ustezko jarrerak edo ekintzak. Beste kasu batzuetan, Defentsa erakundeari jakinaraziko zaio ustezko sexuagatiko bereizkeria-egoeren edo tratu-berdintasunaren printzipioa bete ez dela. Aurretiazko eginbideak amaitu ondoren, Defentsa erakundeak ofizioz ikerketa-prozedura bat has dezake.

Jardunbidean, *salaketaren* eta *kexaren* arteko aldea, salaketa jartzen duten pertsonen gertakarian interes berezirik edo zuzenik ez izatean datza.

### 3.2 Arreta jasotako herritarren deskribapena

Ondoren, erantzundako eskaeren ezaugarri orokorrak, *kontsulten*, *kexen* eta *salaketen* berezitasunak, gauzatutako ikerketen zerrenda, bai eta *kexa ez onartuak* eta horien arrazoiak ere deskribatzen dira.

Jasotako 40 eskaeren erdiak 2006ko ekaina eta abendua bitartean egin ziren eta gainontzekoak 2007ko urtarrila eta maiatza bitartean. Halaber, emakumeek eskaeren ia hiru laurdenak (29, %72) egin dituzte, gizonek 6 (%15) eta elkarteek gainontzeko bostak (%12). Lurralde Historiko bakoitzeko biztanleriaren dentsitatea era logikoan aintzat hartuta, eskaera gehienak Bizkaian egiten dira (16, %40), 11 Gipuzkoan (%27,5), 9 Araban (%22,5) eta ez da 4 eskaeren jatorria ezagutzen (%10).

Eskaeren erdia baino gehiago idatziz egin dira (22, %55) eta gainontzeko 18ak (%45) ahoz. Horien jatorriari dagokionez, pertsona gehienek Defentsa Erakundera beren kabuz jotzen dute beren eskaerak adierazteko (26, %45) –Defentsa Erakundearen berri komunikabideei eta informazio-liburuxkaren hedapenari esker izan dute-; Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak 8 (%20) igorri ditu; sindikatuek 4 (%10) eta gainontzeko 2ak dena delako udalerrriaren Berdintasun teknikariak eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak, hurrenez hurren.

Aurkeztutako eskaera guztiek ez dute ikerketa-prozedura bat hasi behar izan. Izan ere, egindako 40 eskaeren artean 24 *kontsulta*, 11 *kexa* eta 5 *salaketa* egon dira. Honako hauek dira 40 eskaerei dagozkien erabileremuak:

- 1a erdiek, 18 eskabide, lanaren esparruan ustezko bereizkeria-egoerak aipatzen dituzte (adiskidetzea, amatasuna, kaleratzea, lan-jazarpena, lanbide kategoria, lana eskuratzera eta lan-baldintzekin loturik dauden egoerak).
- Eskaeren artean 7 Elkarteek egindako ustezko bereizkeria-jarduerei buruzkoak dira, 5 Elkarteetan emakumeak sartzen ez usteari buruzkoak (horietatik 4 gastronomi elkarte eta lanbide-gremio 1), erabakiak hartzerakoan ustezko bereizkeria-jarduerei buruzko 1, eta beste bat emakumeen elkarte bat dagokion sektore konfederalean sartzen ez uzteari buruzkoa.
- 3 eskaera ustezko jazarpen sexista egoerekin loturik daude (2 erakunde publikoen lan-esparruan eta 1 enpresa pribatu batean).
- Beste 3 publikoari irekita dauden guneeetan bereizkeriazko irudiei edo tratuari dagokie (barraka bat, taberna bat eta emakumea iraintzen duen abesti bateko letra).
- Eskaera 1 komunikabideek egindako ustezko sexuagatiko bereizkeriari dagokio.
- Azkenik, 8 eskaera beste gai batzuei buruzkoak dira (bularra emateko lekuak, erditze unean jasandako bereizkeria, dibortzio-epaia, azterketa-datan erdituko duen oposizioa, faktura kobratzea Doako Justizian).

Defentsa Erakundearen atenditutako 24 *kontsulten* ezaugarriak dagokienez, 9 kexa bihur daitezke (C\*) eta 6 beste baliabide batzuetara igorri zaizkie (CD): Ararteko erakundeari (6) eta, horietako bat, Eusko Jaurlaritzako "Zuzenean" Herritarrentzako Arreta Bulegoari ere.

Defentsa Erakundearen erregistroa izan duten 11 *kexen* artean, 6 *ez dira onartu* (QI), 4 biderapenerako *onartu dira* (QA) eta 1 zuzentzeko dago. Onartutako 4 kexetatik 2 gomendioaren igorpenarekin ebatzi dira, 1 ikerketa-prozesuan dago, eta beste bat entzunaldi-izapidetan.

*Onartutako 4 kexen* gaiei dagokienez, horietako 2 lanbidea, familiako bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriekin loturik daude, eta beste 2 ustezko sexuagatik bereizkeria-jarduerekin elkarteen funtzionamenduan. Zuzentzeke geratzen den kexa lan esparruan ustezko bereizkeriarekin loturik dago. Ez onartutako 6 kexen erabileremuak dira: lana (4), sexu-jazarpena (1) eta elkarteei buruz (1). 4/2005 Legearen 65. artikuluan aipatzen diren eta Defentsa Erakundeak dituen jarduera-mugak direla-eta ez dira 6 kexa horiek onartu. Bereziki, epai irmo bidez erabaki direlako, epai bidez ebatzi gabe egoteagatik edo, auzitegi arruntean salaketa edo errekurtsioa jarri izanagatik.

Hauetako 5 *salaketak* (D): abesti baten letra, taberna baten irudi dekoratiboak, barraka baten kanpoko irudiak, behar duten emakumeek beren umeei bularra emateko gune publikoak, eta indarrean dagoen legerian ezarritako adiskidetze-neurriak eskatzerakoan enpresa pribatu batek egindako ustezko lan-bereizkeria. Txosten honen itxiera-datara arte (2007ko maiatzak 24), 2 dira aurretiazko eginbide-fasean daudenak, batean ikerketa-prozedura hasiko da ofizioz, batean ikerketa-prozedura garatu eta gomendioa bidali dira, eta 1 Ararteko erakundearekin batera egindako lan-proposamenei erantsiko zaie.

### Eskaeren erabileremuak eta tipologiak

Erabileremua	Kontsulta		Kexa		Salaketa	Guztira
	C	CD	QA	QI	D	
Lanekoa	9	1	2	4	1	18*
Elkarteena	4	-	2	1	-	7
Jendaurreko azalpenekoa	-	-	-	-	3	3
Komunikabideena	1	-	-	-	-	1
Sexu-jazarpenekoa	-	2	-	1	-	3
Bestelakoak	4	3	-	-	1	8
<b>Guztira</b>	<b>18</b>	<b>6</b>	<b>4</b>	<b>6</b>	<b>5</b>	<b>40*</b>

\*) Guztizko honetan zuzentzeko dagoen kexa bat dago barne

Kasu guztietan, Defentsa Erakundeak bere politika jarraitu du eta eskaerei ahalik eta babes juridikorik handiena eskaini die. Era horretan prozedurazko arauak onartzearen aldeko interpretazioa ematen saiatu da, *in dubio pro actione* maximoari jarraiki. Aipatu beharra dago, onartu ez diren kexei dagokienez, Defentsa Erakundeak, uneoro, herritarrei azaldutako ustezko arazoak konpontzeko biderik edo modurik eraginkorren berri ematen die.

Azkenik, Defentsa Erakundeak 5 ikerketa-prozedura hastea erabaki du, 1 ofizioz eta beste 4 alderdi baten eskariz. Horietatik 3 gomendioak igortzearen bidez amaitu dira.

Lehenengo urte horretan jasotako eskaera kopuruari (40) dagokionez, Defentsa Erakundeak badaki herritarrek ez dutela ezagutzen organo sortu berria, ez eta haren betekizunak ere. Hortaz, etorkizun hurbilean zabalkunde-plan globala garatzeko premia ikusten du.

### 3.3 Erantzundako eskaeren deskribapena

Azpiatal honetan Defentsa Erakundearen planteatutako eskaera bakoitzaren ezaugarriak azaltzen dira. Horretarako, deskribatzen dira planteatutako eskaera zertan oinarritu izan den, emandako erantzuna eta, hala dagokionean, kasuaren, egoeren eta azterketa juridikoaren, bai eta prozeduraren emaitza ere.

Eskaerak azaltzen diren ordena hurrengo hau da (azpiatal bakoitzean logika kronologikoa aplikatuta):

Lehenengo eta behin, **a) Kontsultak** idazpuruan, kontsultak azaltzen dira (eratorritako kontsultak CD, horien jarraian kexa bilakatu dezaketen kontsultak C\*, eta, azkenik, beste kontsultak C). Bigarrenez, **b) Kexak** idazpuruan, azaltzen dira ez onartutako kexak (QI), jarraian zuzentzeko kexak eta onartutako kexak. Azkenik, **c) Salaketak** idazpuruan, salaketak azaltzen dira.

#### a) Kontsultak

*Kontsulta eratorriak (CD)*

*CD/07/2006 Eskaera*

**Tratu-ezberdintasuna, lankide gizonezkoen aldean Correos enpresan lanpostu finko baten esleipen-denbora dela-eta.**

\_\_\_\_\_ andreak, Bilboko Correoseko langileak, hiru urte daramatza banaketa-lanak ibilgailuz egiten. Denbora horretan zehar, ez zaio lanerako leku jakina esleitu, bai ordea, beraren lan-egoera berdina duten lankide gizonezkoiei.

#### Erantzuna

Defentsa Erakundearen eskumena da sektore pribatuko sexuagatiko ustezko bereizkeria-jardunbideak eta egoerak aztertzea. Hori jakinarazteaz gain, azaldu zaio

kasu honetan Ararteko erakundera jo behar dela kexa jartzeko, sektore publikoko enpresa batean gertatu baita.

## **Analisia**

Kasu honen inguruan gerora egin den azterketak agerian utzi du Correos estatuaren sozietatea dela. Ildo horri jarraiki, badira sozietate hau Zuzenbide Pribatuaren pean dagoela dioten epaiak. Hortaz, Lan-arloko Epaitegiek lan-harremanen arloan sortutako arazoei aurre egin behar diete, partikularren arteko beste edozein lan-harremanetan bezala. Informazio horren erabilgarritasunaren ondorioz, azkenik, Defentsa Erakundeak kexa "sektore pribatuko" gaitzat hartu beharko litzaketela onartu du.

*CD/15/2006 Eskara*

**Gerenteak enpresako emakumeen kontra etengabe egiten dituen mespretxuzko berbak.**

\_\_\_\_\_ andreak, garapen-agentzia bateko langileak, azaldu duenez, lan egiten duen enpresa publikoan –punta-puntakoa emaitzen aldetik– langile guztiak emakumeak dira gerentea izan ezik, eta hura etengabe ibiltzen da emakumeen kontrako mespretxuzko berbak esaten.

## **Erantzuna**

Defentsa Erakundearen eskumena da sektore pribatuko sexuagatiko ustezko bereizkeria-jardunbideak eta egoerak aztertzea. Hori jakinarazteaz gain, azaldu zaio, kasu honetan administrazio publikoaren enpresa batez ari garenez, Ararteko erakundera jo behar dela kexa jartzeko.

## Analisia

Kasu honen inguruan gerora egin den azterketak agerian utzi du Lan-arloko Epaitegiek lan-harremanen arloan sortutako arazoei aurre egin behar dietela, partikularren arteko beste edozein lan-harremanetan bezala. Informazio horren erabilgarritasunaren ondorioz, azkenik, Defentsa Erakundeak kexa "sektore pribatuko" gaitzat hartu beharko litzaketela onartu du.

*CD/05/2007 Eskaera*

**Emakumeek ospitaletan erditzerakoan tratu desegokia jasotzen dutela azaldu du.**

\_\_\_\_\_ andreak adierazitakoaren arabera, seme-alabak ditu, eta ospitale publikoetan emakumeek erditzerako unean jasotzen duten tratua salatu nahi du.

## Erantzuna

Defentsa Erakundearen eskumena da sektore pribatuko sexuagatiko ustezko bereizkeria-jardunbideak eta egoerak aztertzea. Hori jakinarazteaz gain, azaldu zaio kasu honetan ospitale publiko bati buruz ari garenez, Ararteko erakundera jo behar dela kexa jartzeko, sektore publikoko enpresa batean gertatu baita.

*CD/12/2007 Eskaera*

**Aukeraketa Epaimahaiek jarraitu beharreko protokoloa, azterketa- edo proba-datak eta azterketa egin behar duten emakumeren baten erditze-data bat datozenean.**

\_\_\_\_\_ andreak, ordezkari sindikalak, adierazi duenez, haurdun dagoen oposiziogile batek aurreikusi zuen Osakidetza LEPEko azterketa-data (apirilaren 21a) eta aurreikusitako erditze-data bat zetozela. Hortaz, Aukeraketa Epaimahaiko kideek



Osakidetzaren Lan Eskaintza Publikoaren inguruan jarraitu beharreko irizpideari buruzko informazioa eskatu du.

## Analisia

Orain dela gutxi hedabideek ezagutzera eman dutenez (Efe Agentzia, 2007ko martxoaren 17an), Madrilgo Aukeraketa Epaimahai batek oposiziogile batek umea izan zuen La Paz ospitalean azterketa egitea erabaki zuen.

Juridikoki, ez dago horri buruzko erreferentziarik. Beste alde batetik, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak (uztailaren 6ko 6/1989 Legea) ez du egoera hori arautzen. Osakidetzaren Lan Eskaintza Publikoaren oinarri arautzailek ere ez dute antzeko egoerarik aurreikusten. Praktikan, beraz, Epaimahaiak erabakiko du jarraitu beharreko prozedura.

Orobat, kontsultaren aplikazio-eremuari dagokionez, Osakidetza/Euskal Osasun Zerbitzuak izaera publikoa edo pribatua duen aztertu da. Maiatzaren 19ko 10/1998 Legearen bitartez sortu zen Osakidetza/Euskal Osasun Zerbitzua, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-zerbitzu publikoak kudeatzeko eta osasun-zerbitzuak programatzeko eta kontrolatzeko bere eskumenaren barruan. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako osasun-zerbitzuak kudeatzeko erakunde autonomo bat sortu zen, erakunde publikoa dena, zuzenbide pribatuaren pean badago ere.

*"Autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetako zentroetan edo osasun-erakundeetan edo Estatuko Administrazio Orokorren osasun-zentro eta zerbitzuetan lan egiten duten estatutupeko langileei aplikatuko zaie"* Osasun Zerbitzuetako Estatutupeko Langileen Estatutu Markoa –abenduaren 16ko 55/2003 Legearen bidez onartutakoa–, aipatutako Estatutuaren 2.1. artikuluan

ezarritakoaren arabera. Halaber, 1. artikuluan ezartzen du langileek "funtzionario-harreman berezia" izango dutela enplegatzailearekiko.

Auzitegi Goreneko Lan-arloko Salak ildo hori berretsi du, zenbait epaitan, hona batzuk: 2005eko abenduaren 16koa (R.39/2004 [RJ 2005, 7821]; R.199/04 [RJ 2006, 533]); urte bereko eta hilabeteko bereko 21ko beste bat: R.164/05 (RJ 2006,1793); eta beste zenbait, zeinen artean 2007ko martxoaren 28koa nabarmentzen baitugu (RJ 2006,1074). Horien arabera, osasun-zentroetako eta erakundeetako estatutupeko langileen eta euren enplegatzaileen arteko harreमतatik ondorioztatutako kontuak eztabaidatzen direnean, lan-arloko jurisdikzioak ez du horren gaineko aginpiderik, langile horiek funtzionario-estatusa dute eta.

Orobat, RJ 2005, 7821 epaiak ezarritakoaren arabera argi geratzen da "55/21003 Legearen bidez indargabetuta geratzen dira bertan ezarritakoaren kontra dauden edo kontrakoa esaten duten xedapen guztiak". Horrenbestez, langile horien auzi batzuetarako salbuespenez jurisdikzioaren lan-arloko adarrari aginpidea ematen zion araua indargabetutzat jotzen da, eta, horrenbestez, dagokion autonomia-erkidegoko osasun-erakundeetako langileen "funtzionario-harreman bereziak" Administrazio Zuzenbideko arauak bete behar ditu.

## Erantzuna

Aurkeztutako kasuan, eta aztertutako jurisdikzioaren arabera, gai horren eskumena Ararteko erakundeak du, sektore publikoko jarduera espezifikoak baita.

*CD/14/2007 Eskera*

**Aukeraketa-epaimahaiek jarraitu beharreko argibideak, azterketa- edo proba-datak eta azterketa egin behar duten emakumeren baten erditze-data bat datozenean.**

\_\_\_\_\_ jaunak azaldu duenez, Euskal Herriko Unibertsitateko \_\_\_\_\_ Fakultatean, ikertzeko gaitasunaren proba datorren urrian egitekotan daude. Ikasle bat haurdun dago, eta egun horietan umea izango duela aurreikusten du. Aipatu epaimahaiko presidente \_\_\_\_\_ jaunak galdetu du ea aukera dagoen emakume horri soilik azterketa egiteko, egoera berezia dela-eta.

### **Analisia eta Erantzuna**

Orain dela gutxi hedabideek ezagutzera eman dutenez (Efe Agentzia, 2007ko martxoaren 17an), Madrilgo Aukeraketa Epaimahai batek oposiziozile batek umea izan zuen La Paz ospitalean azterketa egitea erabaki zuen.

Juridikoki, ez dago horri buruzko erreferentziarik. Beste alde batetik, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak (uztailaren 6ko 6/1989 Legea) ez du egoera hori arautzen.

Aurkeztutako kasua eta unibertsitate publiko bat denez, kontsulta honen azterketaren eskumena Arartekoari dagoko.

*CD/20/2007 Eskaera*

**Udal bateko teknikari batek azaldu du beste erakunde publiko bateko gizonezko teknikari batek emakumea izateagatik laidotu duela lan-bileretan.**

\_\_\_\_\_ andreak, arkitektura- eta hirigintza-alorretan udal-teknikari lanetan dihardu; hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko teknikariek lan-bilerak izaten ditu. Adierazi duenez, gehienetan lan-harremanetarako ordezkariak gizonezkoak izaten dira. Hala ere, izandako azkeneko bi bileretan, erakunde horretako teknikari batek laidotu egin duela azaldu du, gizonezkoa izango balitz egingo ez lituzkeen berbak eginez. Ondorioz, irainduta sentitzen da.

## Erantzuna

Hau jakinarazi zaio: Defentsa Erakundearen eskumena da sektore pribatuko sexuagatiko ustezko bereizkeria-jardunbideak eta egoerak aztertzea. Kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eremuan gertatutako egoera denez, kexa bat jartzeko Ararteko erakundera jo behar da, sektore publikoko enpresa batean gertatu baita.

Era berean, jakinarazi zaio Eusko Jaurlaritzak "Zuzenean" Herritarrentzako Arreta Bulegoa duela, Jaurlaritzaren jardunbideei buruz erantzuteko, eta horren telefonoa eta harremanetarako pertsonaren berri eman.

*Erantzundako kontsultak (C)*

*C\*/02/2006 Eskaera*

**Iturgingen gremioan sartzeko eskaera ez onartzea.**

\_\_\_\_\_ andreak azaldu duenez, iturgingen gremioan sartzeko eskaera onartu ez dutela eta bereizita sentitzen da.

## Erantzuna

Hau jakinarazi zaio: Defentsa Erakundearen eskumena da sektore pribatuko sexuagatiko ustezko bereizkeria-jardunbideak eta egoerak aztertzea. Era berean, Defentsa Erakundeak aurkeztutako ustezko sexuagatiko bereizkeria-egoerari buruzko ikerketa-prozedura hasteko informazioa eman zaio, bai eta kexa bat formalizatzeko proposamena egin ere.

*C\*/03/2006 Eskaera*

**Konparaziozko bidegabekeria, gizonezkoen aldean komunikabideek emakumezkoen kirolari eskaintzen dioten denbora eta espazioa direla-eta.**

\_\_\_\_\_ andreak, goi-mailako lehiaketako emakumezkoen saskibaloitalde baten arduradunak, adierazi du ez dagoela ados komunikabideek antzeko ezaugarriak dituzten gizonezkoen taldeen aldean emakumezkoen taldeei eskaintzen dieten informazioaren iraupenean eta espazioan dagoen konparaziozko bidegabekeriarekin. Era berean, emakumezkoen eta gizonezkoen taldeen artean laguntza eta diru-laguntza publikoak jasotzeari buruzko desberdintasunak azaldu ditu.

### **Erantzuna**

Jakinarazi zaionez, Defentsa Erakundeak, bere antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituen araudiari jarriki, sektore pribatuan sexuagatiko ustezko bereizkeriagatik ikerketa-prozedura has dezake; betiere, kexa edo salaketa batetik abiatuta.

Laguntzen eta diru-laguntzen inguruan ustezko bereizkeria dela-eta kexa bat jartzeko Ararteko erakundera jo behar da, sektore publikoa baita soilik gai horretarako eskumena duena.

*C\*/04/2006 Eskaera*

**Emakumeen elkarteek konfederazio batean sartzeko zailtasunak azaldu dituzte.**

\_\_\_\_\_ Elkartearen Federazioko lehendakariak sektore horretako konfederazioan elkarte gisa sartzeko dauden mugak azaldu ditu. Izan ere, Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetako antzeko erakundeek ez dituzte muga horiek.

## Erantzuna

Hau jakinarazi zaio: Defentsa Erakundearen eskumena da sexuagatiko ustezko bereizkeria-jardunbideak edo egoerak aztertzea sektore pribatuan. Era berean, Defentsa Erakundeak aurkeztutako gaiari buruzko ikerketa-prozedura hasteko arrazoiak eta argudioak biltzen dituen kexa jarri beharko da. Horren inguruan Maiatzean izandako bileran horri buruzko informazioa eman zen. Haiek beren aldetik Defentsa Erakundearen kexa formal bat jarriko dutela adierazi dute.

*C\*/10/2006 Eskaera*

**Lan-merkatuan sartzekoan sexuagatiko bereizkeria jasan omen du.**

\_\_\_\_\_ andrea, ama izan arte inoren kontura lan egin duen langilea, egun lan bila dabil, bere seme-alabek ez baitute etengabe amarekin egoteko beharra. Azaldu duenez, sexuagatik baztertu dutela eta lanpostu bat izateak dakartzkion etengabeko galarazpenen eta zailtasunen ondorioz tratatu txarrak hartu dituela sentitzen du.

## Erantzuna

Defentsa Erakundearen eskumena da sektore pribatuko sexuagatiko ustezko bereizkeria-jardunbideak eta egoerak aztertzea. Horrez gain, jakinarazi zaio Defentsa Erakundearen lanposturen bat eskuratzekoan sexuagatiko bereizkeria izan den ikertzen has dadin, kexa bat jarri behar dela, arrazoiak eta argudioak azalduta.

*C\*/13/2006 Eskaera*

**Sexuagatiko bereizkeria lanbide-kategorian.**

\_\_\_\_\_ andreak bere enpresaren egoera azaldu du, lankide gizonezkoekin konparatuta, haren ustez, emakumeen kontrako bereizkeria-egoerak ematen baitira. Zehazki, bere lanbide-kategoria bere funtzio berdinak egiten dituzten gainontzeko

lankide gizonezkoen aurrean, beheragoko maila batean dagoela erreklamatu nahi du. Abokatu batek aholkuak ematen ari da, eta arazoa PRECOko bulegora eraman du, bitartekotza-lanak egin daitezten.

## Erantzuna

Defentsa Erakundearen eskumena da sektore pribatuko ustezko sexuagatiko bereizkeria-jardunbideak edo egoerak aztertzea. Horrez gain, jakinarazi zaio Defentsa Erakundea aurkeztutako egoerari buruzko ikerketa-prozedura hasteko kexa jarri beharko dela, arrazoiak eta argudioak azalduta. Halaber, kexa formala aurkezteko moduaren berri eman zaio.

*C\*/16/2006 Eskaera*

**Bizkaiko hainbat kontserba-enpresetako emakume enplegatuek bereizkeriazko tratua jasotzen dutela adierazi dute.**

Bilera bat egin da 12 pertsonekin, haiek eskatuta; horien artean, Bizkaiko Lurralde Historikoko kontserba-industriako hainbat enpresekin hasitako gatazka kolektiboan –greban– zuzenean parte hartu duten sektore horretan diharduten emakumeekin eta euren ordezkari sindikalekin, hau da, lan-harremanen esparruan berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren eskubidea bermatzea xede duten pertsona juridikoekin.

Soldatari, igoerari eta kontratazioari dagokionez ustezko bereizkeria-egoerak azaltzeko honako hau deskribatu dute:

- Kontserba-sektorean lanean diharduten pertsonen %95 emakumeak dira.
- Soldata garbiak hilean 700 euro ingurukoak dira.
- Ohiko lanaldia sektorearen beste hitzarmenetan (Estatukoa zein probintzietakoak, Gipuzkoakoa esaterako) zehaztutakoa baino luzeagoa da.

- Sektoreko emakume langileek jasotzen dituzten ordainsariak ez dira gizonek jasotzen dituzten berdinak. Izan ere, emakume langileak beherago dauden kategoria-profesionalei atxikita daude, nahiz eta askotan antzeko funtzioak edo berberak egiten dituzten.
- Bizkaiko kontserba-industrian zerbitzuak ematen dituzten emakume gehienek iraupen mugatuko kontratuak dituzte.
- Emakumeen kasuan ez dago igoyerarik hitzarmenean zehaztutako kategoria-profesionalen barruan.
- Guztiak familia-enpresak dira, herri txikietan kokatutakoak.
- Antolaketa-funtzioak edota diziplinako erabakiak despotismoaz hartzen dira, oro har emakume langileren bati eskuordetzen zaizkio.

## Erantzuna

Defentsa Erakundearen zereginen berri eman zaie, eta sindikatuetakoa emakume ordezkariari eta kaltetuei eskatu zaie Defentsa Erakundeari informazioaren berri emateko, eta kexa edo salaketa formalizatzeko, eta bereiziki:

- Zioen adierazpena.
- Kaltetuek enpresarekin sinatutako kontratuen kopiak.
- Kaltetuen nominen kopiak eta, hala badagokio, enpresa horietako lankide gizonezkoen kopiak ere bai.
- Salatutako hitzarmen kolektiboaren kopia, bai eta estatutuez kanpoko beste enpresa batzuetan sinatutako eta lan-errebindikazioak amaitutzat ematen dituzten hitzarmen kolektiboena ere.
- Interesdunek garrantzitsu deritzen kexaren balorazioari eta tramitazioari buruzko bestelako informazioa.

Era berean, sektore pribatuan gertatutako sexuagatiko ustezko bereizkeria dela-eta ikerketa-prozedura hasteko, 119/2006 Dekretuan zehaztutako baldintzak bete behar direla jakinarazi zaie.



Urteko txosten honen itxiera-datan oraindik ez da kexa formalizatu.

*C\*/17/2006 Eskaera*

**Enpresaren aldetik errepresaliak jasan omen ditu legezko zaintzagaratik lanaldia murrizteko eskaera dela-eta.**

\_\_\_\_\_ andreak lan egiten duen enpresaren inguruan aipatu duenez, *“lanaldia murrizteko eskatu zion pertsonak 3 negoziazio posible aurkeztu zizkion: 1) lanaldi osoan orain arteko lanpostuan jarraitzea; 2) lanpostua uztea eta kalte-ordaina jasotzea; eta 3) lanaldia murrizteko aukera ematea orain arteko baino kategoria txikiagoko lanpostu batean. (...). Ni enpresako kategoria txikieneko postuan ari naiz lanean, baina murrizketa eskatzerakoan nire etxetik edo egun lan egiten dudan lekutik urrun bidaltzen banaute, zer egin dezaket? Nola aurkez dezaket errekurtsua? Horrela jardun dezake enpresak?”.*

### **Erantzuna**

Eskaera bat bideratzeko 119/2006 Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dituela jakinarazi zaio. Era berean, ikerketa-prozedura has dadin kexak izan behar dituen elementuak zehaztu zaizkio; hona:

- Kexa edo salaketa zeinek egin duen identifikatzeko datuak (...). Era berean, kexa Defentsa Erakundera sinatuta bidali behar da, egiazkoa den jakiteko.
- Kexaren edo salaketaren arrazoia, hau da, Defentsa Erakundeari eskaera egiteko zioaren deskribapen zehatza, eta agiri bidezko frogak edo ikerketa-probak egiteko proposamena.
- Noren aurka jarri den kexa, enpresaren izena eta helbidea barne.

*C\*/19/2006 Eskaera*

**Emakumeek elkarte gastronomikoetara sartzeko duten ordutegia.**

\_\_\_\_\_ andreak bere familia kide duen txoko gastronomikora sartzeko gaur egun emakumeek duten ordutegi-muga (larunbat, igande eta jaiegunetan baino ez dute sartzerik) dagozkion estatutuetan aldatzeko informazioa eskatzen du, zehazkiago jakin nahi du emakumeak txokoetara bereizkeriarik gabe sartzera behartzen duten aldeko epaiei buruz, eta, bestetik, zein lege hartu beharko lukeen oinarri emakumeen erabateko partaidetza mugatzen duen jardute hori errotik kentzeko.

## Erantzuna

Idatziz adierazi zaio Defentsa Erakundearen zereginen artean *"arlo pribatuan sexuaren zioz sortutako bereizkeria-egoeretan herritarrei aholkularitza eta laguntza ematea"* dagoela.

Era berean, aholku-eskeari dagokionez jakinarazi zaio ordenamendu juridikoak, Konstituzioaren (14. artikulua) zen 4/2005 Legearen bidez, sexuagatiko edozein bereizkeria debekatzeko duela. Era berean, honako hau zehazten du oinarri nagusietan: *"debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzeneko zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era (...)".*

Ikerketak egitea, negozio-bideak ematea eta gomendioak zuzentzea Defentsa Erakunde honen eskumena dela jakinarazi zaio. Zentzu horretan, Legeak ezartzen duenaren arabera, *"Sexuagatiko bereizkeria jasaten duela uste duen edozein pertsonak edo pertsona-taldek, edo horiek modu legitimoan ordezkatzeko dituztenek, kexa aurkez dezakete Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen".*

Eta gehitzen duenez, "funtzio hori betetzeko kexa bat jarri nahi duen pertsona orok Defentsa Erakundeari datu pertsonalak (izena, abizenak, helbidea, telefonoa), dokumentu baliagarrien kopiak eta, ahal den heinean, kexaren zioa azaltzen duen idazkia ere emango dizkio. (...)". Era berean, postaz, posta elektronikoz edo zuzenean bidali beharko da.

*C\*/20/2006 Eskaera*

### **Emakumeak elkarte gastronomikoetara sartzeko ordutegi murriztailea.**

\_\_\_\_\_ jaunak azaldu duenaren arabera, emakumeak asteburuetan eta jaiegunetan soilik sar daitezkeen Bilboko elkarte gastronomiko bateko kide da. Aipatu duenez, Batzarrean hainbat alditan muga hori kentzeko beharra proposatu du. Hala ere, orain arte ez du inolako aldeko emaitzarik jaso. Arazo horren bideragarritasunari buruzko informazioa eskatu du.

### **Erantzuna**

Defentsa Erakundearen eskumena da sektore pribatuko ustezko sexuagatiko bereizkeria-jardunbideak edo egoerak aztertzea. Horrez gain, jakinarazi zaio Defentsa Erakundea aurkeztutako gaiari buruzko ikerketa-prozedura has dadin, kexa bat jarri behar dela, arrazoiak eta argumentuak azalduta.

Halaber, elkartearen estatutuak bidaltzea eskatu zaio, horiek ikertuko baitira, bai eta emakumeen aurkako muga baztertzaille hori konpontzeko estrategiei heltzeko bilera izatera gonbidatzen ere.

*C/08/2006 Eskaera*

### **Emakumea izateagatik diskriminatuta sentitzen da.**

\_\_\_\_\_ andreak beste entitate batetik igorritako telefono-kontsulta baten bidez azaldu duenez, emakumea izateagatik diskriminatuta sentitzen da. Hala ere, ez du informaziorik ekarri froga edota berariazko jardueri buruz. Hitzordua eman zaio, baina ez da bertaratu, beste lehentasun batzuk badituela argudiatuta.

*C/03/2007 Eskaera*

### **Enpresentzako egiaztatzea edo bereizgarria berdintasunaren arloan.**

\_\_\_\_\_ jaunak galdetu du Eusko Jaurlaritzako erakundeek enpresei Berdintasunerako Legea betetzeagatik edo zehapen-prozesurik ez izateagatik egiaztatzea ematea aurreikusten duten.

#### **Erantzuna**

Defentsa Erakundeak ez du horri dagokion eskumenik. Beste alde batetik, 1994az geroztik, Eusko Jaurlaritzak azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren bidez arautu du "Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna lortzeko Erakunde Laguntzailea" bereizgarria. Horren helburua, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunean aurrera egiteko konpromisoa hartu duten enpresak eta erakundeak aitortzea da.

*C/04/2007 Eskaera*

### **Nagusiaren irainak, lan-kontratua berrituko ez zaiola jakinarazterakoan.**

\_\_\_\_\_ andreak adierazi du nagusiak, lan kontratua berrituko ez zaiola jakinarazterakoan, egindako irainen ondorioz apalduta sentitu dela. Era berean, galdetu du kasu honetan Defentsa Erakundeak jardun dezakeen.

#### **Erantzuna**

Jakinarazi zaio Defentsa Erakundearen funtzioak emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadila sustatzea eta sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoeretan herritarrak defendatzea direla. Hori dela eta, ustezko bereizkeriari buruzko ikerketa-prozedurak garatu ditu. Aipatutako gaiaren

ezaugarriak aintzat hartuta, Defentsa Erakundeak gai hori aztertzeko eskumena ez duela jakinarazi zaio.

*C/08/2007 Eskaera*

**Legezko zaintzagatik lanaldia murrizteari buruzko aholkularitza eskatu du.**

\_\_\_\_\_ andreak 8 urte baino gutxiagoko semea zaintzeagatik lanaldia murrizteko eskaera egin aurretik, familiako bizitza eta lana uztartzearen gaiari buruzko aholkularitza nahi du. Halaber, adierazi du lan egiten duen enpresaren jabeak ez dituela eszedentzia-egoerak, ez eta lanaldi-murrizketak ere onartzen.

### **Erantzuna**

Interesdunarekin bilera bat izan dute Emakumeen eta Gizonen Defentsa Erakundearen egoitzan. Bilera horretan, onartu berri den 3/2007 Lege Organikoak ordenamendu juridikoan ezartzen dituen uztartzearen inguruko aukeren berri eman zaio, bereziki:

- Langileen Estatutuaren 37. artikulua ezartzen du:

Legezko zaintza dela-eta, langileren batek 8 urte bitarteko haurra edo ordaindutako lanik egiten ez duen ezindu fisiko, psikiko nahiz zentzumenezkoren bat bere kargu izanez gero, eskubidea izango du lanaldia murrizteko, zortziren bat gutxienez eta erdia gehienez ere, soldata ere hein berean murriztuta.

Atal honetan jasotako lanaldiaren murriztapena langileen banakako eskubidea da, gizonena zein emakumeena.

Edoskitze-baimena eta lanaldi-murriztapenaren baimena lanaldi arruntean zenbat orduz eta noiz gozatu langileak berak zehaztu beharko du. Langileak

enpresaburuari jakinarazi beharko dio ohiko lanaldiarekin hasiko dela berriz, data hori iritsi baino hamabost egun lehenago.

Ezarritako orduak eta denboraldiak zehaztean, enpresaburuaren eta langilearen artean desadostasunik sortzen bada, eskumena duen jurisdikzioak apirilaren 7ko 2/1995 Lan Prozedurako Legean ezarritakoari jarraiki konponduko ditu.

- Langileen Estatutuaren 46. artikulua ondoko hau ezartzen du:

Langileek gehienez hiru urteko eszedentzia hartzeko eskubidea edukiko dute seme edo alaba bakoitza, berezkoa edo adoptatua izan, zaintzeko.

Atal honetan azaldutako eszedentzia langile guztien, gizon zein emakume, banako eskubidea da. Era berean, iraupena zatikakoa izan daiteke.

Lehenengo urtean, lanpostuaren erreserbarako eskubidea izango du. Epealdi hori igaro ondoren, erreserba lanbide-talde edo lanbide-kategoria bereko lanpostu baterako izango da.

- Lan Prozedurako Legearen 108.2. artikuluan ondoko hau ezartzen da:

Kaleratzea honako kasu hauetan erabat deuseza izango da: (...) Langileen Estatutuen 37. artikulua 4., 4.bis eta 5. atalek zehaztutako baimenak eskatu dituzten langileak, lanaldi-murriztapen baimena barne, edo Langileen Estatutuaren 46. artikuluan ezarritako eszedentzia hartu dutenak.

*C/10/2007 Eskaera*

**Lan-jazarpena jasaten ari dela azaldu du.**

\_\_\_\_\_ andreak 8 urte daramatza lan-jazarpena jasan duelako borrokatzen. Urte eta erdi bajaran egon da lan-jazarpeneren ondoriozko estresak eragindako zirkulazio-

istripua izan ondoren. Auzi-eskea jarri, eta eskaera baietsi zen. Azaldu duenez, lanera bueltatzean mobbing-a nozitzen jarraitu zuenez, laguntza eskatzen du.

## **Analisia**

Ez da sexuagatiko uztezko bereizkeria dagoen edo ez aztertu, hori Justizia Auzitegiei dagokien gaia delako eta Defentsa Erakundeak horren inguruan jarduera mugatua duelako.

## **Erantzuna**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 65.1. artikulua araber, Defentsa Erakundeak ez du bide judiziala hartu duten gaien inguruko eskumenik.

*C/13/2007 Eskaera*

**Laguntza ekonomikoa eskatu du epaia apelatzeko.**

\_\_\_\_\_ andreak laguntza ekonomikoa eskatu du senar ohiari dibortzio-epaian ezarri zaion bisita-hitzarmenaren aurka errekurtsua jartzeko.

## **Erantzuna**

Interesdunak azaldu duenaren araber, ez dago sexuagatiko bereizkeria-arrastorik. Hortaz, jakinarazten zaio Defentsa Erakundeak ez duela gai horretan esku hartzeko eskumena. Era berean, 4/2005 Legearen 65.1 artikuluari jarraiki, Defentsa Erakundeak ezin du esku hartu epai bidez ebatzitako gaia baita. Aditzera eman zaio Doako Justizia eska dezakeela Epaitegiaren Orientazio Juridikoko Zerbitzuan.

*C/16/2007 Eskaera*

### **Laneko eta familiako bizitza benetan uztartzeari buruzko aholkularitza.**

\_\_\_\_\_ andreak enpresa pribatuan familia eta lana uztartzeari buruz galdetu du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa aipatuta. Lanaldi-murrizketa lanaldi arruntan egin ohi den galdetu du, eta, bestalde, jakin nahi du, aparteko lanorduak kobratu beharrean atsedenegun gehiago har ditzakeen.

### **Erantzuna**

Langileen Estatutuaren 37.5. artikuluan ezartzen denaren arabera, lanaldi-murrizketa langileen banakako eskubidea da. Era horretan, 6. atalean langileek ordutegi zehaztua izateko duten eskubidea aipatzen du, eta, ezartzen denez, langileari dagokio haren bere lan-murrizketa zehaztea lanaldi arruntaren barruan.

Aparteko ordui dagokienez, eta lanaldi arruntaren banaketa erregularra edo irregularra den alde batera utzita, aparteko orduak urte-amaieran Hitzarmen Kolektiboan zehaztutako gehienezko ordu-kopurua gainditzen dutenak izango dira. Kasu honetan aplikatzen den enpresa-hitzarmenaren 23. artikulua ezartzen duenez, urteko lanaldia gaindituz egindako orduak oporretako egun-kopurua edo lanaldi trinkoko aldiak handituko ditu, betiere Langileen Estatutuaren 35. artikuluan *a priori* ezartzen denaren arabera:

*"... Hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, banakako kontratuz aukeratu behar da, edo aparteko orduak ordaindu, beti ere finkatutako zenbatekoarekin, baina inola ere ez ordu normalaren balioaren azpitik, edo ordaindutako atsedendia berdintsuekin kitatu. Puntu horretan itunik egon ezik, aparteko orduak egin eta hurrengo lau hilabeteetan atsedendia hartuz kitatu behar direla ulertu behar da".*



### *C/17/2007 Eskaera*

**Bidegabeko kaleratzeak eragindako kalte moralengatik kalte-ordainak jasotzeko aukera.**

\_\_\_\_\_ andreak galdetu du lankide gizonezkoarekin batera kaleratu duten emakumearen kasuan Defentsa Erakundeak jardun dezakeen. Biak modu bidegabean kaleratu dituzte, antza denez, enpresako komunitan batera egoteagatik eta lanpostuan arreta ez jartzeagatik. Pertsona biek uste dute argudioak gezurrezkoak direla eta hirugarren batzuekin gaizki-ulertuak eta harremanetan arazoak egon daitezkeela. Sindikatua bidegabeko kaleratzea aztertzen dabil. Era berean, galdetu du enpresak kaleratzeko emandako arrazoiaren ondoriozko kalte moralengatik kalte-ordainak jasotzeko eskaera egin dezakeen.

### **Erantzuna**

Gertakariak eta bidegabe kaleratutako bi pertsonak gizonezko bat eta emakumezko bat direla aintzat hartuta, ez da sexuagatiko bereizkeriaren arrastorik atzematen. Hortaz, Defentsa Erakundeak ez du demanda horren eskumena.

### *C/19/2007 Eskaera*

**Genero-indarkeria salatzeako Doako Justiziako kasu batean epaileak emandako fakturaren aurkako errekurtsioa jartzeko informazioa eskatu du.**

\_\_\_\_\_ jaunak adierazi duenez, bere neskalaguna \_\_\_\_\_ andreak Ertzaintzaren aurrean genero-indarkeria dela-eta salaketa jartzerakoan, Doako Laguntza Juridikoko zerbitzuak erabiltzeko aukeraren berri eman zioten. Bere ustetan, Ertzaintzak ez zion informazio egokia eman; izan ere, aldeko epaia eman ondoren, abokatuak zerbitzuarengatik faktura egin zion. Informazio falta horren aurka erreklamazioa egiteko laguntza eskatu du.

## Erantzuna

Defentsa Erakundeak Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Erreklamazio zerbitzura jotzea aholkatu dio, han erantzuten eta ebazten baitira abokatuak eskaintako zerbitzu profesionalen ondorio diren herritarren kexak eta erreklamazioak.

### b) Kexak

*Kexa ez onartuak (QI)*

*QI/01/2006 Eskaera*

**Nagusiak emakume bati egindako sexu- eta lan-jazarpena.**

\_\_\_\_\_ andreak \_\_\_\_\_ Elkargo Ofizialean lan egiten du, eta, azaldu duenez, zenbait urte darama nagusiak egindako sexu- eta lan-jazarpena nozitzen. Eskumena duten Auzitegien aurrean dagokion kereila jarri da, eta epai-ebazpenaren zain dago.

## Erantzuna

Ez da kexa onartu 4/2005 Legearen 65.1. artikuluari jarraiki, izan ere, horren arabera, *banan-banan aztertuko pertsonen intimitateari buruzko kexak, ez eta jada epai irmo bidez erabaki direnak edo epaileak oraindik ebazteko dituenak ere. (...)*”.

*QI/05/2006 Eskaera*

**Arazoak familia eta lana uztartzeko ordutegiak direla-eta, enpresek oporren ondorengo txanden hasiera aldatzearen ondorioz.**

\_\_\_\_\_ andreak idatziz eskatu du \_\_\_\_\_ enpresarekin bitartekotza-lanak egiteko, seme adingabea zaintzeari buruzko uztartze-hitzarmena lortzeko. Gurasoek biek adingabea zaintzeko euren enpresekin hitzartutako txandak uztartzen dituzte. Hala ere, bateratze hori aldatzen da beti oporretatik bueltan, enpresa biek berriz hasi

behar duten txanda zehazterakoan irizpide ezberdina jarraitzen dutelako. Aitak lan egiten duen enpresak eskaera kontuan hartzen du, ez ordea, amarenak. Adierazi duenez, bere enpresarekin adiskidetze-jarduera egon den arren, ez dira akordio batera iritzi, eta laster epaiketa egingo da.

## Erantzuna

Ez da kexa onartu 4/2005 Legearen 65.1. artikuluari jarraiki; izan ere, horren arabera, Defentsa Erakundeak *"ez ditu ... aztertuko ... ez eta jada epai irmo bidez erabaki direnak edo epaileak oraindik ebazteko dituenak ere. (...)"*. Era berean, *edozein ikerketa bertan behera geldituko da interesatuak auzitegi arruntean edo Konstituzio Auzitegian salaketa edo errekurtsioa aurkezten badu*".

*Q1/09/2006 Eskaera*

**Lan-aholkularitza batek emakume langile bati legezko zaintzagatik lanaldia murriztea ukatu dio.**

\_\_\_\_\_ andreak azaldu duenez, Langileen Estatutuaren 37.5. artikuluari jarraiki, lan egiten duen enpresari (lan aholkularitza bat) sei urtetik beherako alaba zaintzeko lanaldi-murrizketa eskatu dio. Lanaldi-murrizketa urte batekoa izango da, eta lanaldi hori betetzeko ordutegi xehatua proposatu du.

Enpresak ukatu dio murrizketa, honako hau argudiatuta: *"ezin da eskatutakoa onartu, proposatutako ordutegiaren arabera 2006ko urriaren 16etik eta 2007ko ekainaren 14a bitartean arratsaldeko lanaldian ez baita zerbitzurik egongo. Egoera horrek larriki kaltetzen du enpresaren ekoizpen-jardueraren garapena, hau da, enpresei eta zerbitzu horiek goizean zein arratsaldean eskatzen dituzten gizabanakoei aholkuak ematea eta arreta eskaintzea. Horrek guztiak enpresaren jardueraren garapenean arazoak dakartza, zuk bakarrik guztira 52 enpresen, hots, 453 langileen nominen, aseguru sozialen edo horiek izandako edozein arazoren ardura duzulako.*

Era berean, jakinarazi duenez, auzi-eskea egin du, eta horregatik errepresaliak jasaten ari da.

## Analisia

Sexuagatiko bereizkeria-zantzuak antzematen dira arratsaldean zerbitzurik ez eskaintzeak ekoizpen-jardueraren garapena *larriki kaltetzen* duela argudiatzean. Izan ere, enpresan bezeroen nominak eta aseguru sozialak egiteaz arduratzen den profesionala da. Era berean, kasu hau garrantzi handikoa da beste enpresa batzuei aholkua ematen dien entitateaz ari garelako eta sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-jarduerak biderkatzeko boterea duelako.

## Erantzuna

4/2005 Legearen 65.1. artikuluari jarraiki, Defentsa Erakundeak *“ez ditu banan-banan aztertuko pertsonen intimitateari buruzko kexak, ez eta jada epai irmo bidez erabaki direnak edo epaileak oraindik ebazteko dituenak ere. Era berean, edozein ikerketa bertan behera geldituko da interesatuak auzitegi arruntean edo Konstituzio Auzitegian salaketa edo errekurtsioa aurkezten badu”*.

*QI/12/2006 Eskaera*

**Gizonezkoek soilik osatzen duten elkarte gastronomiko bateko kide ez onartzea.**

\_\_\_\_\_ andreak, 77 urtekoak, anaia hil zitzaionean \_\_\_\_\_ Elkarte Gastronomikoan sartzeko eskaera egin zuen, haren oinordeko bakarra baitzen. Beraz, elkarte gastronomiko batera sartzeko emakume batek egindako eskaera dugu aurrean, elkarteko estatutuek aipatzen duten oinordekotza-eskubidearen eta Konstituzioan jasotako sexuagatiko bereizkeriarik ezaren eskubidearen babesean. Eskaera ukatu zioten. Azpeitiko Epaitegian demanda zibila eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren aurrean apelazioa aurkeztu zituen. Demanda biak epaiaren bidez ezetzi zituzten.

Laguntza ekonomikoa eskatu du Auzitegi Gorenaren aurrean errekurtsioa aurkezteko.

## Analisia

Gaia kontu handiz aztertu da Euskal Autonomia Erkidegoan elkarre gastronomikoak oso garrantzitsuak direlako eta emakumeek berdintasun-baldintzetan parte hartzea murrizteko joera izan ohi dutelako. Era berean, kontuan hartu da Euskal Autonomia Erkidegoan berdintasuna lortzeko garrantzi handiko jarduera dela.

Urteko txosten honetan bereizkeriaren frogei buruzko epaiaren zioa duen dokumentua aipatzea egokia dirudi (Gipuzkoako Probintzia Auzitegia, 3. atala, 232/2006 zenbakia, 2006ko uztailaren 19koa). *“Batzarren presidentek epaiketan gogoz ukatu zuen ezezko emaitza bereizkeriaren ondorio izatea.- Auzitegi honek ezin du Batzarrean kontra bozkatu zuten kideen arrazoiak ikertu.- Datu hauekin Auzitegi hau ez da azkeneko bozketan auzi-jartzaileak/errekurtsogileak ezezko emaitza jasotzea bereizkeriaren ondorio izan zela esatera ausartzen”.*

Horri dagokionez, Auzitegiak ez du bereizkeria egon zen edo ez ondorioztatu, eta ez da egokia erabaki hori hartzeko emandako arrazoiak eztabaidatzea. Hala ere, prozesu-izaerako bermeak gogora ekarri nahi dira, berdintasun-eskubidearen babes judiziala indartzeko. *3/2007 Lege Organikoak* 13.1. artikuluan *Frogari buruz* hauxe dio: *“auzi-jartzailearen alegazioak sexuagatiko jarduera diskriminatzailetan oinarritzen diren prozeduretan, demandatutako pertsonak frogatu beharko ditu hartutako neurrien bereizkeriarik eza eta euren egokitasuna. Aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, organo judizialak, alde batek eskatuta, organismo publiko eskudunen txostena edo irizpena eskatu ahalko du, erabilgarri eta egokituzat joz gero”.*

## Erantzuna

Jasotako informazioa aztertu ondoren, eta, 4/2005 Legearen 64. artikuluari jarraiki, Defentsa Erakundearen jarduera-eremuko gaia dela egiaztatu da: *“arlotu pribatuan sexuaren zioz sortutako bereizkeria-egoeretan aholkularitza eta laguntza ematea herritarrei”*.

Hala ere, aipatutako Legearen 65.1. artikulua araberan, Defentsa Erakundeak ez ditu ondoko kexa hauek aztertuko: *“epai irmo bidez erabaki direnak edo epaileak oraindik ebazteke dituenak ere”*. Izan ere, horrek Defentsa Erakundeak kasu honetan duen esku-hartzea mugatzen duenez, ez da prozedura irekiko.

*01/06/2007 Eskaera*

### **Enpresak haurdun dauden emakumeei egindako bereizkeria.**

\_\_\_\_\_ andreak \_\_\_\_\_ enpresaren aurka kexa jarri du sexuagatiko bereizkeria dela-eta. Langile honek iraupen mugatuko aldi baterako kontratua du, 2007ko urtarrilaren 12an bukatzen dena, Administrazio Departamenduan zereginak metatu direlako. Epealdi batean harrera- eta ordainketa-funtzioak bete ondoren, urrian, zuzendaritzak idazkari ordezkari funtzioak betetzea eta Departamendu Juridikoa eta Saldu Ondorengo Departamendua laguntzea proposatu zion. Horretarako, azaroan prestakuntza-ikastaroa egin zuen. Abenduaren 27an, haurdun zegoela jakinarazi zion enpresako zuzendaritzari. Nahiz eta kexa-jartzaileak lanbidean etorkizun ona izan zezakeela aurreikusi eta erantzukizun handiagoko lanak eman ondoren, urtarrilaren 12an enpresak lan-kontratuaren amaieraren berri eman zion.

Geroago, eskaera babestu duen sindikatuak aldeko epaia izan duela jakinarazi zion Defentsa Erakundeari.

## Analisia

3/2007 Lege Organikoak, bere 13. Xedapen gehigarrian, diziplina-ziozko kaleratze baliogabeak kalifikatzeko kasuen aldaketa arautzen du. Halaber, 2/1995 Legearen (Lan Prozedurari buruzkoa) 108. artikulua aldatu du, diziplina-ziozko kaleratze baliogabeen kasuak gehitzeko. Gehitutako kasu horiek zenbait eskubide erabiltzean jatorria dute: familia eta lana uztartzea helburu duten eskubideak erabiltzean, hain zuzen ere. Ondorioz, kaleratzea baliogabea izango da langilea zenbait egoeratan baldin badago; hona aurreikusitako egoerak:

- Haurdun dauden emakume langileak, kontuan hartuta babesak haurdunaldi osoa hartuko duela, lan-kontratua etenda izan arren, ondoren ezartzen den moduan.
- Hurrengo arrazoiren bat dela medio lan-kontratua etenda duten langileak: amatasuna, aitatasuna, adopzioa, famili harrera, arriskua haurdunaldian edo edoskitzaro naturalean eta aldi baterako ezintasuna, beti ere haurdunaldiak, erditzeak edo edoskitzeak sortzen badu baja medikua.

3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, 13. Xedapen gehigarrian, 2/1995 Legearen (Lan Prozedurari buruzkoz) 108. artikuluari atal berri bat gehitu dio, eta, horren arabera, *"amatasuna, famili harrera, adopzioa edo aitatasuna dela-eta lan-kontratua etenda izan duten langileak lanera itzuli eta kanporatuak direnean, kaleratzea baliogabea izango da, beti ere haurra jaio, harreran hartu edo adoptatu zenetik bederatzi hilabete baino gehiago igaro ez badira"*.

Ohikoa da bereizkeria edo oinarrizko eskubideren baten urraketak legezkotasun-itxurarekin agertzea, eta horregatik, hain zuzen, zailtasun handiak izaten dira bereizkeria-egoerak frogatzeko. Jurisprudentzia Konstituzionalak (38/1981 ST) lan harremanetan frogatu beharraren karga nori dagokion ezarri du. Hori dela-eta, enpresari baten egintzak oinarrizko eskubideren bat urratzen duen zantzurik badago, enpresariari dagokio frogatzea bere erabakia arrazoizkoa dela eta ez duela izan eskubiderik urratzeko asmorik. (41/2006 ST).

Horren harira, 3/2007 Lege Organikoaren 13. artikulua ezarri berri duenez, *"prozedura batean, auzi jartzaileak oinarritzen baditu alegazioak sexuagatiko bereizkeria-egintzetan, demandatuari dagokio frogatzea bere erabakiak ez direla sexu-bereizkeriaren zioetan oinarritzen eta guztiz proportzionalak direla"*.

Demandatuak frogatu behar du bere erabakiak oinarritzko eskubideak urratzearekin zerikusirik ez dutela. Beraz, frogatu behar du erabakia hartzeko arrazoiak legezkoak direla edo, horrela ez balitz ere, oinarritzko eskubideak urratzeko helbururik ez duela izan. Demandatuak harturiko erabakia arrazoizkoa eta proportzionala dela argi utzi beharko du eta ez duela zerikusirik oinarritzko eskubideak urratzearekin.

Horrek guztiak ez du esan nahi oinarritzko eskubideak urratzeko asmorik ez dela egon esatea nahikoa denik, demandatuak, aldiz, erabaki hori hartzera behartu duen benetako lan-arrazoia dagoela frogatu behar du. Azken finean, langilearen sexua edozein izanda ere, enpresariak egiaztatu behar du erabaki berdina hartuko zuela edozein kasutan.

## **Erantzuna**

Kexa ez da onartu, 4/2005 Legeak, bere 65.1. artikuluan arautzen duenez, Defentsa Erakundeak ez dituelako aztertuko epai irmo bidez erabaki diren kexak edo epaileak oraindik ebazteke dituenak ere.

Esparru honetan, Defentsa Erakundearen lana azpimarratu nahi da, 4/2005 Legeak, 75. artikuluan dioenez, *"Defentsa Erakundea eskuduna da Lan Prozedurari buruzko Legeko 95. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako irizpideak emateko"*. Lan Prozedurari buruzko Lege horrek dioenez, prozedurak sexu-bereizkeriaren arazo batek sortzen badu, epaile edo Epaimahaiak dagokion organo publiko eskudunaren irizpidea eskatzerik badu. Beraz, irizpide horiek emateko organo eskuduna Defentsa Erakundea da, beti ere bere eskumen esparruan, hau da sexuagatiko bereizkeria-egoerak ematen direnean.



Era berean, 3/2007 Lege Organikoaren 13. artikulua ezartzen duenez, prozedura batean auzi-jartzaileak alegazioak sexuagatiko bereizkeria-egintzetan oinarritzen baditu, organo judizialak, alderen batek eskatuta, erakunde publiko eskudunen irizpide edo txostenak eska ditzake". Erakunde publiko eskudunen artean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea dugu.

*QI/07/2007 Eskaera*

**Udaltzain etxeko bi langileek jasandako tratu-ezberdintasuna eta ustez bereizkeriazkoa.**

\_\_\_\_\_ sindikatuak, \_\_\_\_\_ Udalean bi langileen egoera azaltzen duen idazkia aurkeztu du. Langileek Udaltzaingoaren administrazio-arloan dihardute eta diziplinako espediente batekin mehatxatu dituzte euren lankide gizonezkoen aldagela zein komun berak erabiltzera derrigortzeko. Horrela ez bada, udaletxeko sotoko gelak aldagela gisa erabiltzeko esan diete. Era berean, Laneko Segurtasuneko udal teknikariak zein Laneko eta Gizarte-Segurantzako Ikuskaritzak gela horiek gabezia larriak dituztela esan dute. Egoera honen aurrean, Defentsa Erakundearen babesa eskatu dute. Dagozkion Auzitegien aurrean beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dute.

## **Erantzuna**

4/2005 Legearen 65.1. artikuluari jarraiki, Defentsa Erakundeak ez ditu aztertuko epai irmo bidez erabaki diren edo epaileak oraindik ebazteko dituen kexak. Halaber, kexa horri dagokion eremua sektore publikoa denez, Arartekoak aztertu behar du aurkeztutako egoera. Sindikatuak aldeztu aurretik erakunde honi egoeraren berri eman zion.

**Zuzentze-aldian dagoen kexa**

*Q/11/2007 Eskaera*

### **Enpresa batek haurdun dauden emakumeei egindako bereizkeria.**

\_\_\_\_\_ sindikatuak \_\_\_\_\_ enpresaren aurkako kexa jarri du. Horretarako, Defentsa erakundeari aipatutako enpresak bereizkeriazko kontratazio-politika egiten duela jakinarazi dio. Izan ere, ez ditu haurdun dauden emakumeak kontratatzen edota ez die umea izango duten emakumeei kontratua berritzen.

### **Analisia**

Eskaera honi dagokion analisi juridikoaren baliokidea da QI/06/2007 eskaeran egindako azterketa, 3/2007 Lege Organikoak, Lan Prozedurari buruzko Legean egindako aldaketak aplikagarri direlarik.

### **Zuzentzeke**

15. artikulua f) atalari jarriki, ez dira kexak onartuko *“kexa aurkezteko eskakizunen hutsak konpontzeko eskatzen diren datu edo agiriak epearen barruan aurkezten ez badira”*. Horregatik, \_\_\_\_\_ sindikatuak Defentsa Erakundean aurkeztutako idazki honetan ezarritako formazko hutsa zuzentzearen zain daude.

### ***Kexa onartuak (QA)***

*QA/11/2006 Eskaera*

**Gizonezkoek soilik osatzen duten elkarte gastronomiko bateko kide ez onartzea.**

\_\_\_\_\_ andrearen, \_\_\_\_\_ (Araba) bizi denaren, aita hil da, eta, elkarte horren estatutuek adierazitako oinordetza-onarpenaren babesean, \_\_\_\_\_ elkarte

gastronomikoko kide izatea eskatzen du, aitak utzitako lekua betez. Kexaren zioa kide izateko onartu ez dutela da, sexuagatiko bereizkeria-jarduera dela uste baitu.

## **Analisia**

Defentsa Erakundeak uste du sexuagatiko berdintasun-printzipioa ez betetzearen zantzuak daudela, eta, horrenbestez, dagokion ikerketa-prozedura hasteko erabakia hartu du.

## **Egoera**

Txosten hau amaitzerakoan, ikerketa entzunaldiaren izapide-aldian dago, aldeek espedientea ikus dezaten eta, 15 eguneko epean, egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin eta agiriak edo beste elementuak aurkez ditzan, bere deskargurako edo gertakariak argitzeko.

*QA/14/2006 Eskaera*

**Legezko zaintzagatik lanaldia murrizteko ordutegia zehazteko zailtasunak.**

\_\_\_\_\_ andreak erakunde honen aurrean kexa-idazkia jarri du, lan egiten duen enpresari 2007ko egutegiko lanaldi murriztuari dagozkion orduen proposamenari buruz erantzunik jaso ez duelako. Etxebarriko (Bizkaia) Zubia Editorial SL enpresan egiten du lan (Prisa taldeko Santillana Ediciones SL enpresaren menpe dagoen argitaletxea).

Eskatzaileak 1998az geroztik zuzendaritza-departamenduan laguntzaile tituludun dihardu, eta, egun, administrazio-lanak egiten ditu. Ama da, 3 eta 9 urte bitarteko lau seme-alabena, eta legezko zaintzagatik lanaldi murriztua du, laneko eta familiako bizitza uztartzeko. 2006ko ekainean alargundu zen, eta, irailean, lanorduak zehazteko 2007. urteko egutegiaren proposamena aurkeztu zion nagusiari. Zubia Editorial SL argitaletxea Santillana argitaletxearen eskumendeko enpresa denez,

nagusiak Santillana argitaletxeak Madrilen duen Giza Baliabideen Departamenduaren Zuzendaritzara jotzeko esan zion. Nahiz eta langileak 2006ko urrian egutegirako proposamena aurkeztu, 2006ko azaroaren 28an kexa jarri zuenean, ez zuen ez enpresaren ez eta Giza Baliabideen Zuzendaritzaren aldetik erantzunik jaso. Hortaz, kexa jarri du, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeari aholkua eta bere kasuan bitartekotza-lanak egitea eskatu dio.

## Analisia

Legeari jarraiki, langileak legezko zaintzagarik lanaldia murrizteko eskubidea du, eta enpresak hori bete egin behar du. Langileen Estatutuaren 37. artikulua (abenduaren 3ko 39/1999 Legearen 2. artikulua bidez, familiagarik lanaldia murrizteari buruzkoa, aldatua) ezartzen duenaren arabera, “ (...) lanaldi arruntean, lanaldi-murrizketa zenbat orduz eta noiz gozatu langileak berak zehaztu beharko du”.

Emakume den langile honek azaldutako arazoa enpresaren aldetik lanaldi murriztua moldatzeko bere proposamenaren inguruko erantzuna jaso ez izatearen ondoriozko defentsa-gabezia da. Enpresak ez erantzuteaz gain, Santillana argitaletxeak Madrilen duen Giza Baliabideen Departamenduan azaltzea esan dio. Kexa jarri zen datan Defentsa Erakundeak ez zuen Lege Aholkularitzan ziharduen langilerik. Hala ere, egutegiaren inguruan bitartekotza-lanak egiteko jasotako eskaria eta interesdunak erantzuna jasotzeko premiaren beharra zirela-eta (abenduaren 21ean ez zuen enpresaren aldetik oraindik erantzunik jaso), Defentsa Erakundeak gomendio bat bidali zien Zubia Editorial argitaletxeari zein Santillana Educación SL enpresaren Giza Baliabideen Departamenduari. Aipatu gomendioa 2006ko abenduan igorri zen, honelaxe idatzita:

## Gomendioa

*Ahalik eta arinen interesdunari idatziz adieraztea lanaldi murriztuari dagokion 2007ko egutegia moldatzeko bere proposamena onartu dela. Horren zioa, laneko eta familiako bizitza uztartzea erraztea da, baita bere enpresak, praktikan, emakumeen eta gizonen bizitza-profesionalean izan daitezkeen bereizkeria-egoerak zuzentzen laguntzea ere.*

## Gomendioa betetzea

Defentsa Erakundeak proposatutako gomendioaren aurrean, Editorial Santillana argitaletxearen Madrilgo Giza Baliabideen Departamenduko zuzendariak idatziz erantzun dio. Besteren artean, honako hau jakinarazi du:

*“... \_\_\_\_\_ andrearen eskaera lanaldiaren orduak bi herenenetan murriztean oinarritzen da. Era berean, eskaera arretaz aztertu egin zen, aipatutako guztientzako atsedenaldiez gain, iraupen luzeko beste atsedenaldi batzuk ere bazirelako. Gainera, langilearen lanpostua eta betetzen dituen funtzioak aintzat hartuta, enpresaren antolakuntzaren funtzionamendu ona eta egokia kaltetzen ditu (ezin ahantz daiteke, Zubia argitaletxeak lan-kopuru handia duten epeak dituela).*

*“... Joan den 22an goizean, ordutegi pertsonalaren eskaera zati batean onartu zen. Hala ere, jakinarazi zitzaion ezin zela guztiz onartu atsedenaldi-egun batzuk enpresarentzako jarduera oso handiko eta garrantzitsuko aldiekin bat egiten zutelako. Halaber, eskatu egin zaio, zuzeneko nagusiarekin lankidetzan eta adostasunean, enpresa-jardueraren funtzionamendu egokia larriki kaltetzen ez duen beste proposamen bat aurkez dezala. Ulertuko duzun moduan, gure gogorik onena zure eskaria erantzutea da, baina, jakina, enpresaren jardueraren une gorenetan izan beharreko antolakuntza egokia arriskuan jarri gabe”.*

Ondoren, 2007 maiatzean hartutako erabakiei buruz enpresari galdetu zitzaion, eta, hark emandako erantzunaren arabera, *“elkarren arteko emakiden ondoren, bere garaian (abenduan), 2007ko ordutegi murriztua zehazteko akordio batera heldu ginen. Aurrera eraman dugu eta orain arte, ez du zailtasunik izan”*.

*QA/18/2006 Eskaera*

### **Ustezko bereizkeria kirol-elkarte batean erabakiak hartzeko prozesuetan.**

\_\_\_\_\_ jaunak Defentsa Erakundearen egoitzan aurkeztutako idazki baten bidez, erakunde honen babesa eskatu du Gasteizko Klub Nautikoan erabakiak hartzerakoan ustezko bereizkeria-egoerari dagokionez.

*“Gasteizko Klub Nautikoa kirol-elkartea den heinean, otsailaren 14eko 29/1989 Dekretuaren manuei jarraiki egin dira Estatutuak. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Elkartearen Erregistroan izena eman zuen 1988ko ekainaren 20an (1408 zenbakia).*

*... Aipatutako estatutuaren 11. artikulua eta 11. artikulua eta 11. artikulua azalduz, bazkide titularren eskubideak jasotzen dira, hala nola, E) “Batzar Nagusiak egindako bilkuretara joatea, hitz eta botoarekin” eta H) “Era berean, bazkide titularren ezkontideak eta 18 urtetik gorako seme-alabak batzarretan hitza bai, baina botorik ez dute izango.*

*... Bazkide titularren %98 gizonezkoak direnez, emakumea, ezkontidea den heinean, batzar orokorrak hartzen dituen erabakiei buruzko iritzia emateko eskubidea baino ez du, ezin du famili unitatearen ordezkari gisa bozkatu.*

*... Emakumeak esparru guztietan, publikoan zein pribatuan, eta Gasteizko Klub Nautikoan parte-hartze handiagoa izatea ez da salbuespena, beraz, errol tradizionalak ez dira muga izan behar”.*

## Analisia

Bidalitako agiriak, Gasteizko Klub Nautikoaren Estatutuak, aztertu dira, eta ez da zuzeneko bereizkeria-zantzurik antzeman. Era berean, Estatutuek ez dute indarrean dagoen tratu-berdintasunaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren inguruko legeria berariaz urratzen.

Hala ere, Gasteizko Klub Nautikoan emakumeek ezkontide onuradun bezala parte hartzeak, hitzik eta botorik gabe, zeharkako sexuagatiko bereizkeriatzat jotzen da, 4/2005 Legearen 3.1.b). artikuluari jarraiki: *"zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean"*.

Erakunde honek, Defentsa Erakundea arautzen duen 119/2006 Dekretuaren 18. artikuluari jarraiki, hau adierazi dio Gasteizko Klub Nautiko Elkartearen Zuzendaritza Batzordeari:

## Gomendioa

*Gasteizko Klub Nautikoa elkartearen estatutuen IX. artikulua aldatzea. Era horretan, ezkontideek, izatezko bikoteek eta adin nagusiko seme-alabek bazkide zenbakia izan dezakete aurretik ezer egin gabe. Helburua emakumeen partaidetza zuzendaritzako organoetan zein elkartearen erabakiak hartzeko prozesuetan bermatzea da; betiere, zuzeneko ahaidea izateagatik kuotan izandako hobaria mantenduz, orain arte egin den moduan.*

*XI artikulua H atalaren idazketa aldatzea. Horretarako, ezkontideei egiten zaien aipamena kenduko da Klubaren erabakiak hartzeko prozesuetan, jasotako*

*informazioaren arabera praktikan ematen den emakumeen aurka egun dagoen bereizkeria desagertu dadin.*

*Klubaren estatutuen idazketa aldatzea, hau da, hizkuntzaren erabilera sexista kentzea eta elkartean emakumeen agerpena eta partaidetza jasotzea.*

### **Gomendioak betetzea**

Bidalitako gomendioaren jarraipenerako interesdunarekin telefonoz izandako elkarrizketaren arabera, txosten honen amaiera-aldian, Estatutuak aldatuta zeuden Defentsa Erakundearen gomendioei jarraiki, eta Eusko Jaurlaritzako Elkartean Erregistroak aldatuta hori onartzearen zain.

*QA/09/2007 Eskara*

**Zehapen espedientea, legezko zaintzagarri lanaldia murrizteko eskubidearen babesean, inbentarioa egitera ez joateagarri.**

\_\_\_\_\_ andreak, \_\_\_\_\_ Merkataritzako langileak, sei urte baino gutxiagoko semea zaintzeko legezko zaintzagarri lanaldia murrizteko eskubidearen babesean, hau azaldu du: 2006ko uztailaren 15a eta 17a bitartean enpresaren iragarki-oholean uztailaren 24eko gauean inbentarioa egin behar zela jarri zuten. Nagusiekin izandako hainbat elkarrizketatan langileak behin eta berriz jakinarazi zuten ordu horietan ezin izango zela agertu, legezko zaintzagarri, eta batez ere 15 egun lehenago ez ziotelako lan-egoeraren funtsezko aldatetaren berri eman, familia eta lana uztartu ahal izateko Legeak ezartzen duen moduan. Uztailaren 24eko gauean inbentario egitera joan ezenez, enpresako zuzendaritzak zehapen-espediente bat ireki dio.



## Analisia

Legezko zaintzagatik lanaldia murriztea langileen funtsezko eskubidea da, eta eskubide hori haustea sexuagatiko bereizkeriatzat har daiteke. Izan ere, urtarilaren 15eko 3/2007 zenbakia duen Konstituzio Auzitegiaren epaiak hau dio: *"legean ezarritako gurasoentzako baimenen bat ukatzeak langileen sexuagatik diskriminatua ez izateko eskubideren urraketan izan dezakeen eragina..."*.

Horregatik guztiagatik Defentsa Erakundeak, 4/2005 Legeari eta 119/2006 Dekretuari jarraiki, ikerketa-prozedura hastea erabaki du. Helburua alderdi interesdunak adierazitako gertaerak argitzea da, bai eta langilearekin sexuagatiko ustezko bereizkeria izan den aztertzea ere.

## Egoera

Txosten hau amaitzerakoan, ikerketa-prozedura hastea erabaki ondoren, alderdiei jakinarazi zaie.

### c) Salaketak

*D/06/2006 Eskaera*

**Barraka baten aurkako salaketa, emakumearen irudia kaltetzen duten irudiak dituzten apainketa-etaulak erakusteagatik.**

Bizkaiko Emakume Asanbladak eta Mamiki konpartsak Bilboko jaietan (2006) Etxebarria parkean "Izuaren Etxea" izeneko barrakak erakutsitako apainketa salatu dute. Izan ere, barrakaren apainketa-tauletan honelako irudiak agertzen ziren: Erdi Aroko jantziak daramatzaten gizon txanodunek emakumeak torturatzen.

## Analisia

Bilboko Udaleko Kultura Sailak aztertu zuen kontu hau, eta, jakinarazi zuenez, Protokolo bat erabiltzen du, aisialdiarekin eta ikuskizunekin loturiko ekintzak garatzeko baimenak eman aurretiko informazioa biltzeko. Kasu honetan, Euskadiko Ferietako Langile Autonomoen Elkarteak (AFADE) Bilboko Udalak feriak eta barrakak jartzeko emandako baimenaren titularra zen, baina ez zuen erabili.

Hau dio 4/2005 Legearen 26. 2 artikulua: *"debeku dago pertsonak, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen publizitate-iragarki oro egin, eman edo erakustea, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere"*.

Kasuaren analisi-prozesu honetan, Euskadiko Ferietako Langile Autonomoen Elkarteak (AFADE) salatutako irudiak ezkatutzea erabaki zuen.

Ikerketa-prozesu honen amaiera gisa, Defentsa Erakundeak Euskadiko Ferietako Langile Autonomoen Elkarteari (AFADE) honako gomendioa bidali zion:

## Gomendioa

*AFADE (Euskadiko Ferietako Langile Autonomoen Elkarteak) erakunde publikoek emandako lizentzien titularra izanik, berdintasunaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren inguruko legeria betetzen ez dituzten edozein elkarteko kidek barrakak edo feriak ez jartzeaz arduratu behar da; betiere jarduera garatuko duten udalerrietan gertatzen denean, dagokion Udalarekin hitzarmena sinatu duten edo ez alde batera utzita.*

*Horretarako, feriak eta barrakak jarri aurretik, AFADEk jarritako barrakak ezarritako baldintza legalak betetzen dituztela bermatzeko neurriak eta prozedurak hartu behar*

*ditu. Hori guztia Euskal Autonomia Erkidego osoan benetako berdintasun eraginkorra lortzearren.*

*D/01/2007 Eskaera*

**Bularra emateko lekurik ez dagoela salatzen du.**

\_\_\_\_\_ andreak idazki baten bidez salatu du ez dagoela behar bezala egokitutako lekurik edoskitzaroan dauden amek, etxetik kanpo daudenean, seme-alabei bularra emateko eroso eta intimitatean. Seme-alabei bularra emateko gunek berriak, publikoak zein pribatuak, ezartzea proposatu du.

### **Analisia**

Sektore pribatuek (merkatal zentroak, aurrezki kutxak, supermerkatuak, eta abar) zein publikoek (Udalak, Foru Aldundiak, eta abar) dute proposamena ebatzeko eskumena. Hori dela eta, Defentsa Erakundeak uste du Ararteko erakundearekin elkarlanean ikertu ahal dela kontu hau, eta batera egiteko lan-proposamenei erantsi die.

*D/02/2007 Eskaera*

**Langile baten kaleratzea, familiako eta laneko bizitza uztartzeko legezko neurriak eskatzeagatik.**

\_\_\_\_\_ jaunak Vitoria-Gasteizko \_\_\_\_\_ enpresa salatu du, enpresa horretako Giza Baliabideen aurrean semea zaintzeko eszedentzia eskatzeko asmoa zuela esan eta horri buruzko informazioa eskatu, eta, bost egun geroago, bidegabe kaleratu dute eta. Era berean, azaldu duenez, frogak aurkezteko zailtasunak dituenek, ez du auzi-errekurtsorik aurkeztu, eta kaleratzea onartu du.

Eszedentzia hitzez eskatu eta hiru egun geroago, zuzendari kudeatzaileak, Logistikako Saileko buruak eta Giza Baliabideen arduradunak bilera batera deitu zioten azaroan gertatutako, eta bere garaian eztabaidatutako, ekoizpen-arazoari buruz aritzeko. Berariaz galdetu zioten ea, semea zaintzeko eszedentzia eskatzeko asmorik ote zuen. \_\_\_\_\_ jaunak berretsi egin zien eszedentzia hartzeko asmoa.

Bi egun geroago, kudeatzaileak eta \_\_\_\_\_ enpresaren Giza Baliabideen arduradunak, baita lantegiko Giza Baliabideen arduradunak ere, berriz ere bilera batera deitu zioten, eta, bertan, kargutik kentzen ziotela jakinarazi zioten, azkenkitatzea ematearekin batera. Salatzaileak, \_\_\_\_\_ jaunak, bidegabeko kaleratzeak hasieran sortu zizkion eraginak eta zalantzak izan ondoren, galdetu zien ea kaleratzearen arrazoia eszedentzia-eskaera izan zen, eta ezezko erantzuna jaso zuen. Argitu beharra dago \_\_\_\_\_ jaunak jakinarazi duenez, 5 urte man ditu enpresan lanean eta inoiz ez du ez ohartarazpenik ez zigorrik jaso.

Salatzaileak, \_\_\_\_\_ jaunak, legezko aholkuak jaso ondoren, Defentsa Erakundearen aurrean enpresa horren bereizkeria-jarduerak salatu nahi ditu, nahiz eta adierazitako gertakariak frogatzeko zailtasuna onartzen duen. Era horretako jokabideak aztertzea eta horiek jendaurrean azaltzea eskatu du, hori egin ezean, laneko eta familiako bizimodua uztartzea helburu duten Berdintasunerako Legeek ezer gutxi balio dutelakoan.

## Analisia

Bereizkeria-zantzuei dagokienez, langileek familiako eta laneko bizimodua uztartzeko legezko neurriak erabiltzeko eskubidea dute. Halaber, eskubide hori haustea sexuagatiko bereizkeriatzat hartzen da, izan ere, urtarilaren 15eko 3/2007 zenbakia duen Konstituzio Auzitegiaren epaiak hau dio: *"legean ezarritako gurasoentzako baimenen bat ukatzeak langileen sexuagatik diskriminatua ez izateko eskubideren urraketan izan dezakeen eragina..."*; eta Konstituzio Auzitegiaren 240/1999 epaiak ideia hori indartzen du hau agertzean: *"semea edo*

*alaba zaintzeko eszedentzia ukatzen duten ebazpenek errekurtso-egileak sexuagatik diskriminatua ez izateko duen eskubidea urratzen zuten”.*

Gertakariak frogatzeko zailtasunak direla-eta, 3/2007 Lege Organikoaren 13. artikuluan frogaren zama bere gain nork hartu behar duen aipatzen da. Hortaz, entitate demandatuari dagokio bereizkeriarik eza frogatzea neurrien eta horien proportzionaltasunaren arabera sexuagatik bereizkeria-jarrerak oinarri dituzten alegazioetan.

Hala ere, deskribatutako gertakari honen modukoak defendatzeko, enpresari mezuak (haurdunaldia, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzea direla) idatziz bidaltzea gomendatzen dute.

Lan Prozedurako Legearen 108.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kaleratzea honako kasu hauetan erabat deuseza izango da: (...) Langileen Estatutuaren 37. artikulua 4., 4.bis eta 5. atalek zehaztutako baimenaren bat eskatu duten langileak, lanaldia murrizteko baimena barne, edo Langileen Estatutuaren 46. artikuluan ezarritako eszedentzia hartu dutenak.

## Egoera

Salaketa balorazio-aldian dago.

*D/15/2007 Eskaera*

\_\_\_\_\_ taberna salatzea emakumearen duintasunaren aurkako esaldiak dituzten azulejoak jartzeagatik.

Defentsa Erakundeari jakinarazi zaio \_\_\_\_\_ tabernan emakumearentzat iraingarriak diren errefracuak eta aipamenak dituzten azulejoak eta kartelak dekorazio-elementu gisa daudela.

## Analisia

4/2005 Legearen 26. 2 artikulua hau dio: "*debeku da pertsonak, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen publizitate-iragarki oro egin, eman edo erakustea, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere*".

## Egoera

Salaketa balorazio-fasean dago.

*D/18/2007 Eskara*

**Salaketa, abesti baten letra matxista-sexistari buruzkoa.**

\_\_\_\_\_ Udaleko Emakumea Artatu eta Laguntzeko Zerbitzuak salaketa jarri du \_\_\_\_\_ egilearen eta abeslariaren "*Las niñas de hoy día, todas son unas guarras*" abestiaren letra matxista-sexistaren aurka. \_\_\_\_\_ udalerriko hiru gaztek 2007ko apirilaren 28an "El País" egunkariaren iritzi atalean salatu eta adierazi dutenez, abesti horren letra entzuterakoan laidotuta eta haserretuta sentitu dira.

## Egoera

Defentsa Erakundea salatutako gaiari dagokionez ofizioz ikerketa-prozedura hasteko arrazoiak dauden zehazteko aurretik egin beharrekoak egiten dabil.

## 3.4 Irizpenak

119/2006 Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, Defentsa Erakundeak txosten honetan 4/2005 Legearen 75. artikuluari jarraiki igorritako irizpenenak sartu behar ditu, eta, lege horren arabera, Defentsa Erakundeak Lan Prozedurako 2/1995

Legearen 95. artikulua 3. paragrafoan aurreikusitako irizpenak emateko eskumena du. Azkeneko artikulua horretan ezartzen denez, lan-prozesuaren ondorioz sexuagatiko bereizkeria egon bada, Epaileak edo Auzitegiak horretarako eskumena duten Erakunde publikoen irizpena eskatu ahal izango dute.

Zentzu horretan ere, 3/2007 Lege Organikoak irizpen horiek egitea aurreikusten du sexuagatiko bereizkeria egon dela alegatzea dagoen beste edozein kontutan, eta 13.1. artikuluan hau ezartzen du: "*aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, organo judizialak, alde batek eskatuta, organismo publiko eskudunen txostena edo irizpena eskatu ahalko du, erabilgarri eta egokitzat joz gero*".

Lehenengo urte honetan (2006ko maiatzaren 24tik 2007ko maiatzaren 24a bitartean), organo juridiko batek ere ez dio Defentsa Erakundeari aipatutako irizpena eskatu.

## 4 LANGILEAK ETA AURREKONTU EKONOMIKOA

Laugarren atal honetan, Defentsa Erakundearen funtzionamendurako oinarrizko bi baliabide horien ezaugarri nagusiak aztertzen dira. Horien deskribapenari berariazko atala eskaini zaio, Eusko Jaurlaritzari dagozkion jarduerak direlako.

### 4.1 Langileak

Defentsa Erakundera bideratutako langile-kopurua izan da, kokalekuarekin batera, abiaraztearen baliabide erabakigarria. Bi baliabide horiek Defentsa Erakundearen egoitza zabaldu zenerako, hots, 2007ko otsailaren 21erako, konpondu ziren.

119/2006 Dekretuaren 6. artikulua honela dio: *"Defentsa Erakundeko langileak aholkulariak eta konfiantzazko langileak eta Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko nahiz horren erakunde autonomoetako funtzionarioak izango dira".* Honakoa zehazten du: *"Agintaritza edo ikuskaritza erabiltzeari lotutako eginkizunak dituzten lanpostuak karrerako funtzionarioek bete beharko dituzte".*

Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea arduratu zen langile-eskaerak izapidetzeaz, honela:

- Behin-behineko langileak: berdintasun-aholkulari 1 eta komunikazio-aholkulari 1.
- Karrerako funtzionarioak: 3 aholkulari juridiko, goi-kargudunaren idazkari 1, administrazio eta zerbitzuetako teknikari 1 eta 2 administrari laguntzaile.

Berdintasun-aholkulariaren plaza 2006ko uztailan bete zen. Funtzionarioei dagokienez, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak honako plaza hauek sortzearen



aldeko txostena egin zuen (2006ko ekainaren 22an): 2 aholkulari juridiko (24. maila), zerbitzu orokorretako kudeatzaile 1 (21. maila) eta goi-kargudunaren idazkari 1 (18. maila). Plaza horien hizkuntza-eskakizunei dagokienez, uztailaren 3an honako hizkuntza-eskakizun hauek ezarri ziren: aholkulari juridikoentzat, 4. eskakizuna; zerbitzu orokorren kudeatzailearentzat, 3. eskakizuna; eta goi-kargudunaren idazkariarentzat, 2. eskakizuna.

Karrerako funtzionarioen lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan ematea eta goi-kargudunaren idazkaria izendapen librekoa izatea adostu zen.

Plaza horien hornikuntza Administrazio Publikoak ezarritako prozedurari jarraiki onartu zen; lehenik eta behin, Defentsa Erakundearen antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen Dekretua onartu zen, ekainaren 13an (ekainaren 30etik aurrerako ondorioekin), eta, bigarrenik, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko arautegiaren arabera hura izapidetzeko beharrezko neurriak ezarri ziren, besteak beste, lanpostuen zerrenda (LPZ) aldatzeari dagozkionak, Defentsa Erakundea beharrezko langileez hornitzeko (urriaren 3ko 188/2006 Dekretua, 2006ko urriaren 23ko EHAAAn argitaratua).

2006ko azaroaren 13an zerbitzu orokorren kudeatzaileari eta aholkularitza juridikoko arduradunari dagozkion plazak zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko deialdia egin zen. Defentsa Erakundeak azaroaren 6an ebazpena eman ondoren, goi-kargudunaren idazkariari dagokion plazaren deialdia azaroaren 29an iragarri zen. Prozedura horien emaitza gisa, honakoak hautatu ziren: zerbitzu orokorren kudeatzaile bat, aurkeztutako 12 eskaerak barematu ondoren; eta goi-kargudunaren idazkari bat, aurkeztutako bi pertsonen artean. Aholkulari juridikoei zegozkien bi plazak hutsik geratu ziren. Azkenik, plazak betetzeko beste prozedura bati hasiera emanda, bi plaza horiek lan-poltsetatik ateratako bitartekoekin bete ziren (2007ko otsaila).

Azken batean, Defentsa Erakundeak 6 lanpostu onartu dira, eta horiek 2006ko maiatzaren 24tik 2007ko otsailaren 20ra bitartean gauzatu dira:

- Berdintasunerako defendatzailea izendatzea, 2006ko maiatzaren 24an.
- Berdintasun-aholkularia izendatzea, 2006ko uztailaren 11n.
- Zerbitzu orokorren kudeatzailea lanean hastea, 2006ko abenduaren 18an.
- Goi-kargudunaren idazkaria lanean hastea, 2007ko urtarrilaren 22an.
- Bi aholkulari juridiko lanean hastea, 2007ko otsailaren 19an eta 20an.

Defentsa Erakunde honetarako onartu diren lanpostuak bete ondoren ikusi zen, organo honi emandako funtzioak garatzeko -sektore pribatuan antzeman daitezkeen sexuagatiko bereizkeria-egoeretan bideratu beharreko ikerketa-prozesuei dagokienez-, beharrezkoa dela ezarritako prozedura zorrotz betetzea, eta hori gauzatzeko espezializazio-maila handia izatea. Hori dela-eta, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari kasuan kasuko monografia berrikusteko eskatu zaio.

Era berean, langileei zuzendutako trebakuntza-plana onartu da, 119/2006 Dekretuaren 5. artikuluko f) atalarekin bat etorritik, hori Defentsa Erakundearen eskumena dela kontuan hartuta. Plan hori 2007ko ekitaldian garatuko da (maiatzetik abendura). Horren edukiak diseinatzerakoan, kontuan hartu da sektore pribatuan antzematen diren sexuagatiko bereizkeria-zantzuek eragindako keaxak edo salaketak ikertzeko prozedura dela-eta beste baliabide batzuekin alderatuta Defentsa Erakundeak duen espezifikotasuna. Jarduera-eremu honetan, ezinbestekoa da espedienteak bideratzeaz eta kasuan kasuko ikuskapen-aktak egiteaz arduratzen diren pertsonen bereizkeriaren aurkako zuzenbidearen arloan eta zuzenbideko beste adar batzuetan (lanekoan, fiskalean, administraziokoan edota penalean) espezializazio-maila handia izatea. Lanpostuak definitzerakoan ez da espezializazio hori ezarri eta, horregatik, langileei zuzendutako trebakuntza-planaren bidez, hutsegite hori konpondu nahi da, neurri batean behintzat, organo horren eraginkortasunaren mesedetan.

## 4.2 Aurrekontu ekonomikoa

Erakunde honen zuzkidura ekonomikoa Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen aurrekontuan esleituko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren barruan, 119/2006 Dekretuaren 7. artikulua dioen bezala.

Horrela, 2006ko ekitaldiari dagozkion Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak Aurrekontuan 47.3223.01.45499.05 partida onartu zen 1.000.000€-ko gastu-aurreikuspenarekin Defentsa Erakunderako, bereziki lotutako kreditu gisa. 119/2006 Dekretua onartu ondoren (2006ko ekaina), zuzkidura hori eguneratu eta 316.663,87€-tan utzi zen. Zenbateko hori honela gauzatu da kapituluak:

### 2006ko aurrekontua (ekainetik abendura)

kapitulua	Erabilgarria	Gastatutakoa	%
I. kapitulua	141.663,87	73.944,53	52,20
II. kapitulua	105.000,00	87.314,62	83,16
VI. kapitulua	70.000,00	64.276,83	91,82
<b>Guztira</b>	<b>316.663,87</b>	<b>225.535,98</b>	<b>71,22</b>

Defentsa Erakundeak 2006ko ekitaldiko bigarren seihilekoan gauzatu zuen urteko aurrekontua, aldi horretan eratu baitzen eta abian jarri baitzen, honako alderdi hauek zehazte aldera: egituraren definizioa, kokapen funtzionala, ekipamendua, baliabide teknikoaren eta giza baliabideen hornikuntza, irudi korporatiboaren zehazpena eta lan-sistematikaren definizioa. I. kapituluari dagokion gastua %52koa baino ez zen izan, funtzionarioak 2006ko abendutik 2007ko otsailera bitartean kontratatu baitziren.

2007ko ekitaldiari dagokionez, Defentsa Erakundearen memoria argitzaileko jarduerak, helburuak, ekintzak eta adierazleak Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko aurrekontu-memoriari dagozkion ataletan jasota daude, eta horiei ekitaldi honetarako esleitu zaien zuzkidura ekonomikoa 646.484,00 €-koa izan da, 09 Zerbitzuak epigrafearen barruan.

#### 2007ko aurrekontua

Kontrzeptu	I. kapitulua	II. kapitulua	VI. kapitulua	Guztira
Esleitutakoa	333.804,00	292.680,00	20.000,00	<b>646.484,00</b>

## 5 LABURPENA

Urteko txosten hau 2006ko maiatzaren 24tik 2007ko maiatzaren 24ra doan aldiari dagokio, eta bere helburua Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak egindako askotariko jardueren deskribapen xehatua eskaintzea da.

Defentsa Erakundea organo burujabea da, sortu berria eta Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundera atxikia, eta bere helburua Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzen dela eta sektore pribatuan sor daitezkeen sexuagatiko bereizkeria-egoeretan herritarrak babesten direla zaintzea da.

Organo hau 4/2005 Legearen bidez sortu da (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Eusko Legebiltzarrarena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa), eta bere izaera, mugak, eginkizunak, antolaketa eta funtzionamendua 119/2006 Dekretuan araututa daude (119/2006 Dekretua, ekainaren 13koa, Jaurkitzaren Lehendakariaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen antolaketa- eta funtzionamendu-araudia onestekoa).

Ondoren, Gorte Nagusiek onetsi zuten martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoak, berdintasunaren arloko ordenamendu juridikoa indartu du eta interes handiko gaiak barneratu ditu Defentsa Erakundearen jardura-eremuari dagokionez, bai sexuagatiko bereizkeriarekin erlazionatutako alderdien inguruan egindako ekarpenengatik, bai sektore pribatua dela-eta barneratzen dituen neurriengatik.

“Sektore pribatu” terminoa definitu eta mugatzeari dagokionez, ikuspegi teorikotik oraindik erabaki ez den gaia dela ikusi da. Azaroaren 17ko 5/2006 Legean, Euskadiko ondareari buruzkoan, eta zuzenbide pribatuko arauetan biltzen diren proposamenak –partikularren artean berdintasuna eta bereizkeriarik eza izateko oinarritzko eskubideen eraginkortasun juridikoari lotutakoak– izan dira Defentsa

Erakundearen jarduerarekin erlazionatutako gai garrantzitsu hau erabakitzeke erabili diren erreferenteak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea 2006ko maiatzaren 24an defendatzailea izendatzearekin batera jarri zen abian. Defendatzailea Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakariaren maiatzaren 16ko 3/2006 Dekretuaren bidez izendatu zen, 4/2005 Legearen 67. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri eta Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza Kontseiluak hala proposatuta.

Bere ibilbidearen lehenengo urtean gauzatutako jardueren artean, lanean hastearrekin erlazionatutakoak daude: egoitza bat kokatzea eta kudeatzea, ekipamenduz hornitzea, funtzionamendurako tresnak zehaztea, komunikazio- eta hornikuntza-sareei lotzea, irudi korporatiboa sortzea, zabalkunde- eta komunikazio-lanak egitea, lankidetzaren harremanak garatzea eta lankidetzaren mekanismoak abiaraztea, erakundearen eta bere jardueraren eremuaren (hots, sektore pribatuaren) definizioa azpimarratuta.

Bestalde, berritasun eta alderdi interesgarri gisa, Europako iparraldeko herrialdeetako (Norvegia, Suedia eta Finlandiako) Genero Berdintasunerako Defentsa Erakundeetara bisitaldiak egin direla aipatu da, baita Europako Genero Berdintasunerako Defentsa Erakundeei buruzko Nazioarteko Mintegia antolatu dela ere, EHUko Udako Ikastaroekin lankidetzan eta unibertsitate horretako Berdintasunerako Zuzendaritzarekin batera zuzenduta; mintegi hori 2007ko irailaren 5, 6 eta 7an egingo da Donostian eta, bertan, Europako iparraldeko hiru herrialde horietako Berdintasunerako Defentsa Erakundeetako zuzendaritzek hartuko dute parte.

Defentsa Erakundearentzat interesgarriak diren gai jakin batzuen gaineko ezagutza izateko, berriazko hiru sarrera-azterlan egiteko kontratuak egin dira, zehazki, honako gai hauen ingurukoak:

*1) Emakumeak sektore pribatuko enpresen kudeaketako eta zuzendaritzako lanpostuetan sartzearen onurak: bibliografiaren berrikuspen bat*

Azterlan honek dio, besteak beste, gaiari buruzko azken azterlanen arabera, enpresek, ideia estereotipuetan eta iraganetik datozen inertzietan oinarrituta, emakumeak diskriminatu eta zuzenean nahiz zeharka kudeaketa- eta gidaritzapostuetatik aldentzen dituztenean, aukera-kostu handiak sortzen dituztela, eta, ondorioz, ez dituztela behar bezala aprobetxatzen eskura dituzten giza baliabideetako asko. Gaur egungo negozio-ingurunean (enpresa ondo gobernatuta egotea nagusitzen da eta akziodunen eta enpresarekin erlazionatutako talde nagusien interesak babesten dira), genero-aniztasunaren aldeko apustu segurua egitea enpresen bilakaeraren oinarrietako bat da.

*2) Bereizkeriaren mugaketa kontzeptuala eta diskriminazioaren kontrako legeen eta jurisprudentziaren bilduma*

Bestalde, Defentsa Erakundeari *bereizkeriaren aurkako legeria eta jurisprudentzia aztertze*ko eta *legeak egin edo aldatze*ko proposamenak egiteko eman zaion eginkizuna betetze aldera, bigarren azterlan hau egin da, aztertu beharreko material juridikoa sistematikoki biltzeko. Horretarako, beharrezkoa da bereizkeriaren kontzeptua argitzea. Horren ildotik, azterlanak dio jatorriz kultura juridikoa modernoarekin sortutako bereizkeriaren kontzeptuak bat egiten duela legearen aurreko berdintasun-printzipioa haustearen kontzeptuarekin; printzipio hori modu individualistan ulertzen da eta egungo Zuzenbidearen eta Estatuaren (hau da, horietako subjektu maskulinoaren) euskarri den unibertsaltasun faltsuan oinarrituta dago.

*3) Euskal Autonomia Erkidegoko hitzarmen kolektibo sektorialak genero-ikuspuntutik, sexu-arrazoiengatik ez diskriminatzeko arauen baitan*

Lan honek egun indarrean dauden genero berdintasunaren inguruko zapi blokeei dagozkien Euskal Autonomia Erkidegoko hamahiru arlokako hitzarmenak aztertzen ditu. Horretarako, beste autonomia-erkidegoetan jadanik egin diren azterlanen proposamena abiapuntutzat hartu da: lana lortzea eta lan-baldintzak, oro har; lansaria eta gizarte-onurak; amatasuna eta langileen lanbideko eta familiako erantzukizunak adostea; haurdunaldiaren eta edoskitzaroan osasuna babestea; ekintza positiboa eta bereizkeriaren aurkako klausulak; sexu-jazarpena; jazarpen-morala edo mobbing-a.

Sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoeren aurrean herritarrak babestea Defentsa Erakundearen arreta-eredu espezifikoa eta espezializatua da, 4/2005 Legeak berariaz eman dizkion funtzioen arabera.

Lehenengo urte honetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak guztira 40 eskaera jaso ditu. Horiek ez datoz beti bat alderdietakoren batek hala eskatuta ikerketa-prozedurari hasiera emateko 119/2006 Dekretuak ezartzen duen *kexa*-formatuarekin. Izan ere, batzuetan, herritarrek informazioa eta/edo aholkularitza eskatu dute, eta, halakoetan, eskaerak *kontsulta* gisa erregistratu dira; beste batzuetan, ordea, *salaketa* jarri dute beren interes partikularra arriskuan jartzen ez duen sexuagatiko ustezko bereizkeria-egoera baten aurrean.

Defentsa Erakundeak jaso diren 40 eskaeretatik 24 *kontsultak* izan dira (hauetatik 8tan *kexa* jarriko zela adierazi zen), 11 *kexak* eta 5 *salaketak*.

Eskaeretatik gehienak, 40, emakumeek egindakoak izan dira (29, %72). Eskaeren jatorriari dagokionez, %45 (26) norberaren ekimenez egin dira, %20 (8) Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen bidez heldu dira eta %10 (4) sindikatuen bidez.



Eskarek –kontsulta, kexa edo salaketa direla ere– jorratzen dituzten gaiei dagokienez, ia erdiak (18) ustezko lan-arloko bereizkeria-egoerak aipatzen dituzte, eta, horietatik, gehienak bateratzearekin eta amatasunarekin erlazionatuta daude. 7 eskaeratan, elkarreek ustezko bereizkeria-jardunbideak garatzen dituztela aipatzen da, besteak beste, emakumeak kide gisa ez onartzea. Hiru eskaeratan ustezko jazarpen sexistaren egoerak aipatzen dira; eskaera batean hedabideen tratamenduan ustez sexuagatiko bereizkeria egin dela aipatzen da; 3tan jendaurreko espazioetan bereizkeriazko irudiak jarri direla edo bereizkeriazko tratua eman dela adierazi da; eta gainerako 8tan beste hainbat alderdi izan dira hizpide.

Jasotako 11 *kexei* dagokienez, 6 ez dira onartu, auzitegietan demanda aurkeztu delako, epaileak ebazpena eman zain daudelako edo horien inguruko epaia eman delako; eta, eskaera batean, falta diren dokumentuak ekartzeko eskatu da. Onartutako 4 kexetatik 2 gomendio bidez ebatzi dira, 1 ikerketa-prozesuan dago eta beste bat entzunaldi-izapidean.

Era berean, ofiziozko beste ikerketa-prozedura bat garatu da emakumeen elkarte batek egindako salaketaren ondorioz eta hori gomendio bidez ebatzi da.

Defentsa Erakundeetan jasotako eskaera-kopurua dela eta, beharbada herritarrek ez dutelako sortu berria den baliabide honen berri eta ez dakitelako beharrezkoa dela jarduerak garatzea errealitate hori gainditzeko.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundera bideratutako aurrekontuko zuzkidura eta langile-kopurua izan dira, kokalekuarekin batera, abiaraztearen faktore erabakigarriak. Horiek berrikusi eta gehitu egin beharko dira emandako funtzioak modu eraginkorrean bete ahal izateko.

2007ko otsailaren 21ean, hots, egoitzaren inaugurazio-ekitaldi ofiziala egin zen egunean, guztira Eusko Jaurlaritzak onartutako 6 lanpostuak zeuden beteta.

